



+

Aniztasuna onartzetik hasten da dena

Jone Zalduegi hezitzaile sexualari elkarrizketa



## ELGETAN ENTZUNGO DIRA TRIKITI ETA PANDERO SOINUAK

Zapatuan elkartuko dira eskualdeko trikiti eta pandero ikasleak eta zaleak  
Debagoieneko Trikitixa Egunean; 375 lagun espero dituzte Elgetan / 34

Elgetako Trikitixa Eskolako neska-mutikoak, Adolfo Jainaga irakaslearekin batera, zapatuko jaialdirako dei egiten, atzo, Elgetan bertan. ENEKO AZKARATE LASPIUR



**Lanak espero baino lehenago amaituta, gaurtik aurrera zabalik da Bergarako Masterreka kalea / 20**



**Eguraldi eguzkitsua eta temperatura beroak kontuan izanda, ur-parkeak zabalik Arrasaten / 12**



**Arrasateko herribus batek su hartu du, eta Udalak eten egingo du Avanzarekin duen kontratua / 12**

### SINADURAK

 URTZI AMIANO SALTERAIN / 8	 PILAR ETXANZ / 22
 ITSASO ERRETOLATZA / 10	 HORAZIO ARGARATE / 29
 MAIALEN ARRIABALAGA ARANA / 14	 IZAR ODRIOZOLA / 40

2x229€

**MÓ PROGRESIBO**

BAT EGUZKITAKOIA IZAN DAITEKE





R.P.S. 91070

Kontsultatu optikan karpainaren ezabagarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

**MULTIÓPTICAS**  
kalitatea - konfiantza - diseinua





Antzuola eta Bergara arteko errepeidea, Aseginolaza parean. I.A.A.

# Debagoiena guztiz lotu gabe

2013an onartutako Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak herrien arteko bidegorrien sarea osatzea du helburu, tartean, Debagoiengan; orduetik, ibarra bizikleta-bidez lotzeko zenbait lan egin badira ere, proiektu guztiak ez dira gauzatu

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana (GB-BLAP) berrikusteko fasea abiarazi du; hain zuzen ere, duela 10 urte onartu zutena. Plan ho-

rren bidez, datozen zortzi urteetarako bidegorrien sarea osatzen joatea da helburua; hau da, herriarteko bizikleta-bideen sare segurua sortzea. Herriak lotzen dituzten bidegorriak hartzen ditu barnean planak, horiek

baitira Foru Aldundiaren ardurara; herri barrukoak, berriz, udalen esku daude. Planaren eguneraketa egin eta proposamenak jasotzeko, bilerak egin dituzte udalekin eta herrietako eragileekin egin -tartean, De-

bagoienekoekin Bergaran eta Arrasaten joan den astean-. Halaber, herritarrek maiatzaren 8ra arte dute aukera euren proposamenak bidaltzeko webgune galdetegi baten bitartez.

Azken agintaldian zenbait bidegorri zati egin ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horren adibide da, esaterako, 2022ko maiatzean inauguratu zuten Arrasateko Kataideko bidegorria. Debagoieneko herri gehientsuenak bidegorriarekin lotuta badaude ere, zenbait puntutan errepidetik igaro behar da oraindik, ez baitago bizikleta bidea eginda. Hori gertatzen da, besteak beste, Bergara eta Antzuola lotzen dituen bidegorrian -Bergara eta Antzuola arteko mugarrira dagoen tartean- eta Bergara eta Elorregi artean -Tavex enpresa dagoen lekuan-. Horren harira, bi puntu horietan bidegorria egiteko nahia aurreko agintaldietatik dator, eta, eskaerak egin arren, oraindik ez dira errealitate bihurtu.

**Bergara eta Antzuola lotu ezinik** Gaur-gaurkoz, Antzuolatik Galtza pareraino dago bidegorria eginda. Halaber, handik Aseginolaza pareraino "segurtasunez" joan daitezke oinezkoak eta txirrindulariak. Alabaina, puntu hartatik Bergararako bidegorri zatia egin gabe dago, 200-300 metro inguru. Duela zenbait urtetatik ari dira eskatzen bi herriak bidegorriarekin guztiz lotzeko Antzuolako eta Bergararako udalak, baita herritarrak ere; 2019ko apirilean, adibidez, bizikleta martxa antolatu zuten Antzuolatik Bergararaino, protesta modura, *Herriak lotu bidegorria amaitu* lelopean. Martxa aitzakiatzat hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarri

zen harremanetan GOIENA, eta Aldundiak baieztatu zuten joan den agintaldi honetan egingo zuela Antzuola-Bergara bidegorri-rutzetik Bergararako autobus geltokirainoko bidegorri zatia.

Agintaldi honetan, Bergararako eta Antzuolako udalek hainbat bilera egin dituzte Aldundiarekin eta Urak-ekin proiektua gauzatzearen beharra eta urgentzia azpimarratzeko. Bergararako Udalaren esanetan, jarraipena egin diote gaiari, eta, "eskaerei erantzunez, azken berriaren arabera, proiektua idatzita dago eta beharrezko hitzarmenak bideratuta. Epe motzean gauzatu dela adierazi digute Aldunditik".

Ur-zikinen kolektorea eta bidegorria bide berean egitea da proiektuaren asmoa. Ur-zikinak Bergararako araztegi eramateko 2022ko uztailean hasitako lehen lanak amaituta daude, baina bigarren zatia egitea falta da, Ilunpeko bihurtzeko estugunean sortzen baita arazoa. GOIENAK egindako hainbat elkarrizketatan adierazi du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak erreka gainean zabaldu beharko litzatekeela bidegorria, baina Uraren Euskal Agentziaren ustez "erako tekniko" bat dela hori. Kortabarriak espero du aurtur gauzatzea. Kanalaren proiektua Urak-ek kudeatzen du eta bidegorriarena, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak. Azken horiek jakinarazi dute bidegorria egiteko Urak-ekin lankidetzaz hitzarmena idazten

**AGINTALDI HONETAN ZEN EGITEKOA ALDUNDIA BERGARA ETA ANTZUOLA ARTEKO BIDEGORRIA**

## LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATEAK ZABALIK

Etorkizuna zure esku

Fp ikasLAN Gipuzkoa

### ARETXABALETAN:

Maiatzaren 10ean, 18:00etan

**ALE** ARETXABALETAN Lanbide Eskola  
Etxebarri auzoa, 21g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETAN  
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489  
la@aretxabaleta.com  
www.ale-aretxabaleta.eus

### BERGARAN:

Maiatzaren 13an, 11:00etan

**MIGUEL ALTUNA** LHII Bergara  
Agiribidea, 2 • 20570 BERGARA  
☎ 943 899 270 / 943 899 271  
info@maltuna.eus  
www.maltuna.eus

### OÑATIN:

Maiatzaren 6an, 11:00etan

**ONATI** Institutua  
Lamaña auzoa, 16 • 20560 OÑATI  
☎ 943 899 300  
info@onati.net  
www.onati.net

**2023 - 2024 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA MAIATZAREN 8TIK 26RA**



## Bidegorri zatia falta Elorregin

Garai bateko Vasco-Navarro trenaren ibilbidea aprobetxatuta Bergararik Eskoriatzara nahiz alderantziz ibilbidea egin daiteke bidegorriz. Bergara eta Elorregi artean, baina, une batez bizikleta-bidea amaitu egiten da eta zati bat bide estu batetik egin behar da; hain zuzen ere, Tavex fabrika dagoen lekuan ez dago bidegorririk. Bergarako

Udalak Mugikortasun Sailarekin egin ditu bilerak azken urteetan, eta, gaineratu dutenez, Bergarako Udalean apirilaren 27an Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Planaren berridazketaren harira egin zen bileran ere mahaigaineratu zuten gai hori, beste batzuekin batera –San Juan Uberarekin zein Angiozarrekin lotzea,

besteak beste–. Bergarako Udalak dioenez, bere egunean Aldundiak okupazioko aurretiatzko akta sinatu zuen, baina ez zuen jabetza eskuratu. Foru Aldundiaren ardurapean dago zati hura. Bertatik azaldu dutenez, Mugikortasun eta Lurralde Antolaketaren Saileko teknikariak proiektua aztertzen ari dira, baina, aurreratu dutenez, ez daukate aurreikusita aurtengo programazioan.



Bidegorria amaizten den gunea, Elorregin, Bergararantz, Tavex-en inguruan. I.A.A.

ari direla, ur-agentziak egin behar duen kolektorearen obra aprobetxatzeko.

### Urola-kostara begira

Bergara eta Antzuola goiko trenbide sareak ere lotzen ditu. Bide hura jarraituta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren GBBLAPk jasotzen du Antzuola Zumarragako bidegorriarekin lotzea, baina oraindik aztertze-fasean dago. Antzuolako alkateak azaldu du Aldundiak 2021etik duela zirriborro bat eginda, eta "teorian" orduan sinatu behar zutela: "Guk gure aldetik egin genituen lur-jabeekin hitzarmen pribatuak. Oso proiektu txikia da, nire ustez; egingarria. Bailerari beste irteera bat emango lioke. Zumarraga-Urretxuraino joan zaitezke bidegorriz; gero, handik Iraetaraino".

### Bailarako beste zenbait puntu

GBBLAPk Arrasate eta Aramaio arteko bidegorria egitea jasotzen du. Hari dagokionez, Gesalibar auzorainoko bizikleta-bidea egin dago, baina Aramaioarekin guztiz lotzeko proiektua garatzea aurreikusten dute, nahiz eta proiektua egin gabe egon.

Bestalde, Leintz Gatzagako-Vasco-Navarro bide berdeaz galdetu dio GOIENAK Aldundiari; izan ere, Gure Ametsa eta Tellerixa artean egokitzapen lanak egiteko asmoa azaldu zuten udan: "Bide berde hori Turismo Ministerioaren dirulaguntzan sartzen dugun bideetako bat da, MRR eta Next Generation funtsekin. Proiektua eguneratu egingo dugu, zatia gauzatzeak ekarriko lukeenaren ikuspegi eguneratua izateko. 2023-2024ko bitartean egingo da". Aldundiaren webgunean kontsulta daiteke Gipuzkoako bidegorri sarearen mapa.




**ULMA Servicios de Manutencion, S. Coop. - Oñati**

---

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • DE I A L D I A**

Eguna: 2023ko maiatzaren 12a  
 Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena  
 Lekua: ULMA Taldeko Auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERREND A**

1. AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GESTIO PLANA BERRISTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
  - 4.1. 2022ko Urteko Banakako Kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
  - 4.2. 2022ko Urteko Kontu Bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2022KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, HAUEK ALDATZEA: (I) POGU III-KO EL TITULUAREN 1.4.2 ETA 4.4 ATALAK ETA III TITULUA, BAI ETA ESTATUTU SOZIALETAKO 31.BLN) ARTIKULUA ETA LEHEN ETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK ERE, KOOPERATIBA MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA, SOZIEATE ZIBILEAN BAJA EMATEAGATIK ETA HOBREN ONDORIOZ KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEN ARAUAK GARATZEAGATIK; ETA (II) ESTATUTU SOZIALETAKO 52. BOST ARTIKULUA, KAPITAL SOZIALERAKO EKARPENEN MUGAPENARI BURUZKOA, ETA BARNE ARAUDIKO 16. ETA 20. ARTIKULUAK, BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA, ARAU TESTUAREN ARGITASUNA INDARTZEKO ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMA-N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) AFLIKATZEA
  - 9.1. 2022an ULMA Fundazioak IPDKetarik egindako erabileneri buruzko deskargua
  - 9.2. 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
  - 9.3. ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKekin erantutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
  - 9.4. ULMA Fundazioak 2023rako aurreikusitako jardura sozialaren ildoen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA
14. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzildoi proposamena zuzen Kooperatibaren egitasun eta inbentarioa edertzeri ditzatela onartu behar da, baina, bidezkoak diren, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak legezko erabileneri egokitu behar dira. Batz. N. Nagusiaren deialdian aipatu diren arazoak onartu behar dira. Hainbat, bidezkoak gertatu behar diren zuzen Kooperatibaren egitasun ditzatela onartzeri ditzatela, Kooperatibaren Barne Araudian eta POGU IIIan proposatutako aldatutako testu onen eta aldatutako beren justifikazio testuak, eta hori duen emaitza onartu behar diren.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
Oñati, 2023ko apirilaren 21a




**ULMA Hormigon Polimero, S. Coop. - Oñati**

---

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • DE I A L D I A**

Eguna: 2023ko maiatzaren 12a  
 Ordua: 08:30ean lehen deialdia eta 09:00etan bigarrena  
 Lekua: R.M. Zazula Institutuko aretoa - Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERREND A**

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GESTIO PLANA BERRISTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
  - 4.1. 2022ko Urteko Banakako Kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
  - 4.2. 2022ko Urteko Kontu Bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2022KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, HAUEK ALDATZEA: (I) POGU III-KO EL TITULUAREN 1.4.2 ETA 4.4 ATALAK ETA III TITULUA, BAI ETA ESTATUTU SOZIALETAKO 31.BLN) ARTIKULUA ETA LEHEN ETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK ERE, KOOPERATIBA MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA, SOZIEATE ZIBILEAN BAJA EMATEAGATIK ETA HOBREN ONDORIOZ KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEN ARAUAK GARATZEAGATIK; ETA (II) ESTATUTU SOZIALETAKO 52. BOST ARTIKULUA, KAPITAL SOZIALERAKO EKARPENEN MUGAPENARI BURUZKOA, ETA BARNE ARAUDIKO 16. ETA 20. ARTIKULUAK, BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA, ARAU TESTUAREN ARGITASUNA INDARTZEKO ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMA-N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) AFLIKATZEA
  - 9.1. 2022an ULMA Fundazioak IPDKetarik egindako erabileneri buruzko deskargua
  - 9.2. 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
  - 9.3. ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKekin erantutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
  - 9.4. ULMA Fundazioak 2023rako aurreikusitako jardura sozialaren ildoen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA
14. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzildoi proposamena zuzen Kooperatibaren egitasun eta inbentarioa edertzeri ditzatela onartu behar da, baina, bidezkoak diren, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak legezko erabileneri egokitu behar dira. Batz. N. Nagusiaren deialdian aipatu diren arazoak onartu behar dira. Hainbat, bidezkoak gertatu behar diren zuzen Kooperatibaren egitasun ditzatela onartzeri ditzatela, Kooperatibaren Barne Araudian eta POGU IIIan proposatutako aldatutako testu onen eta aldatutako beren justifikazio testuak, eta hori duen emaitza onartu behar diren.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
Oñati, 2023ko apirilaren 26a



# Urkulu urtegiak du betetze-maila baxuena

Urteko lehen lau hilabeteetatik euritsuena urtarrila izan da eta orduko zaparradek lagundu zuten betetze-maila igotzen, oso lehorra izan baita ordutik apirilera bitarteko tartea; 325 litro metro koadroko erregistratu dira Euskalmeten Urkuluko estazioan

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urte hasieran baino ur gehiago dagoen arren, duela hilabete baino gutxiago dago Urkuluko urtegiaren. %65ekoa da betetze-maila, Gipuzkoan dauden zazpi urtegietatik baxuena. Altuena Barrendiolak du: %98,40 dago beteta.

## Zentzuzko erabilera

Gipuzkoako Urak jasota dituen datuak dira, maiatzaren 4koak, eguenekoak. Datuetan ikusten da Urkulu urtegiaren betetze-maila %65,63koa dela, azken lau urteetako baxuena. 2019tik 2022ra, biak barne, %90 baino handiagoa zen betetze-maila data berean. Datuak konparatuz, beraz, egungo egoera larrialdi egoera da aurreko lau urteekin alderatzen bada.

Egun duen ur kopuruak, baina, ez du, hasiera batean, behintzat, alarrik sortu behar. Urkuluk 65.500 biztanle hornitzen ditu urez eta pertsona kopuru horren ohiko ur kontsumoa ikusita badirudi negu hasierara heltzeko beste ur badagoela, nahiz eta hori ezin den ziurtzat jo. Baliteke datozen egunetan edo asteetan euria egitea eta betetze-maila igotzea. Kontrara, euririk ez badu egiten, edo gutxi egiten



Urkulu urtegiaren egoera eguaztenez. O.E.G.

badu, urtaro hotzenera iristeko moduan egongo da urtegia, baldin eta uraren zentzuzko erabilera egiten bada.

## Euri gutxi apirilean

Urkuluko urtegiak %59ko betetze-mailarekin agurtu zuen joan den urtea, eta, urtarrileko eta otsaileko eurien eta elurrak batuta, Arrasateko estazio meteorologikoan jasotako datuen arabera, 290,7 litro bota zituen neguan metro koadroko; Urkuluko urtegia %70,59ko mailara iritsi zen udaberrian sartu be-

rritan. Eta ordutik hona ere ez du euri askorik egin inguruan.

Euskalmetek Urkulun duen estazioak erregistratu dituen datuen arabera, 56 euri litro egin ditu metro koadroko; martxoan eta otsailean baino gehiago, hala ere. Hain zuzen ere, urtarrilean 182 egin zituen, otsailean 48 eta martxoan 39. Urteko lehen lau hilabeteetan, beraz, 325 litro metro koadroko.

Zenbat egingo duen ezin jakin, baina datorren astean euria egin dezakeela dio Euskalmeten eguraldi iragarpenak.

## Gipuzkoako Erroten Eguna ospatuko dute, bigarrenez

Datozen bi asteetan ia 40 bat bisita egingo dituzte, baita Oñatin, Bergaran, Antzuolan eta Gatzagan ere

### O.E.G. OÑATI

Oiartzungo Ihurrita errota sustatzeko taldearen, Beasaingo Igartza monumentu multzoaren eta Aldabe kooperatibaren artean antolatuko dute aurten Gipuzkoako Erroten Eguna; bigarrenez. Maiatzaren 14an izango da, baina bihurtik hilaren 21era bitartean ia 40 bat bisita gidatu, erakusketa, hitzaldi eta mahai inguru ere egingo dituzte lurraldean. Baita Oñatin, Bergaran, Antzuolan eta Leintz Gatzagan ere.

### Sei ekimen gurean

Antzuolan, esaterako, Basalde auzoko errota eta zentral elektrikoak ikustera joateko ibilaldi gidatua egingo dute datorren egunean, hilak 11. Eta 13an, berriz, Akiñabei errota ikustera joango dira. Egun berean –datorren zapatuan– egingo dute Bergarako erroten bisita ere;

Narbaizabolua eta Elortzabolua ikusteko irteera gidatua izango da. Hain zuzen ere, Debagoiengan Bergara izan da errota gehien izan zituen herria; Bergaran errote *bolu* esaten zaie –herriko auzo populatuena den Bolua auzoak errota zuen izen bereko baserri batetik hartu zuen izena–.

Oñatin hogeitabi errota –Bergarako erdia– izan ziren garai baten. Haien artean, Turismo Bulegoan dagoen San Migel errota; erroten gaineko azalpenak emango dituzte hain hilaren 14an. Bi egun lehenago, errote buruzko bisita gidatua egingo dute Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan. Eta Leintz Gatzagan, berriz, maiatzaren 14an, gatzaren kultur paisaia ezagutzeko irteera egingo dute.

Erroten Egunak errotek lurraldean izan zuten garrantziaz balioa ematea du helburu.

## Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute

*Urratsak zubi* leloa darama aurten Herri Urratsek. 1984tik antolatzen du Seaskak, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioak, euskal irakaskuntzari hauspoa emateko. Senpereko (Lapurdi) aintzira ingurua izan ohi da kokagunea. Maiatzaren 14an ospatuko da aurten, domeka, eta Debagoieneko euskara elkarteek autobusa jarriko dute. Txartelak

maiatzaren 11ra arte eskuratu ahal izango dira Aretxabaletako Loramendi, Bergarako Jardun eta Arrasateko AED elkarteetan, 12 eurotan; elkarteetako bazkideek, 10 eurotan.

Autobusa 08:30ean irtengo da Aretxabaletako Azbetik, 08:45ean iritsiko da Arrasateko Zaldusperra eta 09:00etan Bergarako bus geltokira. Itzulera, 19:00etan egingo dute Senperetik. Su Ta Gar, Zetak, Gozategi eta Neomak taldeek eta gehiagok osatutako egitarauaz gozatu ahal da.



ANTOLATZAILEAK:



KOMUNIKAZIO TALDEA



Mondragon Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

# Bideo-podcasta

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan



Anima zaitetz eta eman izena!







## Nola erabaki zenuen ziklo hori egitea?

Mekanizatuko erdi maila egin ondoren jarraitzeko bide zuzena zen, eta, Arrasaten bertan MGEP izanda, ez nuen zalantzarik izan. Horrez gain, ziklo horretan egiten diren gauzak gustatzen zaizkidalako eta bukatu ondoren lan-irteera asko daudelako.

## Zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (MGEP)?

Arrasatekoa izanda, MGEP txikitatik ezagutzen nuen eta nire lagunek han ikasi dute. Fama ona du eta beti iritzi ona izan dut MGEPri buruz. Bi urte hauetan giroa oso ona izan da, hainbat lekutako ikaskideak izan ditut, harreman onak egiteko aukera izan dut, nahiz eta ikaskide batzuk lehenagotik ezagutzen nituen, eta irakasleekin ere giro ona egon da.

## ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Nola moldatu zarete?

Lantokian izango ditugun lanak gehiago ezagutzeko, lehenengo eta bigarren mailatan hainbat erronka egin ditugu. Metodologia ona dela iruditzen zait, taldean egin behar diren gauzak lantzen direlako: koordinazioa, denboraren kontrola, erantzukizuna besteekiko...

Erronka batean, Coprecin egiten den pieza bat aztertu eta nola fabrikatu proposatu genuen –estanzazio parametroak, azken mekanizaziokoak eta abar–, eta gero, Coprecira joan ginen, benetan nola egiten den ikustera. Gainera, gure proposamena enpresako jendeari erakutsi behar izan genion, eta haiek esaten ziguten non ez genbiltzan ondo. Lotsa pasa genuen, baina egia da gero ere horrelako gauzak egin beharko ditugula, eta hobe da lotsa ahalik eta azkarren galtzen hastea.

**“Lantokian izango ditugun lanak gehiago ezagutzeko, lehenengo eta bigarren mailan hainbat erronka egin ditugu”**

## Aimar Mijangos Barandiaran (Arrasate)

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa  
Goi Mailako Heziketa Zikloa (GMHZ)

## Nolako izaten ari da dual esperientzia?

Duala Arrasateko IFAMen egiten ari naiz. Lehen egunetik oso harreman ona egin dut langileekin. Enpresan gauza asko ikasten ari naiz, eskolan teoriarik erakutsitako gauzak praktikan jartzen. Duala egitea oso gomendagarria da; nire kasuan, oso aukera ona izan da, eta ez naiz damutzen erabaki hori hartu izanaz.

## Zer egin nahiko zenuke aurrerantzean?

Ziklo horrekin, momentuz, nire formakuntza bukatutzat emango nuke eta lanean hasi nahiko nuke, ahal izango balitz IFAMen bertan; enpresa ezagutzen dut eta gustura nabil han lanean.

## Bete du zikloak hasieran egin nahi zenuena?

Hasieran espero nuena bete da. Espero nuena baino gehiago, esango nuke, dual aukera izan dudalako eta aukera oso ona izan delako.

**Eman  
izena!**



**MGEP: 664 298 683 // 664 298 704**

**ATE IREKIAK: Maiatzak 6 11:00**





Duela urtebete Gasteizko Legebiltzarrera egindako martxa. ARRASATEKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUA

# Gasteizera joango dira oinez, lau etapa eginda

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua EAEko Legebiltzarrera joateko martxak antolatu ditu, maiatzaren 22tik 25era. Gipuzkoako zutabeak Bergaran hasiko du "1.080 euroko pentsio publiko duina" aldarrikatzeko 51 kilometroko ibilaldia

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Pentsiodunen Mugimendua bost urte baino gehiago darabazten hamalau ordainketatan egindako 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen. Izan ere, Europako Gutun Sozialak neurri hori proposatzen du zahartzaro duina izateko eta genero-arrakala murrizteko gutxieneko diru-sarrera gisa. Espainiako Gobernuak martxoan onartutako pentsioen erreforman pentsioak progresiboki igotzea adostu zuten, eta 2027. urterako jasoko lukete erretiratuek 1.080 euroko pentsio minimoa.

Baina ez dira zain geratuko; ahal bezain laster lortu nahi dute euren aldarrikapena egia bihurtzea, eta mobilizazioei berrekingo diete. Joan den martxoan egin zituzten azkenak; hain justu, erreformarekiko desadostasuna adierazteko. Orduan Bilbo izan zen manifestazio, baraualdi, mahai-inguru, idazki eta martxen epizentrotan. Gasteizko Legebiltzarrean pro-

testa egitea ere badakite zer den, duela urtebete antolatutako bikizleta-martxan erakutsi zuten moduan.

## "la dena lotuta"

Oraingoan, oinez eroango dituzte haien aldarriak Legebiltzarrera. Martxak Bilbotik, Iruña Okatik, Aguraindik eta Bergararik abiatuko dira. Hortaz, Gipuzkoako zutabeak Debagoiena zeharkatuko du, maiatzaren 22an hasita, astelehena. 12:00etan batuko dira Bergarako San Martin plazan, Arrasaten Musakolako Jubilatuen Etxean bazkaldu eta Eskoriatzara helduko dira 19:30erako. Gaua hango kiroldegian pasa eta hurrengo egunean, 10:00etan, ekingo dio-

**30 LAGUNEN TALDE FINKOEN GORPUZTUKO DUTE MARTXA, ETA KALEETAN GEHIAGO BATUKO ZAIZKIE**

te bigarren etapari; Leintz Gatzagan bazkaldu eta 17:00etarako Landara iristea da asmoa. Eguaztenean, berriz, 18:00etarako espero dute Gamarrara iristea. Hala, biharamunean, maiatzaren 25ean, lau zutabeek bat egingo dute EAEko hiriburuko kaleetan, eta Legebiltzarreraino joango dira elkarrekin.

Joxean Ugarteburu antzuolarra dago martxako antolatzaileen artean. Adierazi duenez, "kontu batzuk solte" dituzte oraindik, baina gehiena "lotuta" dute. 30 laguneko talde finko batek egingo du ibilaldi osoa, eta, momentuz, hogeita daude prest; boluntario izan nahi dutenek asteleheneroko elkarretarazteetan eman dezakete izena.

Baina ikurrinez, ikur morez eta aldarrikapenez osatutako martxa herriguneetara iristean, eragile eta pertsona orok adierazi ahalko die elkartzasuna. Ziur maiatzeko laugarren asteak ilusioz eta esperantzaz indartuko dituela pentsiodunak.



GOIENA

## EAJ, kooperatiben "alboan"

Kooperatibismoari babesa eskaini dio EAJk, Aitor Estebanek, Eider Mendoza ahaldegia nagusiak, eta Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako alkategaiek atzo Garaian egindako ekitaldian. Ibarreko zerrendaburuak, bestalde, Bergarako batzokian elkartu ziren Joseba Egibarrek in arretan, "garapen ekonomikoa eta justizia soziala" aldarrikatzeko.



**COPRECI COPRECI, KOOP. E**

### 2023ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorra deitzen da. Batzarra Aretxabaletako kiroldegian egingo da 2023ko maiatzaren 12an -15:30ean lehen deialdia eta, kasua balitz, bigarrena 16:00etan, egun eta toki berean-, eguneko gai-zerrenda honen arabera:

#### GAI ZERRENDA

1. Akta(j) onartzeari buruzko informea eta akordioa
2. Memoria irakurtzea eta onartzea
  - 2.1. 2022ko Gestioari buruzko akordioa
  - 2.2. 2023ko Gestio Plana onartzea
3. 2022ko Memoria ez-finantzarioa
4. 2022ko Urteko Kontuen azterketa
5. 2022ko Emaitzen banaketa
6. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak
7. Copreci S.Coop.-en Estatutu Sozialen 29. artikulua aldaketa, Batzar Orokorra helbide soziala duen udalerritik kanpo egitearen ingurukoa
8. Copreci S.Coop.-en Estatutu Sozialen 6., 11. eta 44. artikuluen eta Barne Erregelamenduko 32. eta 85. artikuluen aldaketa, Iraupen Mugatuko Bazkidearen ingurukoa
9. Taldeko 3/2016 Emaitzen Banaketarako Arauaren 5. artikulua aldaketa Galerak Egoztearen ingurukoa
10. Osagaien Dibisioa eta Fagor Taldeari buruzko txostenak
11. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak
12. Kanpoko Auditoreak izendatzea
13. Kontseilu Errektorea Berritzea
14. Kontseilu Soziala Berritzea
15. Galderak eta eskaerak

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Aretxabaleta, 2023ko apirilaren 28an

(\*) 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibismo bari 35.7 artikuluan espeziki arretutako deialdiaren inguruko adierazki dela bazkide gortek esku bidea dutela gai-zerrendari lotutako dokumentu gortak sozialitatearen egitasun arretutako, baita, irakurketa, sozialitatearen inbaretean en.





Ikasurte honetako administrazio arloko zuzendaritza-laguntza goi mailako zikloko ikasle taldea Suitzan.



Joanna Perez eta Manar Chabbouba ikasleak Pragan.

# Gero eta ohikoagoa da Lanbide Heziketako zikloak atzerrianosatzea

Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroa aitzindaria da halako programetan, eta gero eta gehiago dira aukera hori egiten duten ikasleak. Zentroa, bestalde, Europa mailako hiru berrikuntza proiektutan ari da lanean

Lan-arloa edozein izanda ere enpresek gaitasun askotariko profesionalak bilatzen dituzte, eta puntako formakuntza jaso izanarekin batera asko baloratzen dituzte harremanetarako erraztasuna, egoera berrietara egokitzeko gaitasuna, edota arazoak ebazteko baliabideak edukitzea. Lanbide Heziketak gero eta aukera zabalagoa eta osatuagoa eskaintzen du, eta alde horretatik, erreferentziatzko ikastetxea da Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroa, berrikuntza-zein nazioartekotze-arloan egiten ari den urratsengatik.

## Europar berrikuntza lantzen

Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroa Europa mailako hiru berrikuntza proiektutan ari da lanean; Digital VET, ADMIC eta LCAMP. Proiektu

horien bidez Frantzia, Belgika, Italia, Herbehereak, Erresuma Batua, Malta, Eslovenia, Suedia, Turkia, Alemania eta Kanada –kasu berezi moduan– herrialdeekin ari da elkarlanean. Fabrikazio aurreratuan aurrerapausoak emateko lantzen ari den LCAMP proiektuari esker, Miguel Altuna LHII Europar Batasuneko bikaintasun ikastetxeen sarean –CoVE– ere badago. Zentroko sei irakasleek dihardute proiektu horretan lanean.

## "GOIZEZ EGITEN DITUT PRAKTIKAK PRAGAKO 3DEMON ENPRESAN; NIRE LANA DISEINATZEA DA"

JOANNA PEREZ, IKASLEA

## Lan praktikak atzerrian

Erasmus+ programak ere gero eta arrakasta handiagoa du Lanbide Heziketako ikasleen artean. "Gaur egun hamabost ikasle ditugu ziklo amaierako praktikak Europako enpresetan egiten. Zikloa erdi mailakoa zein goi mailakoa izan, hiru hilabeteko egonaldiak egiten dira enpresetan, eta hemen inguruan edo atzerrian egin daitezke", azaldu du Miguel Altunako zuzendari Joxu Aranak. "Praktikak beste herrialde eta beste hizkuntza batean egitea oso aberasgarria da, eta bekak ere gero eta gehiago dira. Hurrengo urteetan mugimendu handiagoa egongo dela aurreikusten dugu, bai ikasleek praktikak egiteko, bai ikasle taldeak Europar zehar mugitzea", gaineratu du.



Eleanitz eredu mektronikako goi mailako zikloko hainbat ikasle, Minnesotan.

Joanna Perez (Eskoriatza, 2002) eta Manar Chabbouba (Zumarrraga, 2001) dira adibide. Goi mailako ziklo bana egin dute: Perezek, Fabrikazio Mekanikoko Diseinuan; eta Chabboubak, Administrazio eta Finantza alorrean. Pragan (Txekia) dira biak, ziklo amaierako praktikak egiten. Martxoan hasi eta maiatz amaieran bukatuko dute.

3Demon enpresan dihardu Perezek: "Goizez egiten ditut praktikak, sei bat orduz. Nire

## "HIGIEZINETAN INBERTITZEN DUEN TXEKIAKO AGENTZIA BATEAN ARI NAIZ PRAKTIKAK EGITEN"

MANAR CHABBOUBA, IKASLEA

lana diseinatzea da; 3D inprimagailuetarako programa berria erabiltzen ikasi dut, eta inpresioak ere egiten ditut. Oso esperientzia aberasgarria da".

Chabboubak Capital Trust enpresan dihardu. "Txekiako eta Eslovakiako ondasun higiezinetan inbertitzen duen agentzia bat da. Finantza, marketin eta administrari lanak egiten ditut. Oso gustura nabil".

Esperientzia gomendatzen dute. "Iristen zara beste hizkuntza eta beste kultura batera, eta egokitzeko inbertitzen duzu. Ingelesezt moldatzen ere bai", diote. "Niri beste lagun batek gomendatu zidan eta nik ere animatzen dut jendea", dio Chabboubak.

Maiatzaren 13an Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroa gertutik ezagutzeko aukera egongo da ate irekien saioan.





ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

## Bihar

"Bai! Biharko egingo dut!". Nork ez du esaldi hori erabili edo nork ez dio semeari edo alabari entzun?

Nork ez du Inurriaren eta Txirriaren ipuina irakurri edo entzun?

*Mañana y tarde*-ren itzulpena, *bihar eta berandu*.

Hortxe gaurko gaiaren nondik norakoak.

19-20 urte nituenean, Donostian *ikasten* nenbilenean, pisukide bat eta biok ostegunero ondorio berera iristen ginen: "Eta bihar loreontzi bat buru gainera erortzen bazaigu, zer?". Galdera haren aurrean, erabakia oso erraza zen: kalera irten eta ze giro zegoen ikustera joaten ginen –bai, ama, ikustera bakarrik, baina oso ondo ikustera irteten ginen–.

Beste batzuetan, zoriari uzten genion gure etorkizuna; hau da, txanpon bat botatzen genuen airera, txanponeko alde bat aukeratu eta, horren arabera ere, ze giro zegoen ikustera irteten ginen.

### INOIZ, BOST ALDIZ BOTA GENUEN TXANPONA AIRERA, GUK AUKERATUTAKO ALDEA IRTEN ARTE

Inoiz, bost aldiz bota genuen txanpona airera, guk aukeratutako alde irteten arte.

Haiek bai garaiak haiek. Baina pasa ziren.

Argi dago, eta

denok dakigu, gaur hartutako erabakiek biharko egunean eragina izango dutela. Baina sarri, eta hori nire iritzia da, larregi hausnartu gabeko erabakiak hartzen ditugula uste dut. Munduaren egoera ikustea besterik ez dago, edo, errazago, egunkaria irakurri edo telebistako albisten lehenengo bost minutuak ikustearekin nahiko dugu.

Kontuz *carpe diem*-en interpretazio azkarrekin. Momentua bizi? Bai. Momentua aprobeztatu? Bai. Batek jakin bihar zer gertatuko den? Bai. Mundu honetan ez naiz ni bakarrik bizi? Bai!

Gaur norbanako bakoitzak hartutako erabaki txiki bakoitzak biharko denon eguna arautuko du. Denok daukagu biharko egun *on* bat izateko aukera.

Bihar ez naiz *ni* bakarrik, bihar *denok* gara.

Oh.: gaur, ostirala, poteoa, banoa. Bihar...

larunbata.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Ezaugarriak

ANDONI EGAÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

HTTPS://LABUR.EUS/6XGI1

Nork eman dio jaten?

Ze elikagai izan du?

Eman diotena eman diotela, digestio aski zailekoa gertatu zaio.

ChatGPTri Espainiako erkidego bakoitzeko biztanleen ezaugarriez galdetu diote.

Gainerakoen ezaugarri nagusiez aritzerakoan topikoari heldu dio.

Andaluziarrak, alferrak eta festazaleak.

Kantabriarrak, tristeak eta piperrik gabeak.

Kataluniarrak, elitista samarrak eta bereari bakarrik begiratzen diotenak...

Guri buruz zer zioen jakiteko tentazioa ere izan nuen.

Eta inoiz topo egingo ez genukeen lekuetara eraman nau makinak.

Nafarrak omen dira buruz hertsia eta kanpotarrak nekez onartzen dituztenak.

Dibertitzen ez dakitenak.

Eta xuhurrak, entretenimendu eta dibertsioan diru gutxi xahutzen dutenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak, berriz, erradikalak omen gara ideiatan.

Eta ez omen dugu buruan gure kultura eta hizkuntza beste konturik.

Nire adimen naturalak oso bestelako pertzepzioa du, baina artifizialak hori horrela dela badio, zerbaitengatik izango da.

Nafarrak has daitezke behingoz bestak antolatu eta diru pizarren bat gastatzen.

Eta gu, berriz, inoiz egiten ez ditugun gauza horiek egiten hasi beharko dugu: Tele5 ikusi, *El Diario Vasco* eta *El Correo* irakurri, ETB2 behingoz diruz ongi hauspotu, gaztelaniaz aritu...

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.500 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

## >> Oñati gestio heziketa

### Goi Mailako

#### Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko eta **Berria!** Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika industrialia
- | Automatizazio eta Robotika Industrialia

### Espezializazio

#### ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

### Goi Mailako

#### Heziketa Zikloak

- | Salmenten Kudeaketa
- | Administrazio eta Finantzak

#LanerakoGertu

**INSKRIPZIO-DATAK:**  
**Maiatzak 8tik 26ra**



## Eman izena!

**MGEP:** 664298683 // 664298704

**Oñati gestio heziketa:** 943718009

[mondragon.edu/lanbideheziketa](https://mondragon.edu/lanbideheziketa)





Kulturateko Jokin Zaitegi gelan aurkeztu zuten protokoloa, joan den astean. HASIER LARREA

# Hizkuntza eskubideak bermatuta egon daitezzen

'Euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko Arrasateko protokoloa'-k bidea hasi du, herrian euskararen normalizazioaren eta erabileraren alde egite lanean segitzeko asmoz; sustatzaileek diote atek zabalik dituztela ekimenera batu nahi dutenentzat

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Euskara jasaten ari den "oldarraldi judizialari" aurre egiteko tresna izan nahi du protokoloak. "Euskarak jasaten dituen urraketak geroz eta sarriago gertatzen dira, arlo pribatuan zein publikoan, eta horri aurre egiteko protokolo bat lantzen hasi ginen. AEDko mintegi batetik irten zen ideia eta hainbat eragile batu dira ekimenera", azaldu du Itxaro Artolak, AEDko kideak.

Hasiara batean, bost eragilek osatuko dute talde motorra -eskumako zerrendako lehen bostak-. Halere, zabalik dituzte atek, ekimenera batu nahi duten guztientzat. "Protokoloa ezin dugu mugatu euskalgintza

ra; babes sozial handiagoa behar du. Ahalik eta eragile gehienek aplikatuko dutena izan behar du", azpimarratu du Artolak.

Protokoloaren helburu nagusia da Arrasaten euskararen erabilera bultzatzea, betiere, hizkuntza eskubideen inguruan lan eginda, herritarrek kontzientziatuz. "Urraketa bat gertatuz gero, hori konpontzen saiatzeko baliabideak eskaini gura ditu protokoloak, modu eraikitzailean". Modu horretan, talde motorrak, hainbat irizpideren arabera, baloratuko du urraketa bakoitzari eman beharreko erantzuna zein izango den. "Izan ere, ez da gauza bera urraketa entitate publiko batek egitea

edo herriko denda txiki batek egitea", gaineratu du.

## "Badago lana egiteko"

Joan den astean aurkeztu zuten, Iñigo Urrutia EHUKo Administrazio Zuzenbideko katedraduna gonbidatuta. Hark adierazi zuenez, azken hilabeteetan euskararen aurkako hainbat epai izan dira, eta, "juridikoki eta teknikoki zuzenak" izan arren, "gure araubidearen ahultasuna" agerian uzten dute. "Erabat zurgarria da, eta, hori horrela izanik, urratsak egin beharko litrateke gure bizkarrezur juridikoa indartzeko. Lege berriak behar ditugu gure hizkuntza eskakizunen sistema blindatze-

## 21 eragilek egin dute bat protokoloarekin

Protokoloari atxikimendua eman dioten eragileak:

- AED elkarte.
- Arrasateko EHE.
- Debagoieneko AEK.
- Ekin Emakumeak Elkarte.
- Txatxilipurdi Elkarte.
- Arizmendi Ikastola.
- Arrasateko Askapena.
- Ar. Bilgune Feminista.
- Arrasateko Ernai.
- Arrasate Rugby Taldea.
- Arrasateko Neska Gazteak.
- Arrasateko LAB.
- Emun.
- Loixe zeramika taldea.
- Maritxu Kajoi Komisiñua.
- Mundukide.
- Portaloi Elkarte.
- Santamas Komisiñua.
- Txikitxu-Arrostaitz dantza taldea.
- Udalaxpe Txistulari Elkarte.
- Arrasate Herri Eskola.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

## 'By-pass'-a

Artean ikusteko nago Urkulu xahutu eta herritarrok eta industria paralizatu zituen tutu erraldoiarekin argazkia. Eskerrak esperantzarik badagoen epe luzera lan egingo duten bestelako hautagaiekin:

Behingoz, maketen ordez, kirol-gune sostengarriak bermatzeko.

Batik bat, mugikortasun portaerari itzulua emango diotelako.

Azkar hirigintza taktikoa behar dugulako. Etorriko diren 50 graduko egunetan, guztiok ados egongo garelako asfaltoak eta automobilek berotasuna areagotzen dutela. Galipotaren lekuan oinezko eta gurpilentzako espazio berdeek irabazteko.

Arrasate, bi ibairen artean dagoen herria izanik, errekek bistartzeko, leku atseginak bihurtuz, gerizpean eta uraren freskuran paseatzeko.

Herria gozatzeko leku bihurtuz, dendak sostengatuz, trabak jarri beharrean.

Atari guztietan berriztagarrien sormenerako bizilagunei laguntza emateko.

Eta, irudiari erreparatuz, azkenaldian eraiki eta hurrengo mendean oraindik zutik iraungo duten eraikinen estetika Arrasatek merezi ez duelako.

Eskerrak udal hautaketa ezberdinerako aukera baden.



ZURE AHOA  
DENA DA  
VITALDENT  
ARRASATE

Otalora lizentziaduna kalea 1  
943 06 03 22

ORAIN  
-20%  
ORTODONTZIAN ETA  
HORTZEN ESTETIKAN\*

\*Biloko sustapena 2023ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era, batak batak. Oinarritutako tratamenduetan berrikuntza osorik aplikatu daiteke, 250 eurotik gorako tratamenduetarako. Ezin diren beste deskontu eta promozio baliabideak. Ez da bateragarria Vitaldentekin diruz lagundutako interesak dituzten finantziaketa motekin, eta inon ere tratamenduetan ezin diren beste tratamenduetan berrikuntza zure Vitaldent klinikari. Medikuntza arloko beste tratamenduetan. Sustapenari atxikirik klinikak kontsultatu [www.vitaldent.com](http://www.vitaldent.com) helbidean. RPS 255 19 20 C25.1042



# Arrasate Blues-en aperitiboa asteburuan

Uztailaren 13tik 16era bitartean egingo du Ibai-arte bosgarren Arrasate Blues jaialdia, Arrasateko Udalaren laguntzarekin; motorrak berotzeko, bi kontzertu antolatu dituzte gaurko eta biharko: Hirukote eta Iker Martinez eta Zaldi Herrenak

## Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

"Kaleak bizirik" nahi ditu Arrasateko merkatari elkarteak, eta helburu horrekin antolatzen ditu askotariko ekitaldiak. Uztaillean egingo duten jaialdirako azken ordukoak lotzen ari direla azaldu dute antolatzaileek, baina Arrasate Blues jaialdiaren aterkipean aurretik badutela zer eskaini gaineratuta: "Txomin Duhaldek, Arnaud Labastierrek eta Eric Lecordierrek osatzen duten Hirukote taldea gonbidatu dugu gaurko; Arbolapetan izango dira, 19:00etan hasita, Dmitry Baeovsky saxofoi-joleak lagunduta".

## Oñatiko musikariak bihar

Latzen, Potemkin, Amonal eta bestelako taldeetan ibili ondoren, 2016an ekin zion Iker Martinez oñatiarrak bakarkako proiektuari. Gaur egun, boskote formatuan jarduten du, Joxeba Aranburu (gitarra-jolea), Iñigo

Biain (baxu-jolea), Jimi Irizar (bateria-jolea) eta Iñigo Ugarte (gitarra-jolea) lagun dituela. *Itzalen mundua* (2017) eta *Lurralde berriak* (2019) bakarkako lanak argitaratuta, *Hegaldiak* sortu zuen 2021ean, azken hori boskote moduan sinatuta, eta urtarrilean Garate estudioan grabatu zuten oraindik argitaratu bako laugarren lana. Herriko Plazan dagoen Kajoi tabernako terrazan eskainiko dituzte kantu berriak eta zaharragoak bihar, zapatua, 13:00etan hasita, eta disko berriaren parte hartu duen Oñatiko Mila Modu taldeko perkusio-jole Oskar Arlanzon izango dute taularen gainean lagun.

## Maiatzaren 11n, blues doinuak

Apirilaren 23an Amaia antzokian izan zen Danny Del Toro blues musikaria gonbidatu dute datorren eguenerako; Kajoi tabernako terrazan izango da, Fede Aguado lagun, 19:00etan hasita.

## Eguenean banatuko ditu AEDk literatura lehiaketako sariak

Maiatzaren 11n, 18:30ean, Kulturategi areto nagusian egingo duten ekitaldian banatuko ditu Arrasateko euskara elkarteak 36. Arrasate Literatura Lehiaketako sariak, eta Eneko Barberena idazlea gonbidatu dute, haren idazle bizipenak parte-hartzaileekin parteka ditzan. Ekitaldia guztiontzako zabalik dago.

## Parte-hartze "handia"

Antolatzaileak "pozik" daude "inoiz baino lan gehiago" jaso dituztelako -388, guztira-. Narrazioa, ilustrazioa eta Bertso-papera sailetan aritu dira gazte-txoenak; eta Mikro-ipuina, Poesia eta Komikia alorretan DBHko eta batxilergoko mailetan.

## Rock-and-roll doinuak entzungai gaur gaztetxean

Aramaioko The Clayton, Durangoko Nevadah eta Oiongo EH Mertxe taldeak igoko dira taularen gainera, 22:00etan hasita. 21:30ean zabalduko dituzte ateak eta bost eurotan izango dira sarrerak eskuragarri.

## Koiltur Ostegunak

Azken orduko arazo baten eraginez, Erromako Gli Ultimi laukoteak ezin izan zuen atzo kontzerturik eskaini. Birkite laukotea izango da datorren egunean. Bakarkako formatuan abiatu zuen Birkite Alonso gasteiztarrak ibilbidea, 2017an, eta laukote formatuan ari da gaur egun, Iargi Agirrerekin, Mikel Palenzuelarekin eta Patxi Agirrerekin.



Oñatiko Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldea. IMANOL SORIANO

Hipermerkatuak





Maiatzak  
**5**  
ostirala

Maiatzak  
**6**  
larunbata

# 10\* €

## oparituko dizkizugu erregaian

hemen truka ditzazun:



10 € itzuliko dizkizugu, 5 €-ko bi deskontu-bartelatan, EROSKI Hipermerkatuegindako 50 €-tik gorako erosketa bat egiteagatik.

**Txartelak EROSKI gasolindegietan trukatu ahaliko dituzu** (norberak ordaintzeko erreletoan izan ezik). 2023ko maiatzaren 5etik 20ra arte, baldin eta 25 € baino gehiago gastatzen badituzu depositua betetzear. Gehienez 2 txartel meta dastetse tiket berean, baldin eta eskakizunen batura betetzen bada. Kontsultatu baldintzak zure EROSKI Hipermerkatuan.

Saita [supermercado.eroski.es/eu](http://supermercado.eroski.es/eu) webgunean ere. (Kontsultatu online supermerkatuko baldintza espezifikoak)



**ARRASATE**

Musakola z/g ARRASATE,  
Tel.: 943 71 10 30





EAJko hainbat ordezkari, adinekoei haien proposamena azaltzen. EAJ

## Adinekoen beharrei erantzuteko bulegoak irekitzea gura du EAJk

Jeltzaleen programan lehenetsitako puntuetako bat da adineko pertsonak entzun eta haiei arreta eskaintzea

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE 2023-2027ko agintaldira begira, jeltzaleen programan lehenetsitako puntuetako bat adineko pertsonak entzun eta haiei arreta eskaintzea izango da. Izan ere, Arrasaten, Udalmap-en datuen arabera, biztanleriaren ia %25ek 65 urte baino gehiago ditu. Halaber, %12k 75 urte edo gehiago ditu, eta zifra hori Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik dago, %10,6koa baita. Maria Ubarretxena alkategaiak nabarmendu duenez, adineko pertsonak arrasatearren laurdena osatzen dute, eta, horri erantzunez, "haiengandik hurbil" egon nahi dutela esan du. "Gainera, Arrasaten adinekoen talde bat dugu, oso aktiboa dena: Arrasateko Nagusien Kontseilua, zahar-etxeetako kide eta arduradunak, zinegotziak, auzoetako alkatezatzak dituzten pertsonak eta abar. Ezagutza, esperientzia eta ilusioa dute eta oraindik ere gure herriaren garapenari ekarpen handia egin diezaioketen pertsonak dira".

### Indarrak batzeko deia

Modu berean, Ubarretxena azaldu du jeltzaleen lehentasunetako bat izango dela Arrasateko adinekoek dituzten beharrei erantzutea eta, horrela, azken urteetan Udaleko hainbat arlotatik egin den bideari jarraipena emango diotela, hala nola gizarte ongizatean eta kultura arloan. Bestalde, zehaztu du adinekoen ongizatea eta arreta "funtsezkoak" direla. "Horrega-

tik entzun nahi ditugu, zer pentsatzen duten eta zer nahi duten inporta zaigu. EAJ-PNVtik indarrak batu nahi ditugu kolektibo horrekin, pozik eta gustura sentituko diren Arrasate bat elkarrekin diseinatzeko".

### Bi proposamen dituzte

Bide horretan, jeltzaleek proposatzen dutena da erdigunean bulego bat irekitzea; eta bulego ibiltari bat, berriz, auzoetan. "Azken horietan auzoetako alkateen lokalak baliatuko ditugu zerbitzua eskaintzeko, eta arreta egunak ezarriko dira horretarako", dio Ubarretxena.

Bestalde, Mesedeetako ikastetxea izandako eraikinean etxebizitza komunitarioak egiteko proiektua ere sartu dute jeltzaleek programan. "Udaletik azken bi urteetan babesten ari garen proiektu hori estrategikoa da herritarren ongizatea bermatzeko, eta EAJ-PNVrentzat hurrengo legegintzaldirako gure apustuetako bat izango da".

Proiektu pilotua izango litzaiteke, azken 20 urteetan erabili ez den eraikin batean egingo luketena. "Belaunaldiartekotasuna sustatzeaz gain, ekonomia zirkularra indartzen da, eraikin bat berrerabili eta birgaituz".

## ADINEKOENGANDIK "HURBIL" EGON GURA DUTE JELTZALEEK, HAIK ENTZUTEA FUNTSEZKOTZAT JOZ



Asier Murguzur, Maider Morras eta Fernando Okina, Musakola kiroldegian. EH BILDU

## "Kirola herri osora zabaltzeko" proiektua aurkeztu du EH Bilduk

Kirol Herria proiektuak hiru kirol instalazio nagusi ditu, ibilbide naturalekin eta beste hainbat kirol espaziorekin

### E.A.B. ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk Kirol Herria proiektua aurkeztu zuen atzo, eguna, *Kiroldegitik, kirolaren herrira* lelopean. Monterronen hasi eta Musakolako kiroldegian amaitutako bisita batekin egin zuten aurkezpena, bidean proiektuari lotutako hainbat proposamen azalduz.

Kirola herri osoan zehar zabaltu eta hedatzeko helburua du Kirol Herria proiektuak. "Hiru kirol instalazio nagusiez gain, ibilbide naturalak eta herriko hainbat kirol espazio egokitzeko beharra jasotzen du proposamenak, guztiak kirola egunerokotasunera eramateko proposamen gisa", azaldu dute koaliziotik.

Horretarako, "ezinbesteko" ikusten dute herria kirola egiteko beharretara egokitzeko, eta ekuazio horren parte kokatu dute bizikletaren erabilera ere. Hala, bizikletaren erabilera segurua bermatzeko, kirol instalazioak lotuko dituen sarea marraztea eta aparkalekuak zein gordeleku municipalak jartzea jasoko dute programan.

Halaber, EH Bilduko ordezkarien esanetan, auzoek ere "paper garrantzitsua" izango dute pertsona nagusiei gertuko kirol eskaintza emateko. "Auzoetako diziplina anitzeko espazioak hainbat kirol egitasmotarako erabiliko dira gertutik gertura, adindunek ere kirola egiteko".

### Hiru kiroldegi

Musakolako kiroldegi berria egitea "betebehar" bat dela adie-

razi dute. "Urte asko daramatza egoera txarrean, eta azken 8 urteetan ez da aurrerapausorik eman hura berritzeko. Kiroldegi funtzionala eta zentzuduna defendatzen dugu, epe ertainera eraiki ahal izango dena, eta herria zorpetze jasanezin batera eramango eramango ez duena".

Era berean, Uarkapeko aldagelak berritzea, gela multifuntzionalak egokitzeko eta hutsik dauden espazioei bizitza ematea ere jasotzen du proiektuak, eta, Iturriperi dagokionez, kirol espazioa eraberritzea, "lehentasunak markatuz eta auzokideei gimnasio zerbitzua eskainiz".

### Balio naturala ezagutarazi

Arrasateren espazio naturalari balioa emateko, mendi ibilbideak ezagutzera eman eta BTT bideak arautu eta sustatuko dituen udal ordenantza bat egitea ere jasotzen dute egitasmoan.

### Ondare historikoa zaintzeko

Bestalde, Arrasateko ondare historikoa zaindu eta babesteko hainbat proposamen egin ditu koalizioak; besteak beste, inbentario bat egitea, Portalioia egoera onean mantentzeko lanak egitea eta Monterron jauregia herritarren erabilerrarako jartzea.

## "EZINBESTEKO" IKUSTEN DUTE HERRIA KIROLA EGITEKO BEHARRETARA EGOKITZEA

## Avanza enpresarekin duen kontratua eten egingo du Udalak

Eguazten ilunkeran su hartu zuen herribus batek, eta eguenean "urgentziaz" bildu ziren Udal Gobernu kontratazio-teknikariek eta zerbitzu juridikoeekin.

"Avanza ez da ari zerbitzu ona eskaintzen. Dagoeneko zortzi espediente ditugu irekita, isunekin, eta atzo gertatutakoa ezin da onartu, oso larria da. Oraindik aztertzen ari gara, baina saiatuko gara kontratua eteten, kontratuan jasotakoa ez bete-tzeagatik", adierazi zuen Maria Ubarretxena alkateak.

Prozedura juridikoa "ondo" aztertzen ari direla gaineratu zuen, "Avanzak Udala epaitegietara eramateko aukera hor dagoelako". Hori dela eta, erabakiak ondo justifikatuta egon beharko duela azpimarratu zuen. Halaber, 157.567 euroko bermea konfiskatzen saiatuko direla esan zuen, eta kalte-ordainak eskatuko dituztela. Gobernu Cuadrabus enpresarekin harremanetan dago, "herritarrek zerbitzu barik ez uzteko".

## Film proiektzioak eta tailerra, Emakume Txokoaren eskutik

Martitzenean, Zinegoak jaialdiaren baitako film proiektzioa egingo dute, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian. Bestetik, *Betaurreko binarioak apurtzen, aniztasunaz jabetzen* tailerra izango da hilaren 13an, Emakume Txokoan bertan, Histeria taldeko Udane Herrosillaren eskutik. Aurrez izena eman behar da, Emakume Txokoan.

## Santa Barbarako eta Villa Amparoko ur-parkeak, zabalik

Hilabete lehenago zabaldu dituzte aurtan, "iaz maiatzean izan ziren beroaldien ondorioz". Modu horretan, irail amaierara arte, 10:00etatik 20:00etara egongo dira erabilgarri bi ur-parkeak, lanegunetan, asteburuetan zein jaiegunetan. Udaletik azaldu dutenez, iaz 110 pertsona baino gehiago jaso zituzten egunero bi ur-parkeak.





2019ko edizioko irudi bat. IMANOL SORIANO

# Senegalera bidaiatuko dute literaturaren bidez

Aramaixo Herri Eskolak antolatuta, 'Ir a kurrin kurrin' saioa egingo dute gaur eskolako patioan. Irakurzaletasuna sustatu eta literaturaren bitartez elkarbizitza bultzatzea izango dira helburu nagusiak. Lur Gallastegiren 'Uda bat Senegalen' irakurriko dute

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Urtero egiten den ekimena da, baita eskolako komunitateak gehien maite duenarikoa ere. Irakurzaletasuna eta elkarbizitza sustatzea eta bultzatzea dira *Ir a kurrin kurrin* ekimenaren helburu nagusiak. Bada, gaur elkartuko dira berriro ere liburuaren eta mahaiaren bueltan, hamalagarren aldiz: eskolako patioan dute hitzordua, 19:00etan.

Helburu nagusiez harago, ekimenak baditu beste helburu batzuk ere; besteak beste, ondo pasatzea. "Liburu polit bat irakurri, irakurritakoari buruz solasaldia egin eta, noski, afaria eta jaia". Horrela adierazi dute eskolako arduradunek zer den *Ir a kurrin kurrin*.

## Liburuaren interpretazioa

Gaurko ekitaldian parte hartzeko liburua irakurrita izatea edo, gutxienez, pasarte bat irakurtzea eskatu dute. Izan ere, solasaldia

**LIBURUKO PASARTE BAT AUKERATU BEHAR DA SOLASALDIAN BESTEekin PARTEKATZEKO**

egin dute *Uda bat Senegalen* liburua oinarri hartuta.

Irakurketarekin gozatu ondoren, partaide guztien artean liburuaren esanahia eraikitzea izango da xedea; horretarako, argudiatzen ikastea, balio positiboak lantzea eta elkarrekin une gozoak bizitzea ezinbestekoa izango da. Antolatzaileek nabarmendu dute interpretazio guztiak balekoak direla: "Irakurritakoa abiapuntu, solasaldietan partaideek gogoetak, zalantzak, interesak, eztabaidak... azaleratu ditzakete. Gogoeta eta interpretazio guztiak

balekoak dira eta testuaren zentzua aberasten dute".

## Eraman beharrekoa

Gaur izango dute hitzordua, 19:00etan, eskolako aterpean. Jaialdi senegaldarra izango dute, eta, horretarako, hainbat material eramane beharko dute parte-hartzaileek: pareo edo zapi koloretsu bat, afarirako katilu bat eta irakurraldirako eta afa-losterako kuxin bat. Horrez gain, ondo pasatzeko gogoeta eta afaritarako prestatutakoa jateko goseak joatea eskatu dute antolatzaileek.

## 'Uda bat Senegalen'

Lur Gallastegik (Bilbo, 1983) idatzi eta Sussana Martinek (Bartzelona, 1976) ilustratu du *Uda bat Senegalen* liburua. Garazi eta Izaro ahizpen istorioak kontatzen dute; uda bat pasa beharko dute Senegalen, euren aitak ospitale batean laguntzen duen bitartean, erizain. Sorpresa atsegin eta hunkigarriak baterik egongo da Afrikako egonaldia.



Lur Gallastegiren liburuaren azala.

## Talde soziokulturalak diruz laguntzeko oinarriak, onartuta

Aramaio udalbatzak ohiko osoko bilkura egin zuen apirilaren 27an. Besteak beste, onartu zituzten talde soziokulturalak diruz laguntzeko 2023ko ekitaldiko deialdiaren oinarriak. 2023ko aurrekontuetan iaz baino 3.000 euro gehiago izango du partida horrek.

Bestalde, Aramaio udalbatzak elkartasuna adierazi zion

Aitor Montes medikuari. Historia medikoa euskaraz idazteko eta medikuek euskaraz lan egiteko eskubidearen aldeko adierazpena onartu zuen udalbatzak, aho batez -EH Bilduren zazpi boto-. Duela bi aste, medikuak berak salaketa jarri zuen historia medikoetan euskara erabiltzeagatik jasotako hainbat mezurengatik. Izan ere, Debagoieneko Ospitaleko anestesista batek mezu euskarafobo batzuk idatzi zituen Aramaioko pazienten baten historia klinikoan.

## Saharako umeak hartzeko programan izena eman daiteke

Afanis elkarteak, Gasteizko Udalarekin eta Aldundiarekin elkarlanean, *Oporrak bakean* programa dauka. Helburua da errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren haur sahararrek udako bi hilabete Arabako familia batean pasatzea.

Programan parte hartzeko aukera zabalik dago; izena eman daiteke maiatzaren 10era arte.

Interesa duenak dei dezala 650 13 40 11 telefono-zenbakira edo idatz dezala mezua [afanissalava@gmail.com](mailto:afanissalava@gmail.com) helbidera.

Programari esker, bestelako errealitate bat ezagutzeko aukera dute umeek; gainera, osasun azterketak egin eta elikadura orekatua izaten dute. Bestalde, euskal gizartea Mendebaldeko Sahararen egoeraren gainean sentsibilizatzea ere bada helburua; horrela, bi kulturen arteko hurbilpena sustatzeko eta bultzatzeko.

## OHARRAK

### Erretiratuen tailerra: argazkietatik bideoa

Maiatzaren 10ean eta 11n, *Argazkietatik bideoak sortzen* tailerra egingo dute erretiratuek, 17:00etan. Gaztelaraz izango da.

### 'Elkartegiak +55' hitzaldia

Aldundiak antolatuta, *Elkartegiak +55* jardunaldien barruan, *Gure inguruko txoriak* hitzaldia egingo du Andoni Llosak maiatzaren 16an, 18:00etan.

### Gibel garbiketari buruzko saioa

Lorabari Astearen barruan, gibel garbiketari buruzko saioa egingo dute maiatzaren 10ean, Sastiñan. Garbiñe Larreak gidatuko du saioa. Izena emateko deitu: 665 70 21 92.

## Herri batzarra egingo du EH Bilduk martitzenean

Aramaio EH Bilduk herri batzar irekia egingo du martitzenean, 18:30ean, Sastiñan. Hurrengo lau urteetarako herriarrek dituzten ekarpenak jaso gura ditu koalizioak, maiatzeko udal hauteskundeetako programa osatzeko. Horrez gain, domekan, hilaren 14an, talde argazkia egiteko elkartuko dira, 13:00etan.

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuak, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**





Juan Tomas Zabala, Juan Cruz Diez, Migel Elortza eta Ramiro Gomez zuzendaritzako kideak azalpenak ematen. MIRARI ALTUBE

## Basotxoko zuzendaritza, beste urtebetez lanean

Erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordearen erabakia izan da komentuko egoitza berria ireki arte jarraitzea eta ahal diren ekitaldiak antolatzea; gainera, Gurea tabernaren gastuekin laguntzeko Udalak onartu egin du dirulaguntza igotzea

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen egoitzako zuzendaritza batzordeak azken urteko gorabeheren berri eman zien bazkideei batzar orokorra eginda apirilaren 24an, eta aurrera begirako asmoak iragarri zituzten. Batzordeko kideen artean aldaketarik ez egitea izan zen erabakietako bat. Kide batek, Pedro Etxebarriak, utzi egingo du hori, osasun kontuengatik, baina gainerako bederatziek hartutako ardurei eutsi egingo diete. "Urte gogorra izan da egoitza dela-eta, baina hasitakoari bukaera eman gura diogu; horregatik jarraituko dugu. Espero dut datorren udaberrian eraikin berrian egitea batzarra; itxaropena daukat", zioen Migel Elortza presidentek.

Urtea bukatu arte Gurean emango die taberna zerbitzua, eta horren gastuei aurre egiteko 32.000 euroko dirulaguntza bideratu zuen Udalak. "Uda sasoi mugimendu handiagoa egongo dela jakinik, alkateari esan nion

justu samar ibiliko ginela laguntza horrekin", azaldu zuen presidentek. Hala, joan den egunean egindako osoko bilkuran, laguntza hori 40.000 eurora igotzea onartu zuen udalbatzak. Bazkidetza-kuotak, ostera, ez du goerarik izango, eta 12 euro da urtea. Gaur egun, 885 bazkide dira eta merezi duela izateak zioen Elortzak: "Tabernan deskontuak ditugu, baita antolatzen ditugun bidaietan eta jardueretan ere".

**Aretxabaleta Lagunkoia**

Aretxabaleta Lagunkoia taldearen sortzailea izan da zuzendaritza batzordeari agur esan dion Etxebarria eta hamar urte pasa egin ditu han. "Lan handia egin

**JUAN TOMAS ZABALAK HARTU DU ARETXABALETA LAGUNKOIA TALDEAREN GIDARITZA**

du eta eskertzekoa da; baina esku onetan utzi du taldea". Haren lekukoa Juan Tomas Zabala hartu du eta orain arte egindakoari jarraipena emango dio. Bestetik, Agijupens Gipuzkoako federazioan ordezkaritza lanak egingo dituen eskualdeko kide baten bila dabiltzala iragarri zieten bazkideei: "Arrasateko Jose Riviere da orain lehendakaria, eta, uzteko asmoa duenez, hura ordezkatu beharko dugu".

**Basotxoren bueltako jarduerak**

Bazkideek eskatu zieten Basotxoren bueltan egiten diren jardueren berri emateko. Egun, sei daude: memoria tailerra, kantuak, aretoko dantzak, euskal dantzak, pintura eta euskaltegia. Horiez gain, podologia zerbitzua ere badago, eta ile-apaindegira joateko laguntzak. "Batzuk debalde dira, eta ordaindu beharrekoetan erdia bere gain hartzen du elkarrekin; hortaz, parte hartzea gonbidatzen ditugu bazkideak, oso giro polita dute-eta guztietan".



Kalejiraren berri ematen hainbat aretxabaletar. MIKEL ZUMALDE

## Kalejira, presoei lege arruntak aplika diezaieten eskatzeko

Aretxabaletako Sarek deitu du, domekarako (12:30); Portasoletik abiatu eta Herriko Plazan bukatuko dute

**M.A. ARETXABALETA**

Euskal presoei aplikatzen zaizkien salbuespen legeak eta etxeratze bidean jartzen zaizkien oztopoak bertan behera uztea eskatuko du Aretxabaletako Sarek. "Sakabanaketaren bukararekin izugarritzko zama kendu dugu gainera; bereziki, senideek eta lagunek. Baina, zoritxarrez, presoei oraindik salbuespen legediak aplikatzen jarraitzen dute. Guk lege arruntak aplikatzea eskatzen dugu, besterik ez", adierazi du Txarli Garcia kideak.

Sarekoen esanetan, 39 preso daude hirugarren graduan eta

110ek egon beharko lukete. Horien artean dago Gari Garcia Arrieta aretxabaletarra: "Orain dela bi urte eta erdi ekarri zuten Zaballara. Eta baldintza guztiak beteta izan arren, ez du inolako progresiorik izan haren egoera juridikoak".

**Portasoldik plazara**

Eskaera horiek zabaltzeko, kalejira deitu dute domekarako, maiatzaren 7rako; 12:30an abiatuko da, Portasolgo autobus geltokitik, eta Herriko Plazan bukatu. Herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.



NIRE USTEZ

MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA

## Nor baino nor euskaldunago

Badira azkenaldian euskararen eta *euskalduntasun* kontzeptuaren inguruko eztabaidak zein iritzi anitzak, han eta hemen entzuten direnak.

Lagun artean elkartu ginen azkenengo aldia, euskararen inguruko eztabaida interesgarria piztu zen, gutako batek bota zituen hitz batzuen harira. Hauek izan ziren haren hitzak: "Euskalduna euskaraz mintzatzen dena da". Hortaz, hizkuntzaren erabilerara soilik mugatzen al da euskalduna izatea? Ez ote daude beste faktore eta eragile batzuk? Kultura, jatorria edota identitatea bera?

Aurrez aipatutakoa etimologikoki egokia izan arren, gizartea aldatzen doan heinean hitzak ere eraldatu daitezke. Egungo euskalduntasuna hizkuntzatik edo hizkuntzaren erabileratik harantzago doa.

Bestela esanda, pertsona batek euskal kultura ukatzen duen arren, euskaraz egiten badu, euskalduna da? Eta erdara hutsean aritzen den orok, euskal kultura kontsumitzen eta sustatzen badu, euskal nortasuna du?



# Argazkilaritza gertutik ezagutzeko aukera

Gustavo Bravo argazkilaria madrildarraren 'Beltzuria' izeneko lanaren bueltako argazkiak izango dira maiatzean Arkupen, eta, hori irekitzeko, 'Fotografía de calle y paseo consciente' hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, Zاراia aretoan

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Gasteizen bizi den Gustavo Bravo kazetari eta argazkilaria lanekin beteko da Arkupen erakusketa-aretoa maiatzean. *Beltzuria* izeneko proiektuaren baitako hamasei lan izango dira han ikusgai. Erretratuen bidez hausnarketa eragin gura du artistak, gorputzek bide publikoan hartzen duten plastikotasunaren eta hizkuntzaren gainean. Ixiar Rozasen *Beltzuria* liburuko testuetan oinarrituta dago, eta 2021etik 2022ra bitartean garatu zuen, Bilboko kale nagusietan.

Erakusketa zabaltzeko, *Fotografía de calle y paseo consciente* hitzaldia egingo du Bravok gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita. Begirada heztearen eta garatzearen garrantziaren gainean jardungo du FotoGasteiz argazki-eskolako zuzendariak, balioan jarriz argazkia ateratzeko ekintza bera.

## Antzezanak eta dantza

Antzerkiak ere izango du lekua maiatzean, Arkupen. Benetan Be antzerki taldeak *Batetik bestera* lana aurkeztuko du domekan (17:00etan). Migrazioa izango dute hizpide, umorearen bidez, eta, aldi berean, ingurumenaren ezagutza, eta babesa sustatuko ditu lanak.

Helduek, oster, Kaleka antzerki elkartearen *Todo el tiempo del mundo* antzezlana izango dute maiatzaren 12an, 20:00etan; oroimenaren eta kontakizunen bueltan jardungo dute.

Hilabetea bukatzeko, maiatzaren 31n, Zuriñe Benaventek eta Ignacio Monterrubioek osatzen duten Altraste konpainiak *Bolero work in progress* dantza ikuskizunarekin girotuko du Mitarte kalea, 19:00etan.

## 'Garaiko ipuinak' umeendako

Udal liburutegiak maiatzerako ere antolatuko du ipuin saioa: Ba-



Gustavo Bravo argazkilaria. JEOSM

patean Zirko taldeak *Garaiko ipuinak* ikuskizuna eskainiko die 4 eta 7 urte arteko neska-mutikoei maiatzaren 24an, eguaztena, 18:00etan. Izena emateko epea astelehenean zabalduko dute, hilaren 8an; liburutegian bertan.

## Musika ikasleen emanaldiak

Leizarra musika eskolako kideek bi emanaldi egingo dituzte; maiatzaren 23an trikiti ikasleen saioa izango da eta hilaren 31n, perkusio-joleena. Biak izango dira 18:00etan.

## Loramendiren sari banaketa

Loramendi elkarteak antolatutako literatura lehiaketaren sariak banatuko dituzte maiatzaren 11n; udaletxe zaharrean izango da ekitaldia, 18:00etan hasita.

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen lanik onenak sarituko dituzte.

## Maiatzeko beste ekitaldi batzuk

### Maiatzak 13

- **17:30** II. Artzain Txakurren Txapelketa; Aozaratz auzoan.

### Maiatzak 14

- **11:00** Ojala Zelaiko krosa; Urkulun. Izen-ematea [www.herrikrossa.eus](http://www.herrikrossa.eus) webgunean eta kiroldegian –aurrez, 8 euro– eta irteera lekuan –15 euro–. Aurretik, umeen lasterketak.
- **12:45** Ojala Zelai Eguna; Aozaratz auzoan: herri kirol jokoak, sagardo festa, dantza saioa...

### Maiatzak 27

- **12:30** Txakolin Eguna; Mitarte kalean.

### Maiatzak 28

- **10:00** Haur Dantzarien Eguna; kaleetan.



EH Bilduren zerrendako kideak, Gari Iturbe alkategaia buru dela. MIRARI ALTUBE

## Zazpi lan-ildo dituen "proiektu sendoa" aurkeztu du EH Bilduk

Espazioak egokitzea, herriko bizitza sustatzea eta zerbitzuak hobetzea dira lan-ildoetako batzuk

**M.A.** ARETXABAETA

EH Bilduk ardatz nagusien berri eman du, "herritarren behar eta nahietan oinarritutako proiektu sendoa". Zazpi multzo zehaztu dituzte. Batetik, "espazio biziak" egokitzea dago, eta horien artean hainbat aipatu dituzte: sorkuntzarako espazioaren egokitzapena; gune estaliak; emakumeen\* ahalduzko espazio bat; pilotalekua egokitzea; eta gazteen-tzako gune bat.

Bestetik, herriko bizitza eta eragileen elkarlana bultzatzea hartu dute ardatz, eta "agenda

bateratu baten beharra" agerian utzi. Aretxabaeta "pertsona guztien herria" izan dadin haien beharretan jarri gura izan dute arreta, eta garatzeko artean dituzte zahartzaro aktiboa, eguneko zentrorako zaintza eredu eta etorri berrientzat harrera.

Funtsezkoak diren zerbitzuak hobetzea ere zehaztu dute, baita merkataritza, nekazaritza zein enpresak laguntzea ere. Herriko kaleen mantentze-zerbitzua hobetu gura dute. Eta etxebizitzaren gaiari ere heldu gura diote, alokairua eta tutelatutako sustatuta.

## Udaleku irekietan izena emateko epea zabaltzean da

Aurtengo udaleku irekiak uztailearen 3tik 21era bitartean izango dira eta 2011 eta 2019 urteen artean jaiotako umeek parte hartu ahal izango dute; 320 plaza eskainiko dira. Udalak 86.272 euroko partida bideratu du programa horretara, eta Loramendi elkarte arduratuko da kudeaketaz. Udalekuen ordutegia izango da 09:00etatik 13:00etara astelehen,

martitzen, eguazten eta egubakoitzetan eta 09:00etatik 17:00etara eguenetan. Izena emateko epea maiatzaren 8tik 19ra bitartean egongo da zabalik, eta online bete beharko da eskaera orria –[aretxabaeta.eus](http://aretxabaeta.eus) webgunean–. Ume bakoitzeko bat formulario bat. Prezioa 85 euro da.

Bestetik, udalekuetako begirale izan gura dutenek curriculumak maiatzaren 10tik 17ra arte bidali beharko dituzte, formulario bat beteta –[aretxabaeta.eus](http://aretxabaeta.eus)–.

## Gonbidatuekin ospatuko du Udaberri Jaia Arizmendik bihar

Arizmendi ikastolako kideek Ametzta eta Tafallako ikastolako lagunekin ospatuko dute aurten Udaberri Jaia. Egunari ekingo diote ibilbide magikoa eginda, 11:00etan. Ekitaldi nagusia eguerdian izango da, Herriko Plazan, eta gero, elkarrekin bazkalduko dute. Arratsaldean, txokolata hartu Argitxorekin (17:30ean) eta batukadarekin agurtuko dute jaia.

## Odola eman dezakete herritarrek datozen hiru martitzenetan

Odol-ateratzeak egiten dituen autobusa etorriko da Aretxabaletara datozen hiru martitzenetan: 9an, 16an eta 23an. Arratsaldean 16:45etik 20:00etara bitartean izango da hori, Durana kalean. Odol-erreserbak oso baxuak direla adierazi dute odol-emaleen elkartetik, eta herritarrek animatu dituzte bertaratzera: "Benetan behar handia dago eta".





Uxarretik Atxorrotzeko tontorrera bidea garbituta –apirilean ateratako irudia–, urrunean ermita dagoela. FELIX BELTRAN DE HEREDIA

## Atxorrotxera, maiatzeko lehen domekak aginduta

Maiatzeko lehenengo domekan ospatzen da Eskoriatzako mendiaren eguna: Atxorrotx Eguna. Aurten ere ez du hutsik egingo, eta, egitarauan berritasun handi barik, 738 metroko altuera duen tontorrera igoko dira herritarrek goizean zehar

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Domeka honetan, eguna hasteko diana izango da, 09:00etan, herri-gunean, txistulariekin. 11:00etan, berriz, meza, Gurutze Santuaren ermitan; hau da, Atxorrotzeko ermitan. Kanpai hotsik ere ez da faltako goiz osoan; ohiturak dioen moduan, hango kanpaiak joz gero, ekaitzak uxatu egiten baitira. Horrekin batera, taberna ere jarriko dute han, eta, mokadutxo bat hartu eta zerbait edateaz batera, Atxorrotzeko kobazuloan alde bate-tik bestera pasatzeko tartea hartuko dute, seguruenik, txiki-ek. Arratsaldean, berriz, 18:00etan, Fernando Eskoriatza plazan Gauargi taldearekin erromeria izango da.

### Tabernan aldaketa

Azken hogeit urteetan jarri dute Atxorrotx gobernuz kanpoko erakundeko kideek taberna Atxorrotx Egunean. Hasierako urteetan Afrikako proiektuetara bideratu zuten dirua eta azken

urteetan, berriz, irabazitakoa Caritasera bideratu dute. Boluntario moduan urteak aritu ostean erreleboa eskatu dute gobernuz kanpoko erakundeko kideek, eta, horrenbestez, deialdia egin zuen Eskoriatzako Udalak. "Deialdia egin genuen Eskoriatzako elkartearen artean, eta animatu direnak San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako bizilagunen elkarteak izan dira. Hori horrela, Atxorrotx Egunean tabernan jasotzen duten dirua elkartera bideratuko dute, ekintzak antolatuz", adierazi dute Eskoriatzako Udaletik.

### Ingurua garbituta

Domekan Atxorrotxera igotzen direnek Uxarretik bueltan egiten

**ATXORROTZEKO  
TABERNAKO DIRUA,  
SAN PEDRO ETA  
INTXAURTXUETA  
BIZILAGUNEN TALDERA**

badute, gainera, ingurua garbi-garbi ikusiko dute. Hala, Gurutze Santuko ermita ohi baino urrunagotik ikusteko aukera izango dute, eta hara iristean indusketetan egindakoak atzeman ahal izango dituzte eskoriatzarrek.

### Gotorleku estrategikoa

Gurutze Santuaren XVI. mendeko ermita dagoen tokian gaztelu bat egon zen bere garaian, Gasteiztik kostaldera zihoan bidea babestu eta zaintzeko. *Aitz-Zorrotz* edo *Atxorrotx* (haitz zorrotza, zorrotza) izena zuen, haraneko ia edozein tokitatik ikus daitekeen haitz horren gainean baitago. Kokapen pribilegiatu hori Gaztelak konkistatu zuen, Antso VI.a Jakituna errege nafarrak 1184an beste lurralde nafar batzuekin batera berreskuratu zuen arte. Nafarroako gotorlekurik estrategikoenetako bat izan zen, 1200ean mendebaldeko lurak erori ziren arte.

## Merkatariek lore azoka antolatu dute, komertzioa loratzeko

Usurbildik ekarritako lore eta landareekin egingo dute azoka, zapatuan, 10:00etatik 14:00etara, plazan

### I.B. ESKORIATZA

Duela bi urte, Eskoriatzako Udalak antolatu zuen *Loratu* lore azoka, Ibarraundi museoaren kanpoaldean. Iaz ere, Eskoriatzako Udalak antolatu zuen egitasmoa, baina lekualdatu eta Fernando Eskoriatza egitea erabaki zuten. Hirugarren edizio honetan, berriz, Axtroki Merkatarik Elkarteak kideak izango dira azoka antolatuko dutenak, eta, Udalak babestuta, Fernando Eskoriatza plazan 10:00etatik 14:00ak arte mota guztietako loreak eta landareak izango dira herritarren gozagarri.

Lore azokan izango diren loreak eta landareak ikusteaz eta erostez batera, doan lortzeko aukera ere jarri dute herriko komertzioetako kideek. "Usurbilgo Urtinea lorategikoak izango dira, beste behin, Eskoriatzan. Garaiko loreak ekarriko dituzte,

zuhaixkak... Landare aukera zabala. Horrekin batera, herriko komertzioetan erosiz gero, doan jaso daitezke loreak", dio Jabi Altunak, Axtroki Merkatarik Elkarteak kideak.

### Loreak doan lortzeko bidea

21 komertzio inguru batu dira Axtroki Merkatarik Elkarteak antolatu duen *Loratu* lore azokara. Komertzio horietan erostetaren bat eginez gero, txartelak lortu daitezke zapatuko lore azokan txartelak loreekin trukatzeko. "Axtroki Merkatarik Elkarteak komertzioetan, dendetan eta tabernetan daude txartelak eskuragarri. Egitasmoa batu diren hiru komertzio, denda edo tabernatan zigilatuz gero, lore azokan lore batekin trukatu daiteke", adierazi du Jabi Altunak, Axtroki Merkatarik Elkarteak kideak.

## Maiatzaren 28an botoa ematera, frontoira

Udal hauteskundeetan botoa eman nahi dutenak pilotalekura joan beharko dute hilaren 28an botoa ematera. 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, pandemia sasoiaren, segurtasun distantziak mantentzeko frontoian jarri zituzten hauteskunde mahaiak, kultura etxean beharrez, eta oraingoan ere modu berean egingo dute.



Frontoia atzealdean. I. BELOKI

## Atxorrotx Kultura Elkartearen eguneko bazkarirako txartelak

Maiatzaren 13an ospatuko duten Atxorrotx Kultura Elkartearen egunean herri bazkaria egingo dute, Fernando Eskoriatza plazan, 14:30ean, eta menua paella izango da. Txartelak Inkernu tabernan daude salgai, hamabost eurotan —helduentzat—, eta hamar eurotan —14 urtera artekoentzat—, eta haiek erosteko azken eguna maiatzaren 10a da.

## OHARRAK

### Bandaren kontzertua

Behoko Errota Musika Eskolako bandaren emanaldia izango da gaur, 20:00etan, Zaldibar antzokian.

### Murala auzolanean

Luis Ezeizako patioko horma batean mural bat margotuko dute zapatuan, auzolanean, 10:00etan hasita, Iban Urreta artistaren laguntzarekin.



# Zilarrezko Mailara igota, finala irabaztea helburu

Hemen Garbiketak Eskoriatzako junior errendimenduko taldeak Iraurgiren aurka jokatu du finala, Urnietan, domekan, 12:00etan. Hala, animatzera joan nahi duenarentzat autobusa antolatu dute Eskoriatza Kirol Elkarteko kideek

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Jokin Etxebarria Hemen Garbiketak Eskoriatzako junior partaidetzako emakumezkoen saskibaloitako entrenatzailearen eta Mikel Elortza entrenatzaile laguntzailearen gidaritzapean, haien mailan talderik onena izateko aukera izango dute domeka honetan. Izan ere, Iraurgi taldea izango dute aurkari; Azkoitiko eta Azpeitiko jokalariek osatutako taldea da faborito nagusia, baina motibatuta daude eskoriatzarrak eta irabaztera irtengo dira Urnietako kantxara.

Hiru fase izan dituzte denboraldi honetan. Zortzi partiduetatik guztiak irabazi zituzten lehenengo fasean; bigarren fasean, zazpi partiduetatik bost irabazi zituzten; eta, final-laurdenak eta finalerdia erdietsita, Urnietan finala izango dute, ibilbide politari ginga jartzeko asmoz. "Behin jokatu dugu soilik Iraurgiren kontra, Eskoriatzan, eta, sei puntugatik galdu arren, argi geratu zen irabazi diezaiekegula. Ea domeka honetan zer gertatzen den", dio Jokin Etxebarria entrenatzaileak.

## Faboritoari irabazteko asmoz

Denboraldi honetan hamazazpi partiduko jokatu dituzte, guz-



Hemen Garbiketak Eskoriatzako junior errendimenduko saskibaloitako taldea. J. E.

tira, eta horietatik hamabost irabazi dituzte. "Lehenengo itzulian, bertako taldeen aurka izan genituen partidua, eta, emaitzak onak izan zirela ikusita, sinisten hasi ginen, maila honetan zerbait egiteko aukera izango genukeelakoan. Helburu berriak ezarri genituen, eta finalerdietarako sailkatzea izan zen erronka. Final-laurdenetan nahiko erraz irabazita, finalerdietan gu baino faboritoagoa zen Lasarteko Ostadar taldearen kontra irabazi genuen; beraz, ilusioz gaude

datorren jardunaldirako. Sinistuta gaude domekan irabazi egingo dugula".

## Kadetei eskerrak

Denboraldia hasi aurretik taldea maila bat gorago ateratzea pentsatu zutela ere adierazi du Etxebarriak. "Zilarrezko Mailan taldea ateratzea pentsatzen genuen, baina hura murrizta da; zortzi jokalaria soilik ditugu. Haietako bat urtarrila ezkerreko lesionatuta dago; kadeteak ere aritu dira laguntzen. Eskerrak haiei".

## Mundukoan sei domina irabazi

Portugalen jokatu zen aurreko asteburuan XIX. Kenpoko Munduko Txapelketa, eta Atama Eskoriatza taldeko Danel Saenz, Airam Duarte, Otavio Luz de Paula eta Leire Rato borrokalariak han izan ziren, bakoitza bere diziplinan lehiatzen. Urrezko bost domina eta brontzezko bat lortu dituzte; haietako urrezko hiru domina, Ratok –argazkian podiumean–.



RAFA CARRIET

# LEINTZ GATZAGA | 17



Aitor Ajuria mendi lasterkari gatzagarra, joan den astean. MIREIA BIKUÑA

## Munduko Kopako probei begira, Frantziara eta Austriara

Aitor Ajuria mendi lasterkari gatzagarra zehaztu ditu hurrengo lasterketak, Aloñako Igoera irabazi ostean

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA Bigarrenengoz irabazi zuen Aitor Ajuriak (Leintz Gatzaga, 1998) Aloñako Igoera, apirilaren 23an, domeka. 350 korrikalariren artean azkarrena izan zen, eta, hautagai nagusia izanda, ez zuen hutsik egin. Aloñakoa test moduko bat izan zen aurretik dituen Munduko Kopako probei begira.

## Hurrengo helmuga, hilaren 14an

Domusa Teknik taldeko mendi lasterkariak Oñatiko proba ostean garaipena ondo ospatuta eta atsedean ondo hartuta, helburu berriak ezarri ditu aurrera begira. "Orain, maiatzaren 14an hasiko naiz Munduko Kopako probekin, eta lehenengoa Frantziako Alpeetan izango da, Saint Honore herrian; Skyrace des Matheysins deitzen den lasterketa batean arituko naiz [2021ean, hamabigarren postuan sailkatu zen]. Frantziako laster-

ketak 25 kilometro ditu eta desnibela 2.000 metro positibokoa izango da. Egunotan, proba hori prestatzen ari naiz. Gero, horren ostean, Hochkonig Skyrace lasterketa egingo dut; hura Austrian izango da, ekainaren 3an, eta, lasterketari dagokionez, 32 kilometroko proba gogorra da, 2.720 metroko desnibel positiboarekin". Austriako probari dagokionez, ez da haren lehenengo aldia izango; izan ere, iaz, 4 ordu eta 56 minutuan amaitu zuen lasterketa eta sailkapenean 41. postua lortu zuen.

## Gehiago egiteko asmoz

Bi lasterketa horiez gain beste batzuk ere egingo dituela adierazi du Ajuriak, baina haiek zehaztu gabe; hasiera batean, Frantziakoan eta Austriakoan dagoela zentratuta adierazi du Aitor Ajuriak, Leintz Gatzagako korrikalariak.

## Bazkaltzeko 50 lagun inguru, eta afaltzeko aukera ere bai

Zapatuan egingo dute Makilakorta Fest jaialdiaren hirugarren edizioa Leintz Gatzagan. Egunerako prestatu dituzten ekintza guztiez gain, herri bazkarian 50 lagun inguru batuko dira paela-janerako. Gatzaga City Krew gazte taldeko antolatzaileek adierazi dutenez, Labidea dena-tabernan izan dituzte txartelak salgai, eta, dezente salduta,

talde polita batuko direla bazkaltzeko adierazi dute.

Horrekin batera, iluntzean izango diren kontzertuen ostean –Tatta, Denso, Mutiko eta Youth United–, afaldu nahi duenarentzat ere jarri dute aukera antolatzaileek, iazko hutsunea betetzeko asmoz: "Herrian afaltzeko leku falta dugu, eta, iaz jendea afaldu barik geratu zen. Hala, Andramari jaietan egin genuen moduan, *food truck* bat izango dugu; Goxua Food Truck izenekoak".



# Beste aro bateko azpiegitura bizia

Gorla inguruan duela 55 urte eraiki eta gaur egun 200 bat bazkide dituen Altzasu elkartera egin du bisita GOIENAK, eraikina bera eta erabileran izan den aldaketa hizpide

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Elosua auzoko Gorla inguruetan dagoen Altzasu elkarte bertatik bertara ezagutzen ez zuenari harrigarria egingo zaio 2023an halako gastronomia eta mendi elkarte bat funtzionamenduan ikustea. Harrigarria delako kopapena bera eta Altzasuren tamaina erraldoia, eraikinari berari eta inguratzen duen belardiari dagokionez. Bereziki eguraldi ona egiten duenean ikusgarria da Altzasuk duen itxura. Debagoieneko gastronomia elkarte handiena da, eta, seguruenik, Euskal Herriko handiena ere izango da, elkarteko gaur egungo presidente Gotzon Arzelusen arabera: "Euskal Herria txikia da eta, aldi berean, handia. Elkarten barruan eta azpiegitura aldetik ez dugu ezagutzen Altzasu baino handiagoa den elkarterik; elkarte batzuek izango dituzte bazkide gehiago, baina azpiegitura aldetik guk, behintzat, ez dugu hau baino handiagorik ezagutzen".

Beste garai eta gizarte eredu baten ondorio da halako azpiegitura bat auzolanean altxatu eta auzolanean mantentzearena. Jakinekua da gaur egun elkarte gastronomikoak oso urrun daudela 1970eko, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan bizi zituzten garaietatik, eta Altzasu ez da salbuespena. Hala ere, egun dituen 200 bazkideekin, bizirik dago Altzasu; horregatik egon da GOIENA gaur egungo presidentearekin, Altzasuren urrezko garaiak gogoratzeaz gain etorkizunera begira ere jartzeko.

**Hasierako asmoa, hiru eraikin**

1964ko ekainaren 17an eratu eta 1964ko abenduaren 28an legeztatu zen irabazi asmorik gabeko Altzasu gastronomia eta mendi elkarte, eta 1968an hasi ziren



Gaztetxo bat Altzasu elkartera begira, 1973an egin zuten kanpaldian. SERAFIN ESNAOLA, MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR FONDOA

eraikina egiten. Halako tamainako egitasmo bat gauzatu izana Bergarako lagun talde sortzaile bati zor zaio. Lagun talde hark mendia eta gastronomia batuko zituen elkarte bat sortzeko asmoa zuten, Gorla inguruan, eta, ho-

rretarako, Altzasu izenez ezaguna zen eremuan –hortik datorkio elkarteari izena– lurra erosi eta eraikin bat egiteko proiektua landu zuten. Lagun talde haren asmoak nolakoak ziren imajinatzeke, bitxikeria moduan kon-

tatzen du Arzelusek beste bi eraikin egiteko asmoa ere bazegoela: "Ez dakit esaten Altzasu moduko tamainakoak izango ziren, baina hasierako talde hark beste bi eraikin ere proiektatu zituen... Guztira, hiru eraikin

## Hiru proiektatu, baina bakarra altxatu

1960ko hamarkadan gaztaro betean zegoen Bergarako lagun talde sortzaile baten lanari esker altxatu zen Altzasu. Gorla inguruan gastronomiaz eta mendiaz gozatzeko elkarte bat sortu nahi zuten lagun talde hark, eta abentura abiatu zuen 1964an; urte hartan eratu eta legeztatu zen elkarte. Altzasu izenez ezaguna zen eremuan lurra erosi –elkarteari izena

eremutik datorkio– eta eraikina egiten hasi ziren. Lagun talde haren hasierako asmoetan zegoen guztira hiru eraikin egitea, baina, azkenean, bakarra egin zuten; gerora, proiektuaren bideragarritasun ekonomikora begira, jende gehiagori eman zioten sartzeko aukera. Orduetik, pasatu dira belaunaldi batzuk, Altzasu elkarte zaintzen eta hobetzen joan direnak.



Obrak, 1968ko maiatzaren 13an. UDAL ARTXIBO-SERAFIN ESNAOLA, M.A. ELKOROBEREZIBAR FONDOA



Futbolina eta ping-ponga, ume eta gaztetxoendako gunean. J.B.L.



Bi telebista-gela daude Altzasun; irudian, umeendako gela. J.B.L.

izan behar ziren; itzela da. Azkenean, bakarra altxatu zen, oso handia dena eta makina bat lan ematen diguna".

**Beste testuinguru baten eraikia**

Argi dagoena da Altzasu elkarte beste testuinguru eta gizarte eredu baten altxatu zela. "Gizartea oso ezberdina zen duela 50 urte eta ukalezina dena da erabilera aldetik asko jaitsi dela. Hasierako urteetan Altzasu elkarte huts bat baino askoz gehiago zen; esan daiteke herri-ekintza gune bat zela. 1970eko hamarkadako kanpaldiak, mendi irteerak, dantza taldeen erakustaldiak... Oso dinamikoa zen Altzasu, eta hori galdu egin da. Egia da erabileraren gainbehera hori ez zaiola Altzasuri bakarrik gertatu, orokorra dela elkarte gastronomikoetan; gizarte individualistagoa gara eta kolektiboari trukean ezer eskatu barik emate hori galtzen ari da. Elkarteek bizi duten gainbehera bada gizarte honen isla".

**Urteroko ekintzak**

Garai bateko erabileratik urrun badago ere, badira urtero antolatzen dituzten ekintzak. Urtean





Jangela nagusian aldi berean 150 bat lagunek jan ahal izateko lekua dago. J.B.L.



Literak ere badaude, gaur bertan pasatzeko hamabi lagunendako lekuarekin. J.B.L.



Lau paella-ontzi, terraza baten. J.B.L.



Elkartea bera bezala, erraldoia da sukaldea. J.B.L.

egun batez elkartea itxi egiten da eta bazkideak ezin dira joan, Mizpirualde egoitzako egoiliarrek erabiltzen dutelako. Umeen Eguna ere antolatzen dute, askotariko jolasekin, eta azaro partean Gaztaina Erre Eguna ere ospatzen dute –elkartean dauden danbolinetan 40 kilo gaztaina erretzera heldu izan dira–. Horrez gain, zuzendaritza taldekoak duela urte batzuk egiten zen mendi-irteera eta osteko garbantzujana berreskuratu nahian dabiltza.

Bestalde, bereziki zuzendaritzan dagoen taldeak badu ohitura noizean behin mantentzera begira auzolanerako deialdia egiteko, Arzelusek aipatu duenez: "Duela 50 urte auzolana oso barneratuta zegoen gizartearen eta hori ere galdu egin da, hein handi baten. Hala ere, esan dezakegu Altzasun mantentzen dugula ohitura hori, beste neurri baten bada ere. Kanpoko belardia, esaterako, auzolanen mantentzen dugu; argi daukat auzolanerako ohitura hori mantenduko ez balitz elkartea beste egoera baten egongo litzatekeela. Urte luzez sekulako lana egin da hemen, bazkide batzuek ordu asko sartu izan dituzte; saiatzen gara bide horri eusten, Altzasurentzat ezinbestekoa delako. Altzasu osasuntsu badago gaur egun, aurrekoek hasitako bideari eutsi diogulako da, neurri handi baten".

#### Mendi elkarte baten "onurak"

Arzelusek, bestalde, Altzasu gastronomia elkarte bat izateaz gain mendi elkarte ere badela azpimarratu du: "Gorlako inguru honetan beste elkarte batzuk ere badaude, eta horiek guztiek komunean dute mendi elkarteak direla. Denok edo gehienok ezagutzen ditugu kaleko elkarteak; kaleko elkarteek



Altzasu kanpoko belardia, gaur egun; belarra auzolanen mantentzeko ohitura dute zuzendaritzakoek. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU



Ziburuak duela 50 urte eta gaur egun.

inprobisatzeko aukera ematen dute. Mendi elkarteek ez dute, akaso, inprobisatzeko aukera hori ematen, baina naturarekin eta mendiarekin harremana eta askatasuna eskaintzen dute. Abiadura izugarri azkarrean bizi garen garaiotan, edozein mendi elkarte geratzeko eta erlaxatzeko aukera ematen du; nik neuk gero eta gehiago baloratzen dut hori".

#### Bazkide berriei zabalik

Gaur egun, 200 bat bazkide ditu Altzasuk, eta, Arzelusen arabera, atek zabalik dituzte bazkide berriendako: "Lekua badago, eta asko gustatuko litzaziguke jende berria batzea. Dagoen formatua dauka, dagoen lekuan dago eta baldintzak direnak dira, baina gu deseatzten gaude jende berriari ongi etorria egiteko". Bazkide berriek 1.200 euroko

sarrera kuota ordaindu behar dute –ordainketa zatika egiteko aukera dago– eta hileko kuota 25 eurokoa da; erretiratuendako hileko kuota 13 eurokoa da. Horrez gain, aparteko 30 euroko kuota bana ere ordaintzen dira

### "HASIERAN, ELKARTE HUTS BAT BAINO GEHIAGO, HERRI-EKINTZA GUNE BAT ZEN ALTZASU"

### "ELKARTEA GAUR EGUN OSASUNTSU BADAGO, AURREKOEN BIDEARI EUTSI DIOGULAKO IZAN DA"

GOTZON ARZELUS, PRESIDENTEA

uztailen eta abenduan. Intere- sa duenak mezua bidali dezake [altzasu@altzasu.com](mailto:altzasu@altzasu.com) helbide elektronikora, eta erabakia hartzen laguntzeko zuzendaritzako taldekoak prest daude interesa duen horri bisita gidatu bat egiteko bertatik bertara: "Elkartea- ren funtzionamendua azalduko dizugu eta instalazioak erakutsiko dizkizugu, konpromisorik gabe. Familiarekin etor zaitezke, haiek ere Altzasuz goza dezaten. Kafea, gure kontu".

Erabilera araei dagokienez, bikotekideak bazkidearen erabilera eskubide berberak dauka eta bazkidearen adin nagusiko seme-alabek ere bai; baldintzekin izan arren, badute erabiltzeko aukera. Gainera, mahaia Internetez erreserbatzeko aukera dago, aldeztirik bertaratzeko beharrik gabe. "Ni neu Altzasun sartu nintze- nean emazteak estreinatu zuen elkartea [Barre]. Ez du zentzu- rik elkarte bat izateak gero ez bada erabili behar; denoi inte- resatzen zaigu Altzasu ahalik eta gehien erabiltzea. Egia esan, igarri dugu gazteen artean bada- goela hutsune bat, baina el- kartea erabiltzen da".

#### Azpiegitura erraldoia

Instalazioek eskaintzen dituzten zerbitzuen zerrenda luzea da oso: lau paella-ontzi, bi erretegi, kanpoan jateko terrazak –badi- ra lau terraza handi, gutxienez–, dutxak, umeendako ziburu ber- rrituak, helduendako telebis- ta-gela, umeendako telebista- gela, barruko frontoia, saskibalo- i kantxa, kanpinerako eremua, hamabi lagunendako logela –li- terak–, belardi zabala kanpoan jateko mahaiekin... 300 lagun- dako edukiera izanik, askotari- ko ekitaldi handiak antolatze- ko aukera ere ematen du.



# Azokako lanak martxan, "topagune" izan dadin

Martitzenean hasi ziren Oxirondo azoka biziberritzea helburu duten obrak, aspalditik itxita dauden eskumako postu finkoen aldean. Eremu hartan gunee zabal bat egokituko dute, bertako produktuak eskaintzeko; lanak Gabonetako kanpainarako amaituko dituzte

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Martitzenean hasi zituzten Oxirondo azoka berritzeko lanak, "bertako produktua erdigunean jarri eta azoka topagune" bihurtzeko. Udalak, azokako erabilzaileek eta azokaren bueltan diharduten eragileek premia ikusi dute, saltoki guneaz harago, lehen sektoreari kokagune duina eman eta asteen zehar gainbeheran dagoen egoerari buelta bat emateko. Salmentagune hutsa baino gehiago, topagune izatea da helburua. Obrek abendura arte iraungo dute, eta bitartean zabalik egongo da eraikina; hau da, ezkerrean dauden hiru saltoki finkoak, ludoteka eta goiko solairuko jolasgunea zabalik egongo dira. Azokako erosleek zapatueta igarriko dute aldaketa handiena, mugimendu handien egoten den egunean, saltzaile ibiltarien postu batzuk kanpoko karpan aurkituko dituzte eta.

## Saltzaileak, itxaropentsu

Zapatu goizetan izaten da mugimendu handien Oxirondon. Hala, Etxague Azpikoa baserriko Karmen Etxeberriak ohitura du jeneroa egubakoitz iluntzean azokan uzteko, eta horregatik egin zuen eskaera Udalean, ahal den heinean, behintzat, postu ibiltaria eraikin barruan mantentzeko: "Udalak baiezkoa eman digu niri eta beste batzuei. Lekua badago, eta uste dut moldatuko garela. Kanpoko karpan kanpotik datozenak egongo dira: fruta, bakailao eta gazta saltzaileak, Extremadurako produktuak saltzen dituztenekin batera. Denok eroso egoteko aukera izatea espero dugu". Etxeberriak bere kabuz salmenta zuzena egiten jarraitzeko espazioa izatea gustatuko litzaiokeela aipatu du. Era berean, ondo ikusten du denda bateratuaren ideia. Azpeitiko azoka jarri du bi eredu adibidetzat: "Azpeitian baserri-




Karmen Etxeberriaren postua, eguaztenean; atzean, lanak martxan. HASIER LARREA



**ASIER LATORRE** IZOTZ DENDAKO ARDURADUNA

"Hasierako proiektuak jasotzen zuen obrek iraun artean barruko eremua txikiagoa izatea. Pozik gaude aldatu egin delako eta eremua zabalagoa izango delako".



**KARMEN ETXEBERRIA** ETXAGUE AZPIKOA BASERRIKO

"Postua barruan mantentzea eskatu dut, kanpotik etorri ohi direnei zamalanak errazteko. Ea obrak eta aldaketak laguntzen duen azoka biziberritzen".

tarrek badute aukera janaria bertako dendan uzteko; bereziki, jenero handia dagoen boladetan. Esaten dutenez, oso ondo ari da funtzionatzen Azpeitiko eredu; ea Bergarako azokari bultzada bat emateko balio duen aldaketak".

Postu finkoetako bat den Izotz dendaiko Asier Latorrek ere espero du obrak jende gehiago erakartzea: "Lanak bukatu ostean, Udalarekin eta beste eragile batzuekin batera adostuko dugu azokaren funtzionamendu berria. Asmoa da uda aprobetxatzea

obrak egiteko, Gabonetako kanpainarako dena gertu egon dadin".

## Elikadura Mahaia oinarrian

Lanen lekuan postu finkoak zeuden lehen, eta ideia da gunee bakar eta zabala egokitzea bertako produktuak eta prestatutako janaria eskaintzeko. Lanen aurrekontua 345.443 eurokoa da, BEZa barne. Elikadura Mahaia zehaztuko du azokaren erabilera; parte hartzeko interesa duenak Ehunduren bulegora jo beharko du (943 25 09 49 edo [ehundu@ehundu.eus](mailto:ehundu@ehundu.eus)).



JOKIN BEREZIARTUA

## Gaur irekiko dute Masterreka

Urtarrilaren 9a ezkerreko itxita eta obretan egon ostean, gaur irekiko dute Masterreka kalea. Exekuzio-epea sei hilabetekoa bazen ere, lau hilabete eta erdi pasatxo behar izan dituzte kalea berri eta bertako irisgarritasuna nabarmen hobetzeko. Kalea trafikora irekita, 2021eko abendura, Zubieta kalea berri aurreko egoerara, itzuliko da herri barruko zirkulazioa.



AITOR AGIRIANO

## Ipintzako ikasleak eta Rebel Noise

Ipintzako ikasle Ekhi Larrañaga, Paule Kalboetxeaga eta Irene Larrañaga izan dira *Galdegazte* saioan, Rebel Noise taldeko Aimar Iturricastillo *Iturri* abeslaria elkarrizketatzen. Saioa errealizazio-gelatik jarraitu dute Maialen Arangurennek, Suar Jauregik eta Maria Navarrok. Maiatzaren 11n emitituko da Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean; denboraldiko azken saioa izango da.

## OHARRAK

### Jardun: kantu-jira herrikoirako entsegua

Maiatzaren 14an kalera irtengo dira kantuan (12:30). Azken entsegua maiatzaren 10ean izango da, San Joxepen (19:00).

### Ernai kaleko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Zapatuan eta domekan, egun osoko egitaraua ([Goiena.eus](http://Goiena.eus)).

### Posta bidezko botoa: EH Bildu eta EAJ

EH Bilduk Iralan duen lokala zabalik egongo da astelehenetan eta eguenetan 17:30etik 19:30era eta martitzenetan 11:00etatik 13:00etara. EAJk batzokia zabalik izango du astelehenetik egubakoitzera 11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara (645 72 27 08). Maiatzaren 18ra arte egin daiteke eskaera.



# Apirilean Musika zikloak, azken traka asteburuan

Bergarako Musika Eskolak urtero antolatzen duen ekimenaren azken ekintzak izango dira aste bukaeran; tartean, domekan estreinatuko duten 'Izaro' ipuin musikatua. Zikloak eman duenarekin pozik daude: "Ilusioa eta pasioa sentitu dira eskolako giroan egunotan"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Bergarako Musika Eskolak antolatu duen Apirilean Musika zikloaren barruko azken ekitaldiak izango dituzte asteburuan. Bihar Elgetan egingo den Debagoieneko Trikitixa Egunean hartuko dute parte ikasle batzuek, eta dantzan ari direnak, berriz, Azpeitiko Dantzari Egunerara joango dira.

**Txistuari balioa emateko obra** Bergarara etorrita, eskolako zuzendari Marije Ugaldek domekan estreinatuko duten *Izaro* ipuin musikatuan jarri du arreta: "Jose Miguel Laskurainek [Txistulari Bandako zuzendaria] idatzi ditu



Domekan estreinatuko duten *Izaro* ipuin musikatuaren entsegu bat. IMANOL SORIANO

musika eta letra; istorio oso sinplea eta polita da, hamaika abestiz osatua. Ez da ohikoa horrelako formatuan idaztea: Txistulari Banda, pianoa, perkusioa, abesbatza eta dantzariak. Hasiberrien eta umeen abesbatzek hartuko dute parte, 80 bat umek. Musikariak beste hamar dira, eta laguntzaileak ere badaude. 100 bat lagun elkartuko dira agertokian. Helburua da txistuari balioa ematea, musika tradizionalaz harago doala erakustea". Bi ekitaldi egingo dituzte Seminarixoan, 12:00etan eta 13:00etan.

Aurten ere hamaika ekintza antolatu dituzte Apirilean Musika zikloaren barruan, eta pozik dago Ugalde: "Kalean eta Seminarixoan egin diren kontzertu guztietan maila eta lana erakutsi da. Argi dago egunotan inoiz baino biziago dagoela musika eskola; entseguak edozein orduan, instrumentu bateko ikasleak beste batzuekin elkartu, adin guztietako musikariak oholtza partekatzen... Ilusioa eta pasioa sentitzen dira eskolako giroan!".

Hurrengo geltokia, maiatzaren 21eko Udaberriko Jaia (Informazio gehiago, [Goiena.eus-en](http://Goiena.eus-en)).

## 'Bake lehorra' obra bihar, Aitor Borobia aktore bergararrarekin

Tartean antzerki taldearen *Bake lehorra* antzezlanak ikusi ahalko da bihar, maiatzak 6, Seminarixoan (20:00). Obrak gogora ekarri nahi du erraza dela gerraren metxa piztea, eta, aldiz, oso zaila dela itzaltzea; Aitor Borobia aktore bergararra da protagonistetako bat. Nagusiki euskaraz bada ere, zenbait pasarte gaztelaniaz dira. Sarrerak: [seminarixoa.eus](http://seminarixoa.eus).

## Erakusketa: Euskal Herrian egindako motorrak Aroztegin

Euskal Herrian egindako motorren eta belomotorren erakusketa irekiko dute gaur Aroztegin, 36ko gerratik 1980ko hamarkadara arte egindakoak. Irekiera berezia egingo dute, azken motorrak martxan sartuko dituzte-eta aretorea (18:00); ekitaldian egongo dira Gorka Artola alkatea eta motor batzuen jabe diren Agustín eta Miguel Lazpiur.

## MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK 2023-2024

maiatzaren 2tik ekainaren 15era

Gerturatu eta ezagutu gaitzazu, hitzordua eskatu!

BERGARAKO  
MUSIKA  
ETA DANTZA  
ESKOLA



MUSIKAREKIN,  
DANTZAREKIN  
HAZI, HEZI ETA BEZI!



943 76 57 80 - 679 15 45 12

idazkaritza@bme.e.telefonica.net

[www.bergarakomusikaeskola.com](http://www.bergarakomusikaeskola.com)







Pilota eskolako haur batzuk, martitzenean, Antzuolako udal pilotalekuko atzeko paretan. A.R.K.

## Atzeko Txapelketa egingo dute gaur eta bihar

8 eta 47 urte arteko 73 parte-hartzailek hartuko dute parte eta 103 partida jokatuko dituzte; 17:30ean hasi eta 20:00etan bukatuko dira, bihar. Frontoiko atzeko paretan jokatuko dituzte partidak, eta horrek jendea "biltzea" dakar, antolatzaileen ustez

### Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Olalde pilota elkarteak bigarren aldiz antolatu du Atzeko Herri Txapelketa, Antzuolako udal pilotalekuan. Guztira, 73 parte-hartzaile arituko dira pilotan, eta gaur hasiko dira partidak, Pedro Iturbe elkarteak kideak azaldu duenez. "17:30ean, pilota eskolako umeak arituko dira, txikienetik handienara. Gauean, 23:30ak arte irauko dute partidek, eta zapatu goizean hasiko da bigarren fasea". Egun osoa igaroko dute bihar pilotalekuan, 09:00etatik 20:00 aldera arte: "Finala orduan izatea aurreikusten baitugu".

8 eta 47 urte arteko herritarrek hartuko dute parte, eta antolatuzaileek uste dute elkar ezagutzeko bide ematen duela horrek. "Frontoia nahiko eremu bakarria izaten da pilotarientzat, eta herritarrek frontoian egotea inportantea da; garai askotariko jendea batzea eta elkar ezagutzea, giro onean". Nabarmen-

du duenez, iaz "harreman oso aberasgarriak" egin ziren, eta aurten ere hala izatea espero dute. Horregatik, afari-merienda egingo dute txapelketa amaitu ostean.

### Berreskuratzeko nahia

Iaz berreskuratu zuten txapelketa, aurrez ere egiten zela jakinarazi baitu Iturbek, informazio zehatzik ez duten arren. "Frontoian edo kalean beti entzun izan dugu lehen egiten zela txapelketaren bat, hainbat formatutan: banaka, binaka, kanpoko frontoian... Eta guk formatu honi ekitea erabaki genuen".

Pilotalekuko atzeko paretan jokatuko dira partidak, banaka,

### "ADIN ASKOTARIKO HERRITARRAK BATU ETA ELKARREN BERRI IZATEKO GUNEA DA"

PEDRO ITURBE, OLALDEKO KIDEA

eta Iturbek uste du horrek "biltze" sentazioa dakarrela. "Aurtean jokatuta, agian, handiegia gera daiteke pilotalekua; hau formatu egokiagoa da adin guztietarako".

Hainbat fase izango ditu eta arauak aldatu egingo dira. Parte-hartzaile bakoitzak, ordea, gutxienez bi partida jokatuko ditu hamarrera, eta finalean ere hamarrek bi partida jokatuko beharko dituzte. Alabaina, berdinketa badago, bostera hautuko dute. Pilota atzeko espazioan sartu behar da.

### San Isidro txapelketa

Domekan, berriz, San Isidro emakumezkoen pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dira, 10:30ean. Izurritearen aurretik egin zuten lehen aldiz, eta berreskuratzeko hautua egin dute, neska pilotariek "txapelketak egiteko aukera askorik ez dutelako". Martxoaren 19an jokatu zituzten lehen partidak eta maiatzaren 13an izango da finala.

## San Isidro eguneko bazkarirako txartelak salgai daude

Hilaren 13an ospatuko da; liburutegian eta udaletxean daude salgai sarrerak. Bertso saioa ere egingo da

### A.R.K. ANTZUOLA

Maiatzaren 15a da San Isidro eguna, baina, ohi den legez, zapatuan ospatuko dute Antzuolan, maiatzaren 13an. Egun osoko egitaraua antolatu du Antzuolako Udalak, eta, tartean, baita bazkaria ere. Bada, salgai daude txartelak astelehenera arte.

Bi menu egongo dira: entsalada mistoa, oilasko errea pikillo-saltsarekin eta gorringo txigortu tarta jateko aukera egongo da ohikoan; beganoan, berriz, pistoa, hanburgesa beganoa eta konpota. Ogia eta edaria bietan

dago barne, eta 20 euroko prezioa du. Umeentzako menua ere izango da: plater konbinatua eta gorringo txigortu tarta, 13,5 eurotan. Liburutegian eta udaletxean daude txartelak.

### Bertso saioa

Maiatzaren 12an bertso saioa egingo dute, 22:00etan. Maialen Lujanbio, Aitor Bizkarra, Ane Zuazubiskar, Agin Laburu eta Alaia Martin izango dira bertsolariak, eta sarrerak Bibe plataforman eta liburutegian eros daitezke, hamar eurotan.



NIRE USTEZ

PILAR ETXANIZ

## Memoriarekin zorretan

Onintza Legorburu eta Ane Alberdi antzuolarrek aurkeztu berri dute *Memoria josten. Gatazka armatua Antzuolan 1958-2011* lana jendaurrean. Eta aitortu zuten ez dutela memoria inklusibo bat lortu. Ados.

Aurkezpeneko bi hitzek ukitu naute: *hildakoak* eta *isiltasuna*. Hildakoen betirako isiltasuna. Familien isiltasuna. Hilketaren ondoren herria utzi zuten alargun eta hiru seme-alabena. Zer zeramaten sentimenduen motxilan? Antzuolan geratu ziren beste alargun eta seme-alabena. Zer begirada jaso izan dute herritarrengandik? Bizkartzaina eraman zutenen eta familien isiltasuna –baten hitzak salbu–.

Erantzun gabeko galdera asko daude. Ukatutako aitorenak, eta esan gabeko elkartasun hitzak. Eman gabeko besarkadak. Herriko plazaren isiltasuna. Eta baita udalen isiltasuna ere. Isiltasun konplizeak, nirea barne, urtetan zehar. Isiltasunak baditu bere arazoak, korapiloak eta zauri sakonak. Baina guztia arakatu eta argitaratu barik ezin memoria justu bat eraiki.

## Basalde auzoko errota eta indarretxea ezagutzeko aukera

Landatxope jubilatuen elkarteak antolatuta, Basalde auzoko errota eta indarretxea ezagutzeko irteera egingo dute maiatzaren 11n, eguena, Joxe Mari Iturbe antzuolarra gidari dela. Hark emango ditu azalpenak, eta nahi duen orok izango du parte hartzeko aukera. 09:00etan hasiko da bisita, eta herriko plazatik abiatuko dira.

## Etorkizuneko hilerria irudikatzen gogoeta prozesua egingo dute

Nere Erkiaga Hil Arte Bizi egitasmoko kidea, Beñardo Kortabarria Antzuolako alkatea eta Maria Eugenia Irazabal, Pilar Etxaniz, Elixabet Pueyo eta Josune Jimenez Antzuolako herri eskolako ordezkariak izango dira hizlariak, bultzatzaileak baitira. Hala, helburua da gogoetaren berri ematea. 18:00etan izango da, eguenean, Olanen.



# Gogoeta Interneten erabileraren gainean

Teknologia berriekin lotutako pantailen, bideojokoen eta abarren erabilerarekin kezkatuta, gogoetarako proposamena egin dute guraso elkarteak eta liburutegiak elkarlanean. Hitzaldi batekin hasi dira, eta saio irekia iragarri dute hilaren 17rako

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Gaia mahai-gainean jarri eta hausnarketarako tartea zabaltzea da helburua. "Guraso batek, guraso elkartearen bidez, eskolako BAT taldean azaldu zituen gaiaren inguruko ardura eta iniziatiba lantzeko proposamena", azaldu du liburutegiko Geaxi Ezpeletak. Aintzat hartu eta guraso elkartearen, eskolaren eta liburutegiaren ekimenez heziketa digitalaren inguruko hitzaldi bat eta gogoeta saio irekia antolatu dituzte, lehenengo eta behin. "Momentuz, gurasoengan jarri da arreta. Hitzaldia gaia plazaratzen hasteko lehen urratsa izan da. Hilaren 17ko bilera irekian, berriz, guraso guztiei dei egiten zaie gaiaren inguruko zalantzak, ardurak eta informazioa trukatzeko. Bilera horretatik ondorioztatzen denak finkatuko du aurreantzean egin daitezkeen urratsen norabidea".

**Informazio bilera**

Elgetako KZguneko arduradun Eneritz Orobengoak egin zuen hitzaldia eguaztenean, hamar bat gurasoren aurrean. "Smartphoneak funtsezko tresna dira nerabeen arteko komunikazioan. Gazteak, gaur egun, eskuko telefonoaren bitartez geratzen dira. Eskolako lanak, askotan, etxetik eta lainoan egiten dituzte. Musika ere telefonoan entzuten dute. Neurri handi batean, helduek ere horrela jokatzeko dugu. Erabilera asko handitu da; horregatik, komeni da mundu honek nola funtzionatzen duen jakitea, eta egon daitezkeen arriskuei aurre hartzeko horiek ezagutzea", esan zuen.

Orobengoak erabilera datuak eman zituen, eta azaldu zuen umeak gero eta gazteago hasten direla gailu adimentsuak erabiltzen; gehienetan, gainera, helduen aldetik kontrol neurri edo muga handirik gabe. "Inter-



KZguneko dinamizatzaile Eneritz Orobengoak, eguaztenean hitzaldia egiten. L.Z.L.

## KEZKAK TRUKATZEKO ETA HURRENGO URRATSAK ZEHAZTEKO IZANGO DA BIGARREN SAIOA

netek alde onak ere baditu –informazio iturri, aisialdirako aukera, lagunekin egoteko...–, baina jakin behar dugu konektatuta gaudenean, neurri batean, mundu errealetik deskonektatuta ere bagaudela, eta mugak jartzea beharrezkoa da. Kontu horretan gurasoak ados egotea ona da", gaineratu zuen.

**Heziketa digitalaren premia**

Heziketa digitala beharrezkoa dela azpimarratu zuen Orobengoak. "Errepidea nola zeharkatzen den irakasten diegun moduan, irakatsi behar diegu Interneten nola jokatu. Natibo digitalak dira, eta, gehienetan, ez dute beldurrik eta edozein botoi sakatzeko dute. Ikasi behar dute zeintzuk diren espazio seguruak, nola jokatu pantailen aurrean, datu pribatuak nola kudeatu behar dituzten... Hor lan garrantzitsua dago".

Alde horretatik, gurasoen zein hezitzaileen heziketa digitalean ere jarri zuen azpimarra, eta umeak eduki desegokietarako sarbidea ez izateko merkatuan dauden hainbat erremintaren berri eman zuen. "Gailuak konfiguratu daitezke –Google Chrome badu aukera hori–, eta oso interesgarriak dira YoutubeKids edo FamilyLink moduko aplikazioak", esan zuen. *Desenmascara.me*, *haveibeenpwned.com* eta *howsecureismypassword.net* erremintak berri ere eman zuen. Webguneak benetakoak diren ziurtatzeko erabiltzen da lehenengoa, posta elektronikoa filtratu ote diguten begiratzeko da bigarrena, eta pasahitzak seguruak diren jakiteko da hirugarrena.

Orobengoak bestelako gaiak ere jorratu zituen hitzaldian. Informazioaren laburpena eskuragarri dago liburutegian. Lanketa abiarazi duten eragileek hilaren 17rako deitu dute hurrengo hitzordua. Gurasoen eta hezitzaileen arteko gogoeta bilera irekia izango da. Zalantzak argitzeko, kezkak elkarbanatzeko eta hausnarketa prozesuak aurrera egin behar duen argitzea saioa izango da.



ELGETAKO EAJ

## Elgetako jeltzaleen hautagaitza

EAJk aurkeztu du Iker Laka buru duen zerrenda. Eibartarrak 28 urte ditu, Politologo ikasketak ditu eta bost urte daramatza Aldundian, aholkulari. Zerrendari dagokionez, bederatzi lagunetik bost dira elgetarrak. Jeltzaleek azaldu dute "Elgetak aurrera egiteko eta dagoen geldialditik ateratzeko helburu garbiarekin" aurkeztzen direla udal hauteskundeetara.

## Frontoiko plakak, martxan

Udal eraikinak eta behar ekonomiko larriena duten bederatzi familia hasita daude instalazio fotovoltaikotik energia jasotzen. 44.323,97 euroko inbertsioa egin du Udalak, eta Energiaren Euskal Erakundeak 30.257,50 euroko laguntza eman du. Internet bidez zuzenean ikus daitezke instalazioaren unean uneko egoera eta energia sorrera maila.



ELGETAKO UDALA

## Ferixa Nagusiko jaietako kartel lehiaketa zabalik da

Ekainaren 29tik uztailearen 2ra izango dira aurreko Ferixa Nagusiko Jaiak. Jai Batzordeak deitu du kartel lehiaketa. Hilaren 16ra arte aurkez daitezke proposamenak eta irabazleak 100 euroko saria jasoko du.

Aurkeztutako lanak zeramikagelan egongo dira ikusgai hilaren 17tik 23ra, eta herritarrek online botoa emateko aukera izango dute. Boto gehien jasotzen dituen kartela izango da irabazlea. Jai Batzordeak maiatzaren 24an emango du aditzera kartel irabazlea zein den. Iaz, lau kartel proposamen egon ziren eta herritarrek Koldo Izagirrek aurkeztutakoa aukeratu zuten. Hura izan zen irabazlea.

## OHARRAK

### 'Gu ere kontulari'

Gaur, barikua, umeak izango dira kontulari liburutegian. 17:00etan hasiko da emanaldia.

### Trikitixa Eguna bihar

Debagoieneko Trikitixa Eguna ospatuko da zapatuan Elgetan. Egun osoko egitaraua prestatu du Elgetako Trikiti Eskolak (Ikus 34. orria).

### 'Azalerako ipuinak'

Liburutegiak Saroa Bikandiren *Azalerako ipuinak* tailerra antolatu du 0-2 urteko umeendako eta haien familiendako. Saioak izango dira hilaren 16an eta 30ean eta ekainaren 6an, 17:30ean. Izen-ematea zabalik da.



# Punta-puntako marken aldeko apustu garbia

Apirilean gehien saldu diren bost autoetatik hiru Arrasateko Udalaizt Autoak kontzesionarioan aurkitu ditzakezu; maila handiko marken aldeko apustua erabatekoa da, eta etorkizunera begira auto elektrikoetan ere konfiantza handia dute

Geroz eta auto gehiago saltzen ari dira. Datuek ez dute gezurrik esaten. Salmenten hazkundea begi-bistakoa da. Apirilean 74.749 matrikulazio izan ziren Espainian, 2022an baino %8,2 gehiago. Gainera, azken hilabete honetan gehien saldu diren bost autoetatik hiru Arrasateko Udalaizt Autoak kontzesionarioan erosi daitezke. Automobilien eskaintza zabala dute eta punta-puntako markekin egiten dute lan; besteak beste, Audi, Seat, Volkswagen eta Skodarekin. Geroz eta auto gehiago saltzen ari diren garaian, aukera ona izan daiteke Arrasateko Udalaizt Autoak kontzesionariora joatea.



Irudian, apirilean gehien saldu den autoa, Seat Arona. SEAT

## BOSTETIK, HIRU

Apirilean gehien saldu diren bost autoen artean, hiru Arrasateko Udalaizt Autoen eskaintzaren barruan daude: Seat Arona, Volkswagen T-Roc eta Seat Ateca.

Seat Aronaren kasuan, 9.708 matrikulazio izan dira azken hilabeteetan. Seatek 2017an ekoiztu zuen. Egun, modeloaren lehen belaunaldia merkaturatzen ari da Kataluniako enpresa, eta autoa kalitate handikoa da, barrualde modernoarekin. Oso neurri zehatzak ditu, maletategi onarekin eta, orokorrean, itxura urbanoarekin. Autoaren berezitasun handiena da Aronaren belaunaldi berri honetan diesel motorrak desagertu egin direla eta gas natural konprimatuaren aldeko apustua egin dela.

Asko saldu den beste autoetako bat Arrasateko Udalaizt Autoak kontzesionarioan aurkitu dezakezu: Volkswagen T-Roc. SUV kategoriakoa da. Erabiltzaileen esanetan, gidatzeko orduan segurtasuna eta sendotasuna transmititzen du autoak, eta oso kontsumo txi-

kikoa da, oso motor elastikoei esker. Orokorrean, oso auto praktikoa da, eta aurkari askok baino eserleku altuagoak ditu. Maletategiaren tamaina ere egokia da.

Bukatzeko, harrera beroa izan du ere Seat Atecan azken hilabeteetan. Maila mekanikoan motor-sorta zabal batek osatzen du gama, eta 4Drive trakzio integrala eta zazpi abiadurako DSG enbrage bikoitzeko aldaketa automatikoarekin hornitu daiteke. Horrekin batera, kalitate-prezio erlazio bikaina du, markaren bereizgarrietako bat, eta SUV segmentuan dauden beste proposamen batzuen alternatiba interesgarria da. Horrenbestez, deitu, galdetu edo joan Udalaizt Autoak kontzesionariora eta eskatu informazioa. Zure ametssetako autoa zure zain dago.

**APIRILEAN GEHIEN SALDU DIREN BOST AUTOETATIK HIRU, UDALAITZ AUTOAK KONTZESIONARIOAN**

*Zutaz arduratzen gara*

Audi Q2      VW Caddy      VW T-Roc      Skoda Kodlaq      Seat Arona

**UDALAITZ S.L.**  
Gipuzkoa etorbidea 36  
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71  
[www.udalaitz-arrasate.com](http://www.udalaitz-arrasate.com)



# Udalaitz kontzesionarioa: kalitatea, teknologia eta segurtasuna bermatzen

Seat, Audi, Volkswagen eta Skoda marketako autoak dituzte salgai Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioan. Begirada etorkizunera begira izanda, auto elektrikoaren aldeko apustu sendoa egiten dute, horretarako eskaintza zabala izanda

Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioan Volkswagen etxeko marka guztiarekin egiten dute lan: Seat, Audi, Volkswagen eta Skodarekin. Punta-puntako autoak dituzte, eta marka horiek duten berme osoa eskaintzen dute; automobil aukera benetan zabala dute bezeroen eskura. Auto bat erosi gura duen ororen beharretara egokitzen den ibilgailuen gainekoa aholkua ematen dute bertan, betiere, segurtasuna eta kalitatea bermatuz, gidatzean lasaitasun handiagoa izateko teknologia eta gidatze-funtzio berritzaileekin hornitutako autoak eskainiz.

Udalaitzen teknologia aurrerakoen alde egiten dute, etorkizuna horixe dela argudiatuta. Auto elektrikoak errealitate bihurtu dira aspalditik, baina orain, gidari asko hasi dira benetan baloratzen halako auto bat erostea. Aurrerapenak baditu abantailak, eta, etorkizuneko hiriak bizitzeko espazio hobetzat ikusi behar direla azpimarratuta, Udalaitz autoetako gama elektrikoak lehentasun honekin diseinatuta dago: erre-kuntza-motorrek sortzen dituzten gasak murrizteko teknologien alde eginez eta zero isuri dituzten propulsioteknologiak berriak garatuz. "Gure kontzesionarioko marka eta modeloaren arabera, proposatzen ditugun autoen artean azpimarragarriena eta berrietasun nagusi bezala nabarmendu dezakeguna da online zerbitzuak eskaintzen dituztela auto horiek, dituzten beste hainbat ezaugarriekin batera, eta merkatuan geroz eta indar gehiago hartzen ari diren auto elektrikoak direla ahaztu barik", dio Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioko Asier Fernandezek.

## SEAT LEON E-HYBRID

Seat etxeko Leon E-Hybrid berria energia elektrikoarekin eta gasolinarekin funtzionatzen duen ezohiko hibrido bat da. Bateria kargatu daiteke ibilgailua martxan dagoen bitartean, baina entxufatu ere egin daiteke. Auto horrek duen teknologia horri esker, hibrido konbentzional edo elektriko batek baino autonomia handiagoa lortzen du, eta, motor elektrikoari esker, emisiorik sortu gabe gidatu daiteke. 204 ZP ditu, eta 64 kilometroko autonomia elektriko homologatua, WLTP zikloan -zero ingurumen bereizgarria-. Bi karrozeria-ekin dago eskura: garri: bost atekoa eta familiarra (Sportstourer). Erosoa, isila eta azkarrak da, eta oso erregai gutxi gastatzen du.

## AUDI Q4 SPORTBACK E-TRON

Audi Q4 Sportback e-tron berria, berriz, %100 elektriko da, SUV kategoriakoa, autonomia handikoa eta DGTren zero etiketa duena. Aurreko modeloekin alderatuz, karrozeria desberdinarekin, sabai lerro inklinatua goadu, zutabe etzanagoekin, aleroi handiago batekin eta luneta txikiagoarekin. Q4 Sportback e-tron berria hiru motorizazio elektrikoekin dator: 35 e-tron, 170 ZPko motor elektrikoarekin eta 52 kWh-ko bateriarekin; 40 e-tron, 204 ZPko motorrarekin eta 77 kWh garbiko bateriarekin; eta 50 e-tron Quattro, ardatz bakoitzean 299 zaldiko potentzia handiarekin.

**LAU MODELO HORIEK ELEKTRIKOAK DIRA ETA ONLINE ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITUZTE**

tro, ardatz bakoitzean 299 zaldiko potentzia handiarekin.

Kargari dagokionez, modu errazekoa da, eta e-tron compact sistema 26 herrialdeetara hedatuta, 200.000 karga-leku eskaintzen ditu. Etxean ere karga daiteke modu erosoan. Sistema horrek eskaintzen duena baino azkartasun handiagoa behar izanez gero, wallbox sistema ere instalatu daiteke.

## VOLKSWAGEN ID 4

Mugikortasun iraunkorrako batera jauzi egitea pentsatzen duten gidarientzat, Volkswagenek eskaintzen duen VW ID 4 elektriko ere aukera bikaina da. D segmentuko Crossover-a da, 500 kilometrotik gorako autonomia elektriko duena, eta, diseinuari dagokionez, lerro oso arin eta dinamikoak ditu. Gainera, We Connect Go aplikazioa instalatuta Internetera konektatu, eta autoaren kontsumoa kontrolatu daiteke, eta non aparkatu den gogorarazteko aukera du, asistentzia automatikoa ere eskainiz larrialdi egoeran.

## SKODA ENYAQ IV

Skoda markaren lehen SUV-a da ENYAQ IV auto elektriko berria, 204 ZPko potentzia eta 510 kilometroko autonomia du. 4,64 metroko luzera du eta 585 litroko maletategia, markaren indargune eta bereizgarri handienetako bat. Ibilgailuak 0 eta 100 km/h arteko azelerazioa eskaintzen du bederatzi segundoko baino gutxiagoan. Skodak Cockpit instrumentazio sistema birtuala ere eskaintzen du. Abiadura baino askoz gehiago erakusten duen TFT pantaila digitala dauka.



Seat Leon E-Hybrid. UDALAITZ AUTOAK



Audi Q4 Sportback e-tron. UDALAITZ AUTOAK



Volkswagen ID 4 elektriko. UDALAITZ AUTOAK



Skoda Enyaq IV autoa. UDALAITZ AUTOAK





Apirilean, zero kilometroko eta aukerako autoen I. Azoka egin zuten Arrasaten. HYUNDAI OARSO CAR

## Tendentziak argi dituenak, merkatuan hazten

Autoen sektorean aurreikuspen onak dituzte Hyundai Oarso Car-en; izan ere, liderrak dira Gipuzkoako merkatuan eta zehaztuta dituzte zeintzuk diren aukera onenak: "Auto hibridoak eta erosketak malguaren bitartez erositakoak"

Arrasateko Hyundai Oarso Car-en aurreikuspen onak dituzte 2023rako; izan ere, Koldo Biurrun Hyundai Oarso Car-eko zuzendari komertzialaren esanetan, "Hyundai marka batez bestekoaren oso gaitetik hazten ari da eta iaz liderra izan zen salmentetan Gipuzkoan. Hori horrela, aurrera begira ditugun aurreikuspen guztiak oso baikorrak dira eta merkatuak hazten jarraituko duela uste dugu, Hyundai baita salmenten liderra".

### BEREHALAKO ENTREGA

Horren harira, liderrak izaten jarraitu nahi dute, eta helburuen artean markatuta dute merkatuko liderrak izatea, %11ko kuotarekin. Autoen salmenta merkatuarekin jarraituz, ziurgabetasun-egoera ere bada gizaratean, baina Hyundai Oarso Car-en kasua ez dela horrelakoa azpimarratu du Biurrunek: "Automobilaren mundutik kanpoko zenbait faktorek eragina dute fabrikazioan; adibidez, piezen eta mikrotxipen eskasiak. Eta horrek esan nahi du denbora luzez itxaron behar dela erosi-

tako autoa entregatzeko. Hala ere, Hyundaik ez du arazo hori, eta ibilgailuak berehala entregatzen ditugu".

### EROSKETA MALGUA AUKERAN

Auto elektrikoaren eta hibridoaren artean ere badira zalantzak, eta, auto elektrikoak pixkanaka merkatuan lekua hartzen ari diren arren, "gaur egungo benetako alternatiba hibrido entxufagarriak eta hibridoak dira; hala, autoa erosi behar duenari esango nioke erosketarik onena ibilgailu hibrido autobirkargagarriak edo ECO edo CERO etiketa duten hibrido entxufagarriak direla, hurrenez hurren. Izan ere, ibilgailu bat erosteko modurik onena erosketak malgua da. Berria erosi eta hiru edo lau urtez autoaz gozatu ostean eta epe hori igarotakoan, bezeroak erabakitzen du beste auto baten truke aldatu nahi duen; adibidez, auto elektriko hartu edo itzuli. Horrela, bezeroa lasai dago merkatuak edo teknologiak eman ditzakeen aldaketan aurrean, eta hilean ordaindu beharreko kuota baxua da, 200 eurotik hasita".

## Grupo Easo Motor: Ford eta Hyundai aukeran

Familiei zuzenduta, egunerokotasunerako zein bidaiak egiteko Ford Tourneo Connect autoa proposatzen du Grupo Easo Motorrek. Horrez gainera, iaz Espainian gehien saldu zen autoaren aldeko apustua ere egiten du: Hyundai Tucson

Ford Tourneo Connect berria erabat berrasmaturata dator. Estilo dinamikoarekin eta gidatzeko esperientzia erabat digitala eskaintzen du. Balioanitz da, familiarentzat izan daitekeena, baina, aldi berean, lanerako, egunerokotasunean erabiltzeko aproposa, Grupo Easo Motorren arabera. "Behar guztiak asetzeko pentsatuta dago: espaziosua da, erosotasuna bermatuta du eta errendimendu handiko ibilgailua da. Bost edo zazpi plaza izan ditza, eta, diseinuari dagokionez, estetika berria du aurreko modeloekin alderatuz". Horrekin batera, deportiboagoa da kan-

potik, eta barnealdea, berriz, zabala eta dotorea du.

### ESTATUAN SALDUENA

Ford Tourneo Connect berriaz gain, Espainian iaz gehien saldu zen auto modelo ere proposatzen dute aukera gisa Oarso Car-en. Hori horrela, gidari guztien artean arrakasta izatera eraman duten hamar gako

**"ARRAKASTA IZATEN ARI DIRA FORD TOURNEO CONNECT ETA HYUNDAI TUCSON"**

adierazi dituzte: "Ibilgailu funtzionala da, erabilera guztietarako; zabala eta eroso da; malletegi handia du, nahi duzun guztia eramateko; gidatzen laguntzeko sistema aurreratuena izanda, segurtasuna bermatuta dago; diseinu erakargarria du; fidagarria da, Tucson tailerretik gutxien pasatzen den ibilgailua da eta; berehala entregatzen dugu autoa eta 5 urteko bermea ematen dugu, kilometro-mugarik gabe; bezeroen baldintza zorrotzenak betetzen ditu; 2023an ere indarrean dauden deskontu bikainei esker prezio onean erosi daiteke; eta motorretan aukera zabala du".



Ford Tourneo Connect. FORD EASO MOTOR



Hyundai Tucson autoa. HYUNDAI OARSO CAR





**Zatoz ezagutzera!**

# Easo Motor Arrasate

Ibilgailu berriak  
Aukerako ibilgailuak  
Saldu osteko zerbitzua  
Ordezko piezak  
Karrozeria baimendua



Hyundai I30  
KLASS TGDI 120 CV



130€/hilean\*

Ford  
KUGA



299€/hilean\*

Hyundai KONA  
MAXX TGDI 120 CV



150€/hilean\*

Ford  
TOURNEO CONNECT



334€/hilean\*

Ford  
PUMA



199€/hilean\*

Hyundai TUCSON  
Klass T-GDI 150 cv



399€/hilean\*

San Andres, 6 · 20500 Arrasate

673 802 884



[www.grupoeasomotor.com](http://www.grupoeasomotor.com)



Easo Motor



HYUNDAI  
Oarso Car





Zubikoa kiroldegiko sarrera. O.E.G.

## Mugiment txartelarekin bat egin du Zubikoak

Txartela birtuala da eta Zubikoa kiroldegiko abonatuak aukera ematen die Mugiment kirol txartelera batu diren Euskal Autonomia Erkidegoko beste herrietako kirol instalazioak erabiltzeko; Oñatikoak ere erabilgarri egongo dira kanpokoendako

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Mugiment kirol txartelaren ekimenera batu da Zubikoa kiroldegia, eta horrek esan gura du hango abonatuak diren herritarrek proiektu horretara atxikita dauden Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batzuetako kirol instalazioak ere erabil ditzaketela. Eta, era berean, hemengoak erabilgarri egongo dira ekimenaren barruan dauden abonatu guztiendako. Hau da, Oñatiko abonatu bat Durangoko kiroldegira joan daiteke, gastu gehigarriarik barik, edo Azpeitiko bat, adibidez, Zubikoara.

### Zerbitzu jakinak bakarrik

Gaur egun, Mugiment kirol txartela EAeko 150 kirol instalaziotan baino gehiagotan erabil daiteke, kiroldegiak, frontoiak eta igerilekuak barne. Ekimenera atxikita dauden herrietako abonatu guztiak sar daitezke gune haietara; euren herrietako kuotaren prezioaren barruan sartzen da zerbitzua,

ez dute gehiago ordaindu behar. Hori bai, udal bakoitzak erabakitzen du kirol instalazioetako zein zerbitzu jarri erabilgarritasun horretara eta zein ordu-tegi izango duen bakoitzak. Eskuko telefonoan *Mugiment* aplikazioa instalatu behar da kirol instalazioetara sartzeko, eta zein herritan zein zerbitzu eta noiz erabil daitekeen ere telefonoan bertan kontsulta daiteke.

Oñatin, esaterako, Zubikoako bost instalazio hauek erabil ahal izango dituzte: igerilekuak -07:30etik 12:00etara-, fitness gela -07:30etik 16:00etara-, boulderra eta rokodromoa -07:30etik 16:00etara- eta tenis eta squash kantsen alokairuak. Txartela

**BAZKIDEAK EZ DU GEHIAGO ORDAINDU BEHAR, ETA BAI APLIKAZIOA JAITSI, ERABILTZEKO**

bera birtuala da eta eskuko telefonoan *Mugiment* aplikazioa instalatu behar da atxikitako kirol instalazioetara sartzeko.

### Lau urterako hitzarmena

Gero eta gehiago dira *Mugiment* kirol txartelera atxikita dauden herriak; tartean, bailarako Oñati, Arrasate eta Bergara. Oñatiko Udala 2020an batu zen ekimen horretara, Zubikoa kiroldegian obrak egiten ari ziren bitartean, eta berriz sinatu du hitzarmena. Lau urte iraungo du, beste lau urtez luzatzeko aukerarekin. Udaleko Kirol batzordeak jarraitzea egingo dio zerbitzu horren erabilpenari eta herriko bazkideen erabilpeneari izan dezakeen eragina neurtuko du.

Apirileko ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, *Mugiment* kirol txartelaren proiektura atxikitzeke Oñatiko Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

## Iruzur saiakerak jakinarazteko abisu eman du Udaltzaingoak

Gertatu dira bizilagun batendako pakete bat uztearen truke dirua eskatzea eta dena gezurra izatea

### O.E.G. OÑATI

Oñatiko Udaltzaingoak jakinarazi duenez, azken egunetan iruzur saiakera bat baino gehiago izan dira herrian, guztiak modu berean egindakoak, eta horrelako egoera baten aurrean adi jokatzeko eta Udaltzaingoa horren berri emateko dei egin gura die herritarrei.

Hau da errepikatu izan den egoera, Udaltzaingoak baieztatu duenez: kirol arroparekin eta biserarekin jantzita doan 45 eta 50 urte bitarteko gizon tximadun eta euskal hiztun bat herriko etxe edo denda batera joan, bizilagun batendako pakete bat duela esan eta han uzteko eskaera egiten du. Paketea jasotzen duenari diru kopuru bat eskatzen dio -30 euro, kasu batean-, jasotzean ordaintzekoa dela esanez. Paketea zuzentzen zaion pertsona iristean konturatzen dira

iruzurra dela, pertsona horrek ez baitu ezer eskatu.

### Txanda ere abisatuta

Udaltzaingoa jakinarazi duenez, oraindik ez dute horrelako iruzurren salaketarik jaso, "ordaindu behar dela ikustean jendeak susmoa hartzen du-eta, normalean", baina bai jakinarazpena gertatu dela. Horrelako kasuetan berehala Udaltzaingora deitzeko dei egin dute, eta, posible bada, pertsona horrek erabiltzen duen furgonetaren matrikula apuntatzea, ibilgailu mota horretan mugitzen da-eta batetik bestera.

Udaltzaingoa harremanetan jarri da Txanda herriko dendarien elkartearekin, eta horren berri eman die; hala, horrelako egoeraren bat gertatzen bada euri deitzeko esan die. Herritarrei ere berdin jokatzeko esan gura die.

## Herri programa aurkeztuko du EH Bilduk eguaztenean

Datorren agintaldirako "bide-orria prest" du Oñatiko EH Bilduk eta horren aurkezpena egingo dute eguaztenean, Eltzian, 18:30ean. "Udaletik landu" gura dituzten egitasmoak eta lan-ildo nagusiak aurkeztuko ditu: "Zehazki, oñatiarren bizitza duinak bermatzeko sei egitasmo eta egungo erronkei erantzuteko bederatzi lan-ildo".

## Atzo ezkerro zabalik dago berriro ere Ongi taberna

Martxoaren 25ean itxi zuten taberna, 35 urteren ostean, Mikel Bolinagak eta Belen Martinek, eta atzo, eguna, zabaldu zuten arduradun berriek: Iraipe Hoteles enpresak. Apirilaren 1etik kudeatzen du hark hotela, baina taberna itxita egon da azken sei asteetan eta atzo zabaldu zuten berriz. Betiko zerbitzariak ibiliko dira lanean.

## Urgaineko jolasgunea eraberritzeko lanak hastear daude

Hilaren 15ean hasiko dituzte Urgain-Errekaldeko jolasgunea eraberritzeko lehen faseko lanak. Hiru esku-hartze egingo dituzte orain: patio ondoko udal jabetzako lursaila jolasgunean integratzea, kirol zelai asfaltatuaren azalera gogorra murriztea eta euri uren kanalizazio egokia egin, eta, hori probestuz, jolas eremu berritzailea sortzea.

## Gertuko historiaz arituko dira Esperientziaren Gelan

Herrialdeetako historiaz baino gehiago, gertukoaz, herrikoaz, berba egingo dute asteazkenean Esperientziaren Gelan. Parrokien historian murgilduz, historia txikiak egiteko informazio-iturri baliagarriak diren iritzia partekatuko du Aintzane Ezkiaga Artearen Historian lizentziatuak. Santa Anan izango da, Goienagusirekin, 10:00etan.



# Proiektuekin segitzen du Hermansoloñak

Argentinako Jose C. Pazera eta Jujaira laguntza bidaltzen jarraitzen du, baita Saharako kanpamenduetara ere. Arropa biltegia itxita dago baina proiektu horiekin lanean jarraitzeko gogoia duela berretsi dute kideek urteko ohiko batzarrean

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urteko ohiko batzar nagusia egin zuen Hermansoloña elkartean elkarrekin joan den astean, eta, aurreko urteko lanak eta diru kontuak erreparatu ostean, aurtengo zereginak ere onartu zituzten joandakoek: Argentinan eta Saharan dituzten proiektuei laguntzen jarraitzea.

## Altuberen ondoren

1997an hasi zituzten harremanak Argentinako Jose C. Paz herriarekin. XIX. mendean Zubillagatik Argentinara joan zen Jose Altube oñatiarraren ondorioz egin zuten anaitzea, "hark han ze lan egin zuen ikusita". Egun, hango hiru elkartarengana bidaltzen dute laguntza: hango parrokiara, umeak zaintzen dituen fundazio batera eta Toki Eder euskal etxera. Eta Argentinan berruan, baita Jujui eskualdean bizi den Luis Arregi oñatiar erlijiosoari ere. "Hark ere jende pobreakin egiten du lan, eta hara ere laguntza bidaltzea eskatu zigun, posible bazen, behintzat, eta horrela egiten dugu", dio Hermansoloña elkarteko Jose Antonio Urteagak.

Gaur egungo laguntza ekonomikoa da, gehienbat. Duela urte batzuk arte, arropaz betetako kontainerrak bidaltzen zituzten,



San Jose Providenteren egoitzan materiala deskargatzen. HERMANSOLOÑA

baina trabak jarri zizkieten aduanan, eta ezin dute bide horretatik ezer bidali.

## Egoera onekoak helarazi

Argentinara ez ezik, Saharara ere jarraitzen dute laguntza bidaltzen. "Oñatin bizi den saharar komunitatearen bitartez egiten dugu hori. Euren bitartez harreman zuzena dugu kanpamenduko agintari batekin, eta hara bidaltzen diegu; esaterako, umeek eskolarako behar duten materiala, papera edo amantalak, eta bestelakoak. Haiek antolatzen

dira, guk lagundu egiten diegu bakarrik".

Arropa biltegia itxita dago, baina Hermansoloña jarraitzen du, modu batera edo bestera, lehengo proiektu horiei eusten. "Egun, ez dugu arroparik jasotzen, baina egoera onean dagoen zerbait izanez gero –koltxoak, ume-karroak, umeak ibilgailuetan eramateko aulkiak...– gurekin harremanetan jar daitezke, beharra dutenei helarazteko", dio Urteagak, eta Hermansoloña elkarteak lanean jarraitzeko gogoia duela gaineratu du.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

## Polita politika

Oinarrizko eskubidea delako, perspektiba galdu dugu, eta, politika egitea eta administrazioa nahastuta, zenbait politikariren egiteko okerrak bere onetik aterata, politika mundu itsusi bat bezala ikustera ailegatu gara. Baina politika zerbait ederra da; are eta ederragoa, agintea Herrian oinarritzen denean. Gurean gizarte proiektu ezberdinak eta kontrajarriak ere lehiatzen dira gure boto bila. Baina, batzuetan, alderdi politikoak, ezker abertzalea, bereziki, modu totalitarioarekin identifikatu dute. Gogora ekarri behar duguna zera da: botoek zenbat balio duten, botoak zelan kontatzen ditugun eta ordezkariak zer baldintzatan karguak hartzen dituzten, definizioan denok bat gatzela. Eta hauteskundeak galdu dituztenek, negarrez bada ere, irabazleari lekua utzi diote. Hori mundu guztian gertatzen dela ezin dugu esan. Joko politikoa, makillajea kenduta, gurean polita da. Animo izena zerrendetan eman dituzten guztiei! Ez da erraza denen aurrean aukera politikoetan nabarmentzea; are eta gutxiago, herrigintzan parte hartzea eta herritarrek hala erabakita denen zerbitzurako urteak ematea.

## Jaietan parte hartzeko dei egin du San Migel Txikiko batzordeak

Egitaraua oparoa da eta denetariko ekintzak egongo dira egubakoitzetik domekara bitartean ohiko espazioan

## O.E.G. OÑATI

Urtea hasi eta aste pare batera hasten dira San Migel Txiki jaietako batzordeko kideak bilerak egiten, astean behin, festak antolatzeko, eta egunero batu dira aste honetan, dena ondo lotzeko. Azken urteetan batzordean ez dute aldaketa askorik izan; jende faltan daudela ere badiote egungo kideek, beste hainbat ekimenetan gertatzen ari den moduan, baina aurrean ere saiatu dira denen artean egubakoitzetik domekara bitarteko egitaraua osatzen, gura

zituzten denak ez dituzten arren antolatu. Diote auzotarren, komertzioen, tabernen eta Udalaren inplikaziorik gabe zaila dela horrelako ekintzak antolatzeko eta helburua hurrengoak egin ahal izatea izaten dela. Horrela, guztien parte-hartzea beharrezkoa dela ikusten dute eta gonbidapena egin diete auzotarrei batzordeko kide izateko edo antolatzen laguntzeko, ekintzetan parte hartuz eta auzoko komertzio eta dendetan kontsumituz, adibidez, "auzoa bizirik mantentzeko".

## EAJk aurkeztu du zerrenda

Hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du EAJk. Amaia Erostarbe izango da alkategaia, eta "talde sendoa" dutela adierazi du. Hauek izango dira hurrengo hamar kideak: Xabier Mugarza, Itziar Alonso, Eba Gayubo, Jon Kepa Gerrikagoitia, Claudia Valdivieso, Miren Elgarresta, Anjel M. Biain, Mikel Garcia, J.A. Marquez eta M. Jose Etxegoien.







Aitor Diaz, Miren Tatiegi eta Jon Regueiro, igeriketa taldeko kideak. IÑIGO BARRENA

## Igeriketarekin gozatzea, ez dute beste helbururik

lazko urrian erabaki zuten taldea osatzea eta entrenamenduak hasia. Martitzen eta eguen iluntzeetan elkartzeko dira; lehiatzeko helbururik ez duten arren, lan-saio serioak egiten dituzte. Bakoitzak dituen gaitasunen arabera sailkatzen dira

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI  
Oñatin betidanik egon da igeriketarekiko lotura estua, eta, egun, lotura horrek indarra izaten jarraitzen du harrobiri esker. Adinean aurrera joan ahala, ordea, beste lehentasun batzuk izaten dira bizitzan, eta gustuko hainbat alde batera uzten dira. Hori dela eta, Oñatiko gazte talde batek gustuko

duen horrekin –igeriketa– berriz gozatzea erabaki du: taldetxo osatu dute.

Hamabost kidek osatzen dute eta gehienak igerilari ohiak dira, baina badira igerian ibili ez direnak ere. "Hemengo batzuk uretako zeharkaldiak egiten aritzen ginen eta hori entrenatzeko elkartzeko ginen, baina inongo seriotasunik gabe;

iazko maiatzean hasi ginen denon artean hitz egiten taldea sortzeko, baina, kiroldegian baimenak eskatu eta tramiteak egiteko epeak ikusita, ikasturte berriarekin batera hasia erabaki genuen", adierazi du Miren Tatiegi taldekideak.

Iazko urria ezkerrean elkartzeko dira, martitzen eta eguen arratsaldeetan entrenatzeko, baina

helburua bestelakoa da: gustuko duten kirolarekin gozatzea. "Taldean gauden asko bakoitza bere aldetik etortzen zen entrenatzera, eta ikusi genuen taldean etorri gero beste gainera batekin arituko ginela; gainera, oso polita da elkarren artean sortzen den harremana", dio taldekide Tatiegik.

**Entrenamenduak, euren esku**  
Gehienak igerilari ohiak izanik, entrenamenduak osatzearen ardura haiena izaten da eta bakoitzaren gaitasunen arabera antolatzen dituzte. "Entrenamendu dinamikoak eta ordubetan amaitzekoak egiten ditugu. Hiru kaletan banatzen gara, bakoitzaren abiaduraren arabera, eta serie bitartez lan egiten dugu. Hori bai, bakoitzak daki noraino eman ahal duen eta horren arabera ere moldatzen ditugu", adierazi du Aitor Diaz taldekideak.

Sei hilabetez lan egiten dihardute eta Diazek azpimarratu du hasierako diferentziak "nabarmen" murriztu direla igerilari ohiak zirenen eta igeri egiten ez zutenen artean.

Gainera, Aitor Diazen kasua berezia da, federatuta jarraitzen du eta. Bere kontu entrenatzen ibiltzen zen arren, Diazek eskertu egin du taldearen sorrera, modu horretara seriotasun handiagoarekin lan egiten duelako. "Ikasketak eta lanak medio, urteak pasatu dira taldean entrenatzen ez nintzela, eta, hain zuzen ere, taldea sortzea eskertu egiten dut; izan ere, oso gogorra zen bakarrik entrenatzera etortzea; horrez gainera, igeri egitea baino urrunago doa hau, talde baten parte izateko aukera ematen du", dio Diazek.

**Gozatu eta ikasi,aldi berean**  
Guztien artean bakoitzaren maila hobetzea eta teknikoki ikastea da asmoa; igerian egiten ez zutenen kasua da hori. Jon Regueiro da haietako bat, eta hobetzeko asmo horrekin ekin zion: "Ni inoiz ez naiz ibili igerian entrenatzen hemengo gehienak aritu diren bezala; orduan, hasieran ze maila zegoen ikusi eta ni noraino heltzeko gai nintzen ikusi beharra nuen".

Behin beldur horiek alde batera utzita hilabeteetako lanak fruituak eman dituela gaineratu du Regueirok: "Hasiera gogorra izan zen, kilometro pasatxo egiten zutelako eta nik kilometroaren bueltan ibiltzen nintzelako. Gutxinaka, erritmoa hartzen joan naiz, eta gustura ari naiz. Gainera, teknika aldetik hobetzeko ere balio izan dit, eta, era berean, erresistentzia ere hobetu dut denbora honetan guztian."

**Probatzeko gonbidapena**  
Taldeen parte hartu nahi duenarentzat zabalik daude ateak, nahiz eta igeri egiten jakitea edo maila bat izatea ezinbestekoa den. Taldekideek ere gonbita egiten diete herritarrei. "Nahiz eta igerian ez ibili, probatu eta ondoren erabaki jarraituko duzun edo ez", adierazi du Regueirok. "Guztiok gustuko dugun kirol batekin gozatzeko aukera paregabea dela uste dut; orduan, animatu eta probatu", gaineratu du Diazek.

**MARTITZEN ETA  
EGUEN ILUNTZEETAN  
ELKARTZEN DIRA  
ENTRENAMENDU  
SAIOAK EGITEKO**

## HFTk baditu txapelak

Liga Txapelketa Albok taldeak eraman du aurrean. Txapelketako klasikoak diren bi talderen arteko finalean, Sasquatch 2-0 menderatu zuten. Kopako finalean, berriz, Sarutobi eta Tutelatrakuk 2-2 berdindu zuten eta penaltietan erabaki zen txapelak; hain zuzen ere, Sarutobi atera zen garaile. Lehen urtea eta lehen kopa eurentzat.



MIREIA BIKUNA



OIHANA ELORTZA





# DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.  
943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



# "Borrokaldiaren aurretik beldurra sentitzen dugu"

ANDONI MUJIKA KUDO BORROKALARIA

**BORROKA ARTEAK** Bergarakoak Munduko Txapelketa jokatu du maiatzaren 13an eta 14an, Japonian. "Lan handia egin dugu eta segundo gutxitan erakutsi behar da"

**Xabier Urzelai** BERGARA

Andoni Mujika (Bergara, 1997) bihar, zapatua, abiatuko da Bartzelonara. Han batuko da Espainiako selekzioko ordezkari Adria Sierra eta David Ruiu borrokalariekin, eta astelehenean hartuko dute Tokiorako bidea.

**Borroka arteen sorterrian duzue Munduko Txapelketa.**

Bai, Japonian sortu zen kudo borroka artea, eta jakinekoea da hango selekzioa oso indartsua dela. Ea zozketan ze selekzio egokitzen zaizkigun.

**laz, Erroman, bigarren sailkatu zinen Europakoan. Jarri diozu zeurre buruari helbururik?**

Egindako lana erakutsi nahiko nuke, horrekin gustura geratu. Erroman lortu nuen, bi borrokaldi irabazi nituen eta finalean lehenengo roundean berdindu eta gero, bigarren epaileen erabakiz kontrarioak irabazi zuten puntutara. Baina dena eman nuen eta gustura geratu nintzen.

**Segundo gutxian hilabeteetako lana erakutsi behar...**

Borrokaldiak hiru minutu irauten du, baina posible da egindako lana pikutara joatea segundo gutxian. Min hartu duzulako, kolpe on bat eman dizutelako... Nahiz eta borrokaldian aurretik joan, ez da komeni larregiko



Andoni Mujika. GOIENA

konfiantzarik izatea. Segundo bat nahikoa da galtzeko.

**Hasi zara presio hori sumatzen?**

Bai, eta normala da. Hori kudeatu egin behar da, eta horretarako prestatu egiten gara.

**Gauza bat da gogor entrenatzea. Eta beste bat aurrean daukazunaren aurka borroka egitea.**

Bai, gauza ezberdinak dira. Karatetik eta jiu-jitsutik dator, eta borroka arte horiek ez dira horren gogorrak. Kudoa borroka arte osoa da: ukabilkadak, ostikadak, giltzak, buruaz kolpeak... Borrokaldiak KO-ra dira, nahiz

eta posible den kontrarioak amore ematea, edo puntutara irabaztea. Posible da min hartzea. Ez, hobeto esango dut, badakit min hartuko dudala, eta horrek beldurra ematen du. Onartu egin behar da sentimendu hori: jendeak ez du esaten, baina borrokaren aurretik beldurra izaten da; bestela, psikopatak izango ginateke. Min fisikoari beldurra hor dago, baita norberaren maila ezin erakusteak sortzen duen beldurra ere.

**Borroka arte batzuk izugarri hazi dira; esaterako, MMA.**

Bai, eta hori ona da, jendeak normaltasunez ikus ditzan kirol horiek. Normala iruditzen zaigu 22 pertsona baloi baten atzetik ostikoka ikustea, barneratu egin dugulako. Bada, irakasle bat borroka arteetan lehiatzea era normala da, edo psikologoak, edo erizainak. MMA, kudoa... ez dira kirol jarduera biolentoak, baina bai, borrokaldi batean agresibitatea dago. Zorrotz jarraitzen diren arau batzuen barruan, serio entrenatu ostean, eta kontrarioa errespetatuta.

**Bestelako borroka arteetan lehiatzeko asmorik bai?**

Badut asmoa MMAko borrokaldietan esku hartzeko. Baina helburu bakarrarekin: han ikasitakoa gero kudora eramateko.



Mondrako neskek Hernaniren kontrako partiduan, 2017an. GOIENA

## Mondrak erabaki du emakumezkoen taldeak izatea

**FUTBOLA** 6 urteren ondoren, Leintz Arizmenditik irtengo dira; gazteak klub zuri-morera erakarri gura dituzte

**X.U. ARRASATE**

Mondrak emakumezkoen saila sortzeko erabakia hartu du, eta harrobiko hainbat kategoriatan taldeak izateko lanean hasi da. Apustua da, eta badi-tu arriskuak, egonkortutako proiektu batetik irtetea dakar eta; alegia, Leintz Arizmenditik. Hain zuzen, Leintz Arizmendi 2017an sortu zuten Arizmendi Ikastolak, UDAk eta Mondrak. Beharretik sortutako ekimena izan zen, klubetan emakumezko jokarien hutsunea zutelako, bereziki.

Proiektua gauzatzeko, batekoek eta besteok alde batera utzi behar izan zituzten hainbat eskaera, klub ikuspuntutik lan egin beharrean bailara ikuspuntua izatera pasa ziren denak, eta 2019an oñatiarrak batu ziren egitaspora -Bergarak urte haue-tan guztietan klub moduan jarraitu du lanean-.

Irailetik aurrera, baina, Mondrak bakarkako bideari ekingo dio. "Azken urteotan gurasoen partetik jaso dugun eskaera bati erantzuna ematera gatzok: jokariak batera eta bestera ibili beharrean, haiek Mojategin entrenatzea eta jokatzeko nahi dugu", adierazi du Xabier Etxeberriak, Mondrako presidentek.

**Desadostasunak egon dira**

Etxeberriak gaineratu du erabaki hori hartzeko pisuzko arrazoiak izan ez badira ere, egon direla eragina izan duten bes-telako kontuak ere: "Proiektua abian jarri zenean adostasun batzuetara iritsi ginen; esaterako, partiduak Mojategin jokatzeko. Eta, urteak aurrera joan ahala, gauzak aldatzen joan dira. Uler-tzen ez ditugun gauzak dira horiek, eta, erabakigarria izan ez bada ere, halakoek ezinezona sortu dute klubean".



Realaren eta Gironaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Real-Girona norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek.

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida maiatzaren 13an izango da.

Parte hartzeko azken eguna: maiatzaren 8a

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



**1.** Aplikazioa deskargatu.

**2.** Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

**Gertu.** Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena" kide

**Okm:** batzen gaituen distantzia



# Talde inklusiboarekin lan egiteko hitzarmena MUK

**ERRUGBIA** ARTk eta MUKo Hezkuntza Zientzien Fakultateak hitzarmena sinatu dute talde inklusiboko jokalariei, entrenatzaileei, dinamizatzaileei eta gurasoekin lan egiteko. Taldeko kideak orientatzeko eta lan egiteko tresnak garatzeko izango da baliagarria

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Badira lau urte Arrasate Rugby Taldeak inklusiboaren aldeko apustua egin zutela. Taldea osatu eta lehenengo entrenamendu saioak egitearekin batera, baina, pandemia tarteko bertan behera utzi behar izan zuten egitasmoa. Hazia, baina, ereinda zegoen, eta egoera normaltasunera bueltatu zenean ostera ere berrekin zieten entrenamendu saioei. Hala, gaur egun 30-35 laguneko taldea batzen da domeketan Mojategin, elkarrekin entrenatzeko asmoz: jokalariei, senior mailako kideak, desgaitasunen bat duten jokalariek eta gurasoek. Etorkizunean Bultza ligarako taldea sortzea dute amets, baina pausoak banan-banan eman behar dira.

## MUK eta ARTk hitzarmena

Egin beharreko bide horretan aurrerapauso bat eman berri dute, MUKo Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin hitzarmena sinatu berri du-eta ARTk. Eta horrekin lortu gura dutena da talde inklusiboko partaideentzako lagungarri izan daitezkeen orientatzeko metodo eta tresnak garatea. "Downen sindromea, espektro autistako nahasmen- du mailak, garuneko paralisia



Inklusibo taldearen lehenengo entrenamendu saioetako bat, 2019an. GOIENA

eta zehaztu gabeko beste desgaitasun batzuk dituzte taldekideek", dio ARTko ordezkari Ramon Barrutiak. Hori dela eta, adierazi du adituak behar dituztela jokalariei, dinamizatzaileei, entrenatzaileei eta gurasoiei laguntza eta orientazioa emateko.

Barrutiaren arabera, errugbian ingurune positibo eta dibertigarrietan jokatzuz gozatu ahal izango duten lagun taldeak sortzeko helburua du ARTk, non taldeko kideek garapen kognitibo indibiduala izatea

nahi den kirol kolektibo baten barruan, baita garapen fisiko eta erlazionala ere.

Nagore Ipiña MUKo dekanok, berriz, hitzarmena sinatzera-koan nabarmendu du ikasleentzako akademikoki zein pertsonalki esanguratsuak diren ekintzak aurrera eramateko aukera emango diela hitzarmenak: "Gainera, ikasleen esku-hartzeak burutzeko aukera bat ere ekarriko du proiektuak; horren adibide da aurten hainbat ikasleek ARTn gauzatu duten ikas- kuntza zerbitzua".

## FUTBOLA Aloña Mendik liderra hartuko du domekan: Eibar

Jaitsiera postuetatik irteteko geroago eta aukera gutxiago ditu Aloña Mendik, eta domekan kontrario gogorra izango du aurrean, Eibar (16:30). Debagoieneko beste hiru ordezkariak kanpoan jokatuko dute. Hala, UDAl Vasco mendean hartuko balu, fabore galanta egingo lioke Aloña Mendiri. Oñatiarrek, baina, irabazi egin behar dute.



Odriozola baloiairekin. GOIENA

## ARETO FUTBOLA Bihar, zapatua, Eskoriatzak Jarrilleros hartuko du

Maila nazionalako ligari hiru jardunaldi geratzen zaizkio, eta etxeko ordezkariak ez dute maila izotzeko faserara sailkatzeko aukerarik. Bederatzigarren dagoen Eskoriatzak postu bat gorago dagoen Jarrilleros hartuko du zapatuan (18:30, Manuel Muñoz). Bosgarren dagoen Mondratek, berriz, Bastidan du partidua bihar (17:45).

## Goienakideen txokoa

### MAIATZEKO SARIAK



**Errigorako saskia**  
Parte hartzeko sariaren izena: saskia  
**ERRIGORA**

**Sarrerak**  
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz  
[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Industria Merkataritza produktuak

**Otarrea**  
Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea  
**PARTE HARTZEKO:**  
Posta elektronikoz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOIENAKIDE  
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.  
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzelehen artean egingo da zozketa.  
Indarren dagoen 07/25/2023 legearen arabera, jirarekin dagoen zozketaren bitartez Goiena Foruakoa Tebitzuen bitartez aukeratu behar izango dira. Datu bleibit haren helburu bakarra da norteen dagoen zozketaren garapena. Ekitaldiaren gaineko informazioa, leku, zentratu edo ez dago helbide honetan daturik. [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

## Realaren eta Gironaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**  
Real-Girona norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratu behar beste lagun batek.  
Real Arena futbol zelaiko premium gunatik.  
Partida malatzaren 13an izango da.  
Parte hartzeko azken eguna: malatzaren 8a

**Irabazi bi lagunendako otordua**  
**SORALLUZE JATETXEARI ESKER**  
Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu partel!  
Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 9  
☎ 943 25 05 05 ✉ [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.  
📱 GOIENAKIDE Jotetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**puntua**  
Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

**GOIENAKIDE KUOTA: 65€**  
Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

**goiena kide**  
Okm: batzen gaituen distantzia  
  
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!





Iaz Eskoriatzan ospatu zuten Debagoieneko Trikitixa Eguna. IMANOL SORIANO

# Debagoieneko Trikitixa Eguna bihar Elgetan

Gatzagakoak izan ezik, eskualdeko herri guztietako trikitilariak eta pandero-joleak elkartuko dira aurten Elgetako eskolak antolatu duen egun osoko jaiari parte hartzeko, baita Sorluzeko, Bermeoko eta Legutioko trikiti eskoletako ikasleak ere

## Aitziber Aranburuzabala Juldain

ELGETA

Jaialdi ibiltaria da; iaz, Eskoriatzan egin zuten, eta Elgetako Trikitixa Eskolak hartu du hamazortzigarren aldia antolatze-ko lekukoa. Jaialdiak, batez ere, bi funtzio betetzen dituela adierazi du Elgetako Trikitixa Eskolako irakasle Adolfo Jainagak: "Gure ikasleek ikasgeletan ikasitakoa kaleratzeko modu bat da, eta, era berean, oso baliagarria eskolen artean lan egiteko moduak eta teknikak elkar trukatzeko. Debagoieneko irakasleok eskualdetik kanpoko eskoletan ere jarduten dugu, eta, Sorluzeko, Bermeoko eta Legutioko ikasleek ere jaiari parte hartze-

ko gogoia adierazi dutenez, bada, pozik gonbidatu ditugu biharko jaialdira; izan ere, deialdi zabal da, eta ez bakarrik ikasleentzako, trikitizale askok ere eskatzen digute eta jaialdian gurekin bat egitea".

## Trikitia eta panderoa, bogan

30 urtetik gorako eskarmentua du Jainagak trikitia irakasten; gaur egun, Elgetan eta Eskoriatzan ematen ditu eskolak, eta Debagoieneko eskolak osasuntsu daudela dio: "1985 inguruan sekulako loraldia izan zuten trikitiak eta panderoak Euskal Herri osoan, eta beldur ginen garai hartara mugatuko ote zen, baina, gaur egun dauden eskola

mordoak ikusita, argi dago bolada onak irauten duela. Debagoienean, Leintz Gatzagan izan ezik, herri guztietan daude gaur egun trikiti eskolak. Eskolak ematen hasi nintzenetik hona, irakasteko metodologiari begiratuta asko aldatu da; gaur egun, solfeoa erabiltzen da, gehienbat, eta ikasleen profilarri dagokionez ere aldaketa itzela izan da, emakume musikariek bete egin dute esparrua eta eskola gehienetan emakumeak dira nagusi gaur egun. Gaur egungo ikasleek estimulu eta bestelako aisialdi aukera gehiago dituzte, eta, ondorioz, ordu gutxiago eskaintzen diote trikitia edo panderoa jotzen ikasteari; hala ere, mantendu

## Egitaraua

- **12:00** Kalejira. Trikiti eskola bakoitzak bere aldetik egingo du.
- **13:00** Trikiti eskolen joaldia, Mendizaleen plazan.
- **14:30** Bazkaria, frontoian.
- **17:30** Kalejira erraldoia. Trikiti eskola guztiak elkarrekin.
- **18:00** Ttipika taldearekin erromeria, Mendizaleen plazan. Dantzaldia gidatuko duen dantzari bat izango da.
- **20:00** Triki-poteoa.

egin da su hori, eta horren erakusle da irakasleen kopuruak behera egin beharrean gora egin duela".

## Egun osoko jaialdia

Eguna hasteko, eskola bakoitzak bere aldetik kalejira egingo du, 12:00etan hasita, eta, 13:00etan Mendizaleen plazan batuko dira. "Eskola bakoitzak hiruzpalau pieza joko ditu eta datorren urteko antolatzeoko lekukoa jasoko du eskualdeko eskola batek ekitaldi horretan. 375 lagun -joleak eta haien senitartekoak eta lagunak- elkartuko gara bazkaltzeko ondoren, iaz baino 100 lagun baino gehiago. Arratsaldean kalejira erraldoia egingo dugu, dantzari batek gidatutako erromeria segidan, Ttipika taldearekin, eta tabernaz taberna jotzen ibiliko gara jaialdia borobiltzeko".

## Musika klasikoaz gozatzeko proposamenak

Udaberriko Musikaldia zikloaren baitan, sei kontzertu izango dira, bi asteburutan banatuta

### A. A. J ARRASATE

Hemeretzigarren Udaberriko Musikaldia abiatuko du gaur, egubakoitza, Arrasateko Udalak, aurreko aldien bidetik, musika klasikoan eta lirikoan diharduten formazio profesionali tokia eginda. San Frantzisko elizan eta aurten estreinazkoz Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean izango dira emanaldiak. Kontzertu guztiak doan eta 19:30ean hasita izango dira.

Arrasate Musikaleko Orkestrak zabalduko du egitaraua; Iker Olazabalek zuzenduta, askotariko pieza ezagunak eskainiko dituzte. Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriuma estreinatuko dute bihar Armelle Morvan sopranoak eta Arrate Zubigaray klabezin-joleak, eta domekan lekukoa hartuko du Aitor Biain oñatiarrak zuzentzen duen Aequus Ensemble talde gazteak.

### Datorren asteburuan, beste hiru

Cadenza Quartet eta Duo Samoul Okiñena taldeak auditorium berrian izango dira, hurrenez hurren, egubakoitzean eta zapatuan, eta Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Suhar gizonezko abesbatzak borobilduko du egitaraua domekan, San Frantzisko elizan.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

# KANTARI

DEBAGOIENENKO GAZTETXOAK  
KANTUAN ETA DANTZAN  
ZAPATUAN, 16:00ETAN  
DOMEKAN, 09:00ETAN  
ARRASATEKO SAIOEN ESTREINALDIA

DESCARGA TU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



# 8. ALDIA Kantari

**Arrasate** 2023-04-29

Arizmendi ikastolako Gazteluondo eta Arimazubi gunetako eta Arrasate Herri Eskolako 7 eta 11 urte arteko ikasleak izan ziren zapatuan Kantariren saio berriak grabatzen Amaia antzokian. Maiatzaren 6an hasita izango dira Goiena telebistan ikusgai; astebururo bi saio berri emango dituzte. ARGAZKIAK: IRINA ALVAREZ ETA IMANOL SORIANO





## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

**104. ERRENTAN HARTU**  
**Arrasate.** Igoailua duen etxebizitza behar dugu errentan, desgaitasuna dudalako. Hiru logelakoa behar dugu eta maiatza edo ekainetik aurrera. Telefonoa: 643 48 56 55

## 4. LANA

**402. ESKAERAK**  
**Arrasate edo inguruan.** Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. 621 08 42 81

**Arrasate eta inguruan.** Nagusiak zaintzen eta denetario garbiketarako egiten lan egingo nuke, goizetan, 14:00ak arte. 632 11 44 77

**Arrasate eta inguruan.** Nagusiak zaintzen eta garbiketarako duen neska gertu, astean zehar, goizetan, orduka lan egiteko. Soziosanitario ikaslea naiz. Telefonoa: 631 25 26 67

**Arrasate.** Arrasateko neska arduratsua eta atsegina prest umeak zaintzeko edota nagusiei lagundu edo paseoa ateratzeko. Baita orduka ere. Telefonoa: 695 73 87 95

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu goizetan orduka zaintza edo garbiketarako lan egiteko. Telefonoa: 651 96 78 69

**Arrasate.** Goizetan garbiketarako egingo nituzke. 651 02 03 14

**Arrasate.** Lokal, taberna zein etxebizitza eraikinetan garbiketarako egingo nituzke. Deitu telefono honetara: 608 15 37 07

**Bergara eta inguruak.** Haur Hezkuntzako teknikaria eta graduatua naiz. Haurrak zaintzen esperientzia daukat. Haurrak zaintzeko zein etxeko lan egiteko prest nago. Deitu telefono honetara: 634 42 85 11

**Bergara.** Emakumea prest garbiketarako lan egiteko edota pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Egunez eta gauzez. Telefonoa: 676 14 89 00

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Prestasun osoa. 631 46 07 33

**Debagoiena.** 25 urteko neska nagusiak zaindu eta kalera laguntzeko edota garbiketarako egiteko prest. Baita ospitalean gauak egiten ere. Deitu telefono honetara: 661 31 53 28

**BERGARAKO**  
**JEAN LOUIS DAVID**  
 lle-apaindegirako langilea behar dugu. Esperientzia baloratuko da.  
 943 76 22 48

**Debagoiena.** 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziarekin. 631 79 87 75

**Debagoiena.** 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Sei urteko esperientzia nagusiekin. 722 89 60 36

**Debagoiena.** Asteburuetan edo astean zehar gauzez zaintza lan egingo nituzke. 602 80 15 38

**Debagoiena.** Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo nuke, zaintza zein garbiketarako. 632 19 08 26

**Debagoiena.** Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo nuke, zaintza zein garbiketarako. 632 63 77 38

**Debagoiena.** Asteburuetan eta jaiegunetan zaintza eta garbiketarako lan egingo nituzke, baita orduka ere. 642 49 94 09

**Debagoiena.** Egunean zeharreko jardunaldian, orduka edota gauetan zaintza lan egingo nituzke. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiri guztiak. 612 53 92 72

**Debagoiena.** Emakume heldua, arduratsua eta esperientzia duena, adinekoak zaintzeko eskaintzen da, ahal dela etxean bertan bizi izaten. 642 66 14 74 (Esmeralda)

**Debagoiena.** Emakumea eberrako lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentzia handiduna. Telefonoa: 608 64 33 73

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko prest. Orduka eta baita gauetan ere. Telefonoa: 676 14 89 00

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile naiz eta orduka lan egingo nuke nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketarako. Telefonoa: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Lanean hasteko gertu nago; zerbizari lanetan, pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketarako lanetan. Telefonoa: 611 22 91 37

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak eta umeak zaintzeko edota denetario garbiketarako egiteko gertu. Telefonoa: 642 37 95 87

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke nagusiak zaintzen, paseoa laguntzen, garbiketarako edota etxeko lanak egiten. Telefonoa: 676 14 89 00

**Debagoiena.** Etxeko langile moduan, garbiketarako edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario ikasketekin. 643 73 62 36 edo 643 73 62 83

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzen eta garbiketarako gertu. 603 46 73 95

**Debagoiena.** Garbiketara edo zaintza lanetan jarduteko gertu nago. Telefonoa: 612 27 68 33

**Debagoiena.** Garbiketara lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 603 19 92 52

**Debagoiena.** Garbiketarako nagusiak eta umeak zaintzen edo sukalde lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 654 58 58 69

**Debagoiena.** Garbiketarako nagusiak eta umeak zaintzen edo sukalde lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 641 24 61 95

**Debagoiena.** Garbiketarako nagusiak eta umeak zaintzen edo sukalde lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 656 76 18 70

**Debagoiena.** Gertu nago orduka zein asteburuetan zaintza edo garbiketarako lan egiteko. Telefonoa: 672 78 04 30

**Debagoiena.** Gizon zintzoa lan bila dabil adinekoak zaintzen. Telefonoa: 647 21 03 07 (Raul)

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

## KOMERTZIALA

Oñatin bezeroei arreta pertsonala emateko pertsona behar da.  
 oinati@coinbroker.eus

**Debagoiena.** Mutila gertu taberna, atari edota elkarrekar garbiketarako zerbizari lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612 49 66 57

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen eta garbiketarako lan egingo nuke. Esperientzia dut zaintza. Orduka, egunez edo etxean bertan bizi izaten. 632 43 16 05

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario titulazioa daukat. Telefonoa: 659 90 85 13

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 672 55 67 35

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako gertu. Orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. 612 29 74 89

## ALDIZKARI BANATZAILEA OÑATIN

Goienak banatzailea behar du Oñatiko baserri auzoetan Goiena eta Puntua aldizkariak banatzeko.  
 Autoa beharrezkoa da.  
 943 25 05 05  
 harpidetza@goiena.eus

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako gertu. Orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. 604 88 27 26

**Debagoiena.** Orduka, garbiketara lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. 612 56 12 39

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut orduka zein etxean bertan bizi izaten. 605 02 04 97

**Debagoiena.** Umeak edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 687 04 09 62

**Debagoiena.** Emakumea, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prest. Sorailuzen bizi naiz, autobusa iristen den herrietan lan egiteko prest. Euskara ikaslea. 616 27 97 89

## ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

ENERITZ URRUTIA  
ARRASATEARRA  
EZAGUTZEN

Triatlotoiak egiten ditu, baina irakaslea ere bada: eski eta pandero eskolak ematen ditu.

'Luzapena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



## SOFA TALDEAREN ZUZENKOA

Zarauzko hirukoteak kontzertua egin zuen apirilean, Kooituz Ostegunetan barruan. Osorik entzuteko aukera.

'Kooituz Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00



## ARRASATEKO KANTARI GAZTETXOAK, OHOLTZARA

Artista gazte arrasatearrak izango dira oraingo Kantariko azkenak euren abileziak erakusten.

'Kantari' Zapateria 16:00 eta domeka 09:00

ALOÑA-EIBAR  
PARTIDUAREN  
LABURPENA

Beste final bat oñatiarrendako, mailari eusteko ahaleginean. Oraingoan, liderraren kontra.

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30

GARIKOITZ NAZABALI  
ELKARRIZKETA

EHNE Gipuzkoako presidentea elkarrizketatuko du Goiatz Arana kazetariak.

'Harira' Martitzena, 21:30 eta 23:30

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Korosti

Immobiliaria

Ibergogoi 3 • BERGARA  
 Tol. / Fax: 643 76 97 97  
 www.inmokorosti.com

## BERGARA:

- Zubioena, 95 m<sup>2</sup>, 3 logela, ipogailua, bitzara sartzea. 150.000€
- Zubioena, 65 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasterikoa, bitzara sartzea. 130.000€
- Lekazena, 81 m<sup>2</sup>, 4 logela, ipogailua, bitzara sartzea. 175.000€
- Bordaketa, 65 m<sup>2</sup>, 3 logela, ipogailua, trasterikoa, bitzara sartzea. 175.000€
- Lizaketa, 79 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasterikoa, garaje itxia, bitzara sartzea. 220.000€
- Arasateko, 85 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasterikoa. 174.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Artaketa, 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, bitzara sartzea. 150.000€
- Akasantza, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, trasterikoa, bitzara sartzea. 100.000€
- Baxeriketa, 46 m<sup>2</sup>, erretanetara gertu. 48.630€
- Baxeriketa, 72 m<sup>2</sup>, 3 logela, aparkalekua, lur sarea, sporta-eremua (baxeriketa). 185.000€
- Ensa, 60 m<sup>2</sup>, gela 1, trasterikoa, terraza, bitzara sartzea. 144.000€
- Frankazari, 102 m<sup>2</sup>, 4 logela, ipogailua, eguzkitasun. 179.000€
- Itzar posetiekua, 71 m<sup>2</sup>, 2 logela, ipogailua, bitzara sartzea. 260.000€
- Mozteraketa, 53 m<sup>2</sup>, 2 logela, bitzara sartzea. 148.000€
- Mozteraketa, 75 m<sup>2</sup>, 2 logela, bitzara sartzea. 149.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Mozteraketa, 75 m<sup>2</sup>, 3 logela, berotegia, bitzara sartzea. 150.000€ Negozio-gertu.
- Mozteraketa, 75 m<sup>2</sup>, 3 logela, bitzara sartzea. 105.000€
- Mozteraketa, 86 m<sup>2</sup>, 3 logela, bitzara sartzea. 150.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Mozteraketa, 86 m<sup>2</sup>, 4 logela, berotegia, bitzara sartzea. 150.000€ Negozio-gertu.
- Mozteraketa, 96 m<sup>2</sup>, 4 logela, terraza, ipogailua. 139.500€ PREZIO JEITSIERA.
- Sosantandaketa, 75 m<sup>2</sup>, 2 logela, 2 apartaketa. Bitzara sartzea. 173.000€
- Zubioena, 68 m<sup>2</sup>, 2 logela, bitzara sartzea. 75.000€
- Zubioena, 72 m<sup>2</sup>, 3 logela, garajea aukeran. 130.000€

## LOKALAK:

- A. Finning (jardunegia) 50 m<sup>2</sup>, garajea egiteko aukera. Bi sarrera ditu. 65.000€
- Bidekuruzketa, 364 m<sup>2</sup>, 3 lokal berrak, bi sarrera. Baxeriketa. 95.000€
- Mozteraketa, 114 m<sup>2</sup>, Bidekuruzketa sarrera. Oñateko enbektoretan gabe. 80.000€

## GARAJAK:

- Bela, 16,47 m<sup>2</sup>. Garaje itxia. 25.000€

## OSINTZIA:

- Oñate, 86 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasterikoa, garajea aukeran. Bitzara sartzea. 112.000€
- Oñate, 61 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasterikoa, berotegia. 55.000€
- Oñate, 75 m<sup>2</sup>, 3 logela, terraza, berotegia. 49.000€ PREZIO JEITSIERA.

## BAXERIKETA:

- Angozar, Partiti osua, baxeriketa eta 3 hektaroko lurraldea. 175.000€
- Ubarra, baxeriketa eta 15 hektaroko lurraldea. 320.000€ PREZIO JEITSIERA.

## ANTEZINA:

- Kaleja, 124 m<sup>2</sup>, duplex, 3 logela, garajea, bitzara sartzea. 280.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Baxeriketa, 56 m<sup>2</sup>, 2 logela berrak, bitzara sartzea. 120.000€
- Baxeriketa, 96 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasterikoa eta garajea berrak. Bitzara sartzea. 198.000€
- Baxeriketa osua, baxeriketa berrak, bitzara sartzea. 295.000€
- Baxeriketa osua, baxeriketa berrak, bitzara sartzea. 120.000€
- Kaliberrak, 77 m<sup>2</sup>, berotegia. 51.000€
- Kaleja, etxe osua, bi etxebizitza eta trasterikoa. 120.000€

## BAXERIKETA:

- Andra Mari plaza, 80 m<sup>2</sup>, 3 logela, terraza ederra, trasterikoa. 158.000€



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.



## ESKER ONA

**Ignacio Biain Guridi**

2023ko apirilaren 29an hil zen, 93 urte zituela.

Emaztea: Purita Elgarresta; Maritxu (+); anai-arrebak: Regino (+) eta Juanita (+), Luis (+) eta Sabina (+), Asun (+), Donato (+) eta Rosario (+), Juan eta Maria Angeles (+), Begoña (+) eta Diego (+), Nati (+), Ana Mari eta Juan (+), Patxi, Antonio (+), Maria Luisa (+) eta Luis, Jose Luis; Oñatiko eta Bergarako ilobak eta beste senide guztiak.

Eskerrik asko, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi babesa eta gertutasuna adierazten.

Familiaren izenean, bihotzez besarkada handi bat.  
Bergaran, 2023ko maiatzaren 5ean.

## ESKER ONA

**Angel Alberdi Zabaleta**

2023ko maiatzaren 1ean hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Esker berezia Mizpirualde egoitzako langile guztiei, azken hilabete hauetan Angeli eman diozuen arreta eta maitasun guztiagatik.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko maiatzaren 5ean.

## ESKER ONA

**Jose Ramon Carmona Alonso**

'Mak'

2023ko apirilaren 30ean hil zen, 60 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 5ean.

## OROIGARRIA

**Maribel Orobengoa Lopez**

*Atzo gure ondoan,  
gaur gure oroimenean,  
betiko gure bihotzean.*

Kokoak-eko zure lagunak: Amaia, Inma, Izaskun, Kizkur, M. Luisa, Rosa M., Simo eta Txaro.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 5ean.

## OROIGARRIA

**Miguel Angel Unamuno Gallastegui**

*Hirekin pasatako egunak ez ditugu ahaztuko.*

Aretxabaletako hire kuadrilla.  
Aretxabaletan, 2023ko maiatzaren 5ean.

## OROIGARRIA

**Jose Mari Gastiasoro Arenaza**

2023ko apirilaren 30ean hil zen, 93 urte zituela.

*Boliñako ezkatzean  
ixiltasunaren magalean  
utzi dituzun bihotz bete-beteek  
esango digute aurrerantzean  
pakean zaudela  
maite duzun horren alboan.  
Agur t'erd, tio Joxemari!*

Boliña eta Ariako zure lobak.  
Aretxabaletan (Boliña), 2023ko maiatzaren 5ean.

## OROIGARRIA

**Mila Igartua Egaña**

2023ko apirilaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

*Emaiguzu beti izan duzun indarra  
bizitzari aurre egiteko.*

Beti gurekin, Mila.



Lankideen eta ikasleen partez.  
Arrasaten, 2023ko maiatzaren 5ean.

## OROIGARRIA

**Mila Igartua Egaña**

2023ko apirilaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

*Zubiaurreko osaba-izeba eta  
lehengusu-lehengusina guztien partetik.  
Betirako gure bihotzetan.*

Oñatin, 2023ko maiatzaren 5ean.

## OROIGARRIA

**Mila Igartua Egaña**

2023ko apirilaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

*Mendi magal zein gailurretan,  
udazkeneko hostoen erortzean  
edota loreen loritzean...  
Gu beti zure egarri.*

Igartua Egaña anai-arreba, ezkon anai-arrebak eta ilobak.  
Oñatin, 2023ko maiatzaren 5ean.

## HILDAKOAK

**Pedro Mari Lana Etayo.** Arrasaten, apirilaren 25ean. 91 urte.

**Mila Igartua Egaña.** Arrasaten, apirilaren 27an. 63 urte.

**Antonio Heriz Ezkurra.** Arrasaten, apirilaren 28an. 84 urte.

**Julian Carrasco Muñoz.** Arrasaten, apirilaren 29an. 67 urte.

**Ignacio Biain Guridi.** Bergaran, apirilaren 29an. 93 urte.

**Jose Ramon Carmona Alonso.** Arrasaten, 30ean. 60 urte.

**Jose Mari Gastiasoro Arenaza.** Aretxabaletan, 30ean. 93 urte.

**Ines Maiztegi Arabaolaza.** Oñatin, apirilaren 30ean. 97 urte.

**Maribel Orobengoa Lopez.** Arrasaten, maiatzaren 1ean. 60 urte.

**Miguel Angel Unamuno Gallastegui.** Aretxabaletan, hilaren 1ean.

**Angel Alberdi Zabaleta.** Bergaran, maiatzaren 1ean. 86 urte.

**Antonio Moraleja Aranburu.** Arrasaten, maiatzaren 3an. 93 urte.

## URTEURRENA

**Antoni Elkorobarrutia Gallastegi**

1924-06-13 / 2022-05-07

Urteurrenako meza domekan izango da,  
maiatzaren 7an, 12:00etan,  
Elgetako Jasokundeako Amaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Elgetan, 2023ko maiatzaren 5ean.

**Oroilore**

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gari deitu zuzenean edo, nahigo  
badituzte, jakinarazi zuten asaguru-  
kospainari gurekin nahi dituzela agurtu  
maite dituzena.*

*Marioven, Ibanen eta Maribiren  
partetik, besarkada magikoak  
zuzentzeko, bihotz sendatzeko balo  
duten horietakoak. Guk baditugu gordena  
zuzentzeko, gure beharrik dituzenerako.*

**Mario, Iban eta Maribi**



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



## ZORION AGURRAK



**OÑATI**  
**Elena Arrazola Aranburu**  
Maiatzaren 9an, 5 urte. Zorionak, Elena! Disfrutatu topera zure bosgarren urtebetetze eguna. Muxu potolo bat, maite zaitugun etxeko danan paretik!



**BERGARA**  
**Erik Gartzia Perez**  
Maiatzaren 8an, 12 urte. Zorionak, Erik! Ondo-ondo ospatu urtebetetze eguna! Patxo potolo bat familia guztiaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Laia Rodriguez Alberdi**  
7an, 7 urte. Zorionak! Ondo pasau zure eguna! Muxu eta besarkada erraldoi bat, familia osoaren partetik!



**BERGARA**  
**Erik Beistegi Alvarez**  
7an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, Erik! Segi orain arte bezain maitagarri eta jator. Asko maitte zaitugu.



**ARRASATE**  
**Itsaso Ginart Velez de Mendizabal**  
Maiatzaren 6an, 6 urte. Zorionak, laztana! Egun borobila pasa eta segi bizitzaz gozaten!



**BERGARA**  
**Maria Gonzalez**  
Maiatzaren 5ean, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, maitia. Oso ondo pasa zure eguna!



**ARRASATE**  
**June Andres Lopez**  
4an, 5 urte. Zorionak! Egun zoragarria pasa. Muxu handi bat familiaren partetik. Asko maite zaitugu.



**OÑATI**  
**Ane Urigoien Osa**  
Maiatzaren 3an, 10 urte. Zorionak, Ane! Egun polita pasau, maitte! Patxo handi bat etxeko danon partetik!



**ARETXABALETA**  
**Aimar Loiti Etxeberria**  
Maiatzaren 2an, 3 urte. Zorionak, Aimar! Hiru urteko! Patxo potolo bat familia danaren eta, batez be, Maddiren partetik!



**ARRASATE**  
**Unai Uribeetxeberria Errasti**  
30ean, 4 urte. Zorionak, Unai! Lau urteko bete berri gaurkuen! Alai eta pozik jarraitu bizitzaz gozaten!




**OÑATI**  
**Gari Letamendi Mugarza**  
Apirilaren 29an, 4 urte. Zorionak, Gari! Muxu potolo bat familiaren eta lagunen partetik.



**OÑATI**  
**Lur Retolaza Agirre**  
29an, 3 urte. Zorionak, Lur! Asko maitte zaitugu eta dakotzun energia eta bizipozaz jarraitu!



**ESKORIATZA**  
**Adei, Ekain eta Malen**  
Adeik apirilaren 23an, 2 urteko eta Ekainek eta Malenek, hilaren 28an, 9 urte. Zorionak, hirukote! Egun polita pasau deizuela! Patxo potolo bana etxeko danon partetik! Ilargiraino eta bueltan...



**ARETXABALETA**  
**Aimar Akizu Zabala eta Begoña Uribeetxeberria**  
Aimarrek, apirilaren 25ean 11 urte eta Begoñak, 27an 75 urte. Zorionak bioi eta segi orain arte bezala inguruko guztion bizitzaz alaitzen!



**ESKORIATZA**  
**Jonas Aimar Maturana Sheen**  
Maiatzaren 4an, 5 urte. Zorionak zure familiaren partetik!

**ZORIONTEKO HIRU BIDE**

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.
- Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deltu 943 25 05 05 telefonora.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)**EGUBAKOITZA 5****OÑATI Goieskolaren jolas eta kirol topaketa**

Bederatzi ikastetxe publiko elkartuko dira.  
*Foruen plazan, 10:00etan.*

**ARETXABALETA 'Fotografia de calle y paseo consciente' hitzaldia**

Kazetari eta argazkigintza irakasle Gustavo Bravok egingo du berba.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE Kantu-jira**

Portaloi kultur elkartearen eskutik.  
*Portaloian, 19:00etan.*

**OÑATI San Migel Txiki jaiak**

Besteak beste, txorimaloak, gazta-dastatzea eta 3 Handiak, Very Txarrak eta Neallta Fola taldeen kontzertua.  
*Kale Zaharrear.*

**ARRASATE Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoa**

Udaberri ziklo musikalaren baitan. Debalde.  
*San Frantzisko elizan, 19:30ean.*

**ARRASATE Hirukote eta Dmitry Baevsky**

Arrasate Blues jaialdiaren baitan.  
*Arbolapetan, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Udaberriko kontzertua**

Bandaren emanaldia.  
*Zaldibar antzokian, 20:00etan.*

**BERGARA Lotura eta Ro taldeak**

Sarrerak, zortzi euro.  
*Kartzela zaharrear, 22:00etan.*

**ZAPATUA 6****LEINTZ GATZAGA Makila Korta Fest**

Makilakortara paseoa, bazkaria eta Tatta, Denso, Mutiko eta Youth United taldeak.  
*San Migel plazan, 09:00etan.*

**ESKORIATZA Loratu: azoka**

Loreak erosteko aukera.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.*

**OÑATI San Migel Txiki jaiak**

Besteak beste, umeendako jolasak, mendi bizikleta ibilaldia, meza eta erromeria.  
*Kale Zaharrear.*

**ARRASATE 'Hostoz hosto erantzi' erakusketa: familia tailerra**

5 urtetik gorakoendako. Aurrez eman behar da izena.  
*Kulturaten, 11:00etan.*

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**

11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz. Izenak emateko:  
*Arrasate.eus* edo 943-25 05 00.  
*Herriko Plazan.*

**ARRASATE 'Skaters Event' jaialdia**

Skate libre, jolasak eta profesionalen erakustaldia.  
*Musakolan, 11:00etan.*

**ARETXABALETA Udaberri jaia**

Arizmendi ikastolako Basabeazpi eta Almen gunekoek.  
*Basabeazpin, 11:00etan.*

**BERGARA Ernai kaleko jaiak**

11:15ean, crossfit erakustaldia; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, buruhandiak, jolasak...; 18:00etan, Candem Townen erakustaldia; 19:00etan, musika; eta 20:00etan, DJ Alex.  
*Bergaran.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**

3 eta 12 urte artekoendako. Orduetgia: 11:30-13:30.  
*Erguingo gazte txokoan.*

**ELGETA Debagoieneko Trikiti Eguna**

Bailarako trikitaliak elkartuko dira, egun osoko jaia egiteko. Egitaraua osorik 34. orrian.  
*Elgetan.*

**ARRASATE Txistularien kontzertua**

Arrasate musikaleko txistulariak.  
*Kulturaten, 12:00etan.*

**ARRASATE Iker Martinez Eta Zaldi Herrenak**

Arrasate Blues jaialdiaren baitan.  
*Kajoiko terrazan, 13:00etan.*

**ARRASATE LH-6koei ongietorria**

Jolasak, ginkana eta merienda.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARRASATE 'Orixerekin euskaraz' musika kontzertua**

Donosti Ereski Gregoriar Scholaren eskutik.  
*Parrokian, 19:00etan.*

**ARRASATE Les Sylvains Ensemble taldea**

Udaberriko XIX. Musikaldia.  
*Juan Arzamendi musika etxean, 19:30ean.*

**BERGARA 'Bake lehorra' antzezlana**

Tartean taldearen eskutik. Aitor Borobia eta Aitor Fernandino oholtza gainean. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

**BERGARA Los Sanchos, Lamiak eta Txopet taldeak**

Sarrerak, zortzi euro.  
*Kartzela zaharrear, 22:00etan.*

**DOMEKA 7****ESKORIATZA Atxorrotx Eguna**

Egitarau osoa 16. orrian.  
*Atxorrotxen.*

**ARRASATE 'Gongetako meatzeak-San Luzia ermita' ibilaldia**

Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00.  
*Udala auzoko aparkalekuan, 09:00etan.*

**OÑATI San Migel Txiki jaiak**

Besteak beste, bazkaria, mus txapelketa, Oñatzekoen dantzaldia eta Keia taldea.  
*Kale Zaharrear.*

**LEINTZ GATZAGA 'Hartzaren urratsa': Leintz Gatzaga-Araotz**

Izena emateko: *puntaikpunta@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.  
*San Migel plazan, 09:00etan.*

**BERGARA Ernai kaleko jaiak**

10:30ean, ibilaldi neurtua; 12:00etan, pintxoak; eta 12:15ean, kontzertua.  
*Bergaran.*



**BERGARA Irukurtzeta Eguna**  
11:15ean salda eta txorizoa.  
*Irukurtzetan.*

**BERGARA 'Izaro' ipuin musikatua**  
12:00etan eta 13:00etan.  
*Seminarixoan.*

**ARETXABALETA 'Batetik bestera' haur antzerkia**  
Giza migrazioei buruz hitz egingo duen lana. Sarrerak, hiru euro.  
*Zaraia aretoan, 17:00etan.*

**ARRASATE Mahai-futbol txapelketa**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARRASATE Aequus Ensemble taldea**  
XIX. Udaberri Musikaldiaren baitan.  
*San Frantzisko elizan, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 8

**BERGARA 'Min kronikoa' hitzaldia**  
Goienagusiren eskutik.  
*Irizar jauregia, Bergara 17:30etan*

**ARRASATE Atzerritartasunari buruzko hitzaldi irekia**  
Dokumentuak berritzeaz, familia berriz elkartzeaz, atzerritarren eskubideez... egingo dute berba. Irekia.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**OÑATI Benjamin Picoren erakusketa**  
Margolanak, olioak eta akrilikoak ikusgai, hilaren 21era arte.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

## MARTITZENA 9

**ARETXABALETA Odol ematea**  
Emaila diren guztiendako.  
*Durana kalean, 16:45ean.*

**BERGARA Bertsolariak Mizpirualde egoitzan**  
Ainhoa Agirreazaldegia eta Andoni Egaña, Adin Adin ekimenaren baitan.  
*Mizpirualde egoitzan, 17:00etan.*



TARTEAN

**BERGARA 'Bake lehorra' antzezlan**  
Euskaldunen etorkizuna baldintzatzen duen XIX. mendeko gerra zibil bati buruzko lana, Tartean taldearen eskutik. Aitor Borobia bergarra eta Aitor Fernandino oholza gainean. Sarrerak, zortzi euro.  
*Etzi, domeka, Seminarixoan, 20:00etan.*

**ESKORIATZA 'Familia gatazkak eta estresa kudeatzen ikasteko pilulak' hitzaldia**  
Nerea Mendizabalekin.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Mendi tour' dokumental**  
Sarrerak, bost euro.  
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 10

**OÑATI 'Gure historia parrokiatetik pentsatuz' hitzaldia**  
Aintzane Erkizia egingo du berba, Esperientzia Gelak gonbidatuta.  
*Santa Ana antzokian, 10:00etan.*  
*San Joxepen, 16:00etan.*

**ARRASATE 'Los castillos navarros de Atxorrotx y Arrasate en defensa de Gipuzkoa' hitzaldia**  
Iñaki Sagredo irundarrak egingo du berba.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA 'Los Reyes del mundo' pelikula**  
Sarrerak, hiru euro.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 11

**ARRASATE Sasoibide**  
San Martzial bira egingo dute Bergaran.  
*Autobus geltokian, 09:40ean.*

**ARRASATE Bertsolariak Iturbiden**  
Maider Arregi eta Anjel Mari Peñagarikano Adin Adin ekimenean.  
*Iturbide egoitzan, 10:30ean.*

**ARAMAIO Hilekoaren zikloari buruzko hitzaldia**  
Uxue Urzelairekin, Lorabari Astearen baitan.  
*Sastiñan, 16:30ean.*

**ARETXABALETA Loramendi literatura lehiaketa: sari banaketa**  
Irekoa.  
*Udaletxe zaharrea, 18:00etan.*

**ANTZUOLA 'Etorkizuneko hilerrria, nolakoa?' gogoeta prozesuaren aurkezpena**  
Herritar guztiendako irekia.  
*Olaran etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE Erakusketan bisita gidatuak**  
18:30ean euskaraz eta 19:30ean gaztelaniaz. Aurrez eman behar da izena.  
*Kulturaten.*

**BERGARA 'Show travestia'**  
Albina Stardust eta Divina Komedia bikotearekin. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ARRASATE 36. Arrasate Literatur Lehiaketaren sari banaketa**  
Eneko Barberena izango da gonbidatua.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**20.000 especies de abejas**  
Zapatutik astelehenera:  
19:30.

**Super Mario Bros**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**Los tres mosqueteros**  
Egubakoitza, domeka eta astelehen: 19:30.

**Lau ahizpa magikoak**  
Domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Fatum**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:30.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**20.000 especies de abejas**  
Egubakoitza:  
17:00, 19:30, 22:00.

Zapatua: 11:30, 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 11:30, 19:30, 22:00.  
Astelehena eta eguaztana: 17:00, 19:30, 20:30.

**Asedio**  
Egubakoitzetik domeka: 17:00, 19:30, 21:30.  
Astelehena eta eguena: 20:00.  
Martitzena eta eguaztana: 17:00, 19:30.

#### Guardianes de la galaxia 3

Egubakoitza:  
17:30, 20:30, 21:45.  
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:30, 20:30, 21:45.  
Astelehenera: 17:30, 20:30.

**Hannah y los monstruos**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Las buenas compañías**  
Egubakoitzetik domeka: 17:15, 19:15, 21:15.  
Astelehenera: 17:15, 19:15, 21:15.  
Eguena: 17:00, 20:00.

**Libres**  
Egubakoitza: 17:00.  
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.  
Astelehenera: 17:30.

**Guardiana del bosque (euskaraz)**  
Zapatua eta domeka: 11:45.

**Mi crimen**  
Egubakoitzetik domeka: 17:00, 19:15, 21:45.  
Astelehenera: 17:00, 19:15.

**Guardiana del bosque (jatorrizko bertsiotan)**  
Domeka: 17:00.

**Super Mario Bros**  
Egubakoitza:  
17:15, 19:15.

Zapatua eta domeka: 11:45, 17:15, 19:15.  
Astelehenera: 17:45.

**The lost king**  
Egubakoitzetik domeka: 19:30, 21:15.  
Astelehenera: 20:00.

**Vaya vacaciones**  
Egubakoitza:  
17:15.

Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15.  
Astelehenera: 17:30.

**Los buenos modales**  
Egubakoitza:  
19:15, 21:30.  
Zapatua eta domeka: 11:30, 19:15, 21:30.  
Astelehenera: 19:45.

## KRITIKA

### Fatum

**Zuz.:** Juan Galiñanes. **Herr.:** Espainia (2023). **Aktoreak:** Luis Tosar, Alex Garcia, Elena Anaya. **Iraupena:** 91 minutu.

★★★★★

## Guraso eta seme-alaben arteko loturak

### ANTONIO ZABALA

Sarritan esaten da gurasoak euren seme-alaben onuraren eta babesaren alde edozer gauza egiteko kapazak direla. Ideia hori da *Fatum* filmean kontatzen zaigun istorioaren abiapuntua. Eta edozer gauza egiterakoan muga ipintzeko noraino hel daitekeen kontatzeko suspense-thriller bat egin du Galiñanese. Jolas-areto baten lapurreta bat gertatu da, eta atrakatzailerek barruan dauden pertsonak bahitu dituzte. Bahituen artean familia bat dago. Polizien artean semea gaixo duen polizia bat dago. Lapurretan gauzak konplikatuz joango dira eta bi familien bizitzak eta interesek topo egingo dute. Pelikularen helburua ez da giza dramaren sakontzea, pertsonaien

sentimendu kontrajarrien bidegurutzeak istorioa korapilatzen duten gidoi-biraketen bitartez intriga bultzatzea baizik. Ezohiko egoera batean dauden pertsona normalek konponbide zorrotzak hartzen dituzte, eta, konponbide horien ondorioz, egoera gero eta gehiago tenkatu eta korapilatuko da. *Fatum* thriller entretenigarriak burura ekartzen digu Paco Plazaren *Quien a hierro mata* filma: mendekua ideia erabiltzeko filmaren zati bat ospitalean gertatzen delako eta Luis Tosarrek bi filmetan antzeko pertsonaiak egiten dituelako. Filmak ondo mantentzen du tentsioa, bukaera alderako motz samar geratzen bada ere.





AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

### ... ala hil!

Joan den larunbatean ospatu zen Elorregin *Auzuak ala hil* Bergarako auzoen aldeko egitasmoa. Sanpruk izan ditzakeen anxio-nahi ugariak alde batera utzita –nahiz eta legalki Bergara dela denok jakin, *ejem*–, bertan bizi zen giro bereziari egin nahi nioke erreferentzia.

Orokorrean, auzoen esentzia lurrin-potetxoetan gordetzen da. Ez dut hau esaten ni ere landa inguruan bizi naizelako –*ejem*, barkatu eztula–, baina auzoak badu historikoki herriak ez duen halako intimitate konpartitu bat, auzotarren arteko eskuzabaltasun interesik gabekoa. *As bestas*-etik ere izan dezake zerbait, baina solidaritateak gidaturiko alde positiboa zeharo gailentzen dela baieztatuko nuke.

Bizimodu hori gehiegi erromantizatu gabe, auzokideek duinki bizitzeko duten eskubidea bermatu behar da. Elorregin, Basalgon, San Juanen, Uberan, Osintxun edo Goiauzoan, bakoitzak duen kode propioa errespetatuz eta nahiak entzunez, lurrinontziko esentziari tapoia ireki behar zaio, ongi arnas dezan.

Aberasgarria liteke auzoen perfume gozoa herriraino hedatzea, baina horrela, ez zen gehiago auzoa izango, eta nik auzoa nuen maite.

### BUKATZEKO

# 8 urteren ostean, agur esango du Olgetak

8 urte pasatu dira "bizimodua ludiko bihurtzeko proiektua" martxan jarri zenetik, eta orain, "ametsa egia bihurtu ostean", Olgeta jostailu-dendak ateak itxiko ditu, etorkizunean aholkularitza zerbitzuarekin jarraitzea posible den arren

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE

"Pozik eta lasai" agurtuko du Itsaso Pagoagak bere "ametsa". Duela 10 urte buruan zeukan asmoa bi urteren ostean jarri zuen martxan: Olgeta. Euskara, jolasak eta hezkuntza oinarri hartuta sortu zuen proiektua, denda fisikoa izateaz gain, mahai-jolasen mailegua eta aholkularitza zerbitzuak eskaini dituen egitasmoa izan da; eta, "hasiera batean", maiatzaren 30era arte hala izango da. Dena dela, ez da data zehatza, adierazi duenez: "Hustu ahala jakingo dugu lehenago edo geroago itxiko den".

### Ziurtasun falta

"Hausnarketa prozesu luze baten emaitza" izan da itxiera, eta arrazoiak azaldu ditu ardura-dunak hori justifikatzeko: "Komertzio bat mantentzea ardura eta lan-karga handia dira, eta laneko ordutegia ez da kontziliatzaile egokia. Gainera, beste sektoreetan gertatu den moduan, jostailuen esparruan ere ondorioak ekarri ditu prezioen igoerak: materialaren garestitzeak –egurra, papera...– kalitatezko jostailuak eskaintzeko ziurgabetasuna ekartzen du epe ertainera begira".



Itsaso Pagoaga, Olgeta dendako jostailuekin. MIREN ARANA

### Euskal Herritik mundura

Komertzio txikien lana ez da salmentara mugatzen; norbanako bezeroekin, hornitzaileekin eta sektoreko lankideekin hartu-emanak izatea nahitaezkoa da hobetzeko. Formakuntzak

ezagutu eta sortu, lan-esparrura moldatu eta jende berria ezagutzeko aukera ematen du; bertako zein kanpoko pertsonak ezagutzeko "aukera bikaina" da. Herriko dendetan, gainera –erosle ala saltzaile izan–, "bezeroz

gaindiko" harremana izateko okasioa ere badago; hori izan da Pagoagaren kasua. "Egitasmo horrek ikasteko aukera asko eman dizkit, eskolako errealitatea ikusiz asko gozatu eta ikasi dut; eta jende jator asko ere ezagutu dut, bai Euskal Herrikoa eta baita kanpoko ere".

### Ametsa errealitate

Teknologia berriek ere eragin dute dendetan, eta salmenta fisikotik harago joateko aukera izan dute: Internet bidezkoa. Bertaratzeko beharrik izan gabe erosteko aukera ematen duten dendetako bat da Olgeta. Baina salmenta zerbitzua ez da eskaini duen aukera bakarria izan; jostailuak ikusi eta probatzeko mailegutza eta aholkularitza zerbitzua ere eskaini du. Hala, jostailuak trukatzeko espazioa "dudak eta beldurrik partekatze" toki bihurtu da.

"Ametsa" mantentzeak eskatzen du bere lana, ez da soilik zorte kontua; eta behin desira errealitate eginda, haren amaiera onartzen ere jakin behar da, eta hori da "gogorrena", ametsaren amaiera onartu eta uztearen erabakia hartzea.

### Hausnarketarako denbora

Esker hitzak izan ditu ardura-dunak, 8 urtez ametsa bizirik mantendu izana bezeroei esker izan baita; baina gogoeta bat egitera ere bultzatu ditu, kaleen eta herriaren biziraupena bermatzeko herriko dendek garrantzia azpimarratuz: "Gure ekintzek ondorioak dituzte, erosketak egiterakoan non eta zeini egiten diogun arreta jarri behar da, eguneroko praktika txikiak eragina dutelako".

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023

## ALKATEGAIEKIN DEBATEAK



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

ARRASATE MAIATZAK 15, ASTELEHENA  
BERGARA MAIATZAK 16, MARTITZENA  
OÑATI MAIATZAK 17, EGUAZTENA  
ARETXABAETA MAIATZAK 18, EGUENA  
ESKORATZA MAIATZAK 22, ASTELEHENA  
ANTZUOLA MAIATZAK 23, MARTITZENA  
ARAMAIO MAIATZAK 24, EGUAZTENA  
ELGETA MAIATZAK 25, EGUENA

21:00ETAN



GOIATZ  
ARANA

TXOMIN  
MADINA

Alkategai galderak egin nahi? 688 69 00 07  
Galderak bidaltzeko azken eguna: maiatzaren 12a